

# Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez formalaren esparruan bizikidetza eta bakerako hezkuntza



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

DEPARTAMENTO DE CULTURA

# Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez formalaren esparruan bizikidetza eta bakerako hezkuntza

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

**Euskal** Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez formalaren esparruan bizikidetza eta bakerako hezkuntza / [koordinazioa, Alicia Suso, Itziar Etxebarria ; egileak, Gorka Ruiz Santana ... et al.]. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004

p. ; cm.

Contiene, además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en castellano: "Educación para la convivencia y la paz en el ámbito de la educación no formal de la Comunidad Autónoma del País Vasco"

ISBN 84-457-2207-7

1. Educación para la paz. I. Suso, Alicia. II. Etxebarria, Itziar. III. Ruiz Santana, Gorka. IV. Euskadi. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social. V. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. VI. Euskadi. Departamento de Cultura. VII. Título (castellano)  
37.035

#### **Koordinazioa**

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua  
Alicia Suso (lehendakaria)  
Itziar Etxebarria (bakerako teknikaria)

#### **Egileak**

EDE Fundazioaren Aholkularitza eta Azterketa Sozialen Saila  
Gorka Ruiz Santana  
Iratxe Mier Villarías  
Rafael López-Aróstegui  
Iskandar Cabezas Morquecho  
Zahora Mohammad Martínez

Argitaraldia: 1.a, 2004 abendua

Ale-kopurua: 1.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbo)

Inprimaketa: Grafo, S.A.  
Avd. Cervantes, 51 (48970 Basauri)

ISBN: 84-457-2207-7

L.G.: BI - 27-05

# Aurkibidea

AURKEZPENA .....	7
SARRERA .....	9
AZTERKETAREN HELBURUA, TEORIA ESPARRUA .....	13
EMAITZEN AZTERKETA .....	23
1. kap. <i>Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin zerikusia duten kontzeptuak</i> .....	25
1.1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza .....	25
1.2. Bakearen kontzeptua .....	30
1.3. Gatazkaren kontzeptua .....	34
1.4. Indarkeriaren kontzeptua .....	41
2. kap. <i>Deskribapena. Zer egiten den. Bizikidetza eta bakerako aisialdi hezitzaileko taldeetan</i> ...	47
2.1. BBH taldearen hezkuntza proiektuan .....	48
2.2. Nola lantzen da BBH aisialdiko taldeekin? .....	51
2.3. Gatazkarik garrantzitsuenak aisialdiko taldeetan .....	56
2.4. Zein unetan lantzen da BBH? .....	61
2.5. BBHri buruzko prestakuntza taldeetan .....	66
2.6. BBHren esparruan egindako lanaren balioespena .....	69
3. kap. <i>Egiten denari buruzko norberaren balioespena</i> .....	77
3.1. BBHk taldeetan duen tokia .....	77
3.2. BBH lantzeko eskura dauden baliabideak .....	85
3.3. BBHren lan arloak .....	87
3.4. BBHren alderik sendoenak eta ahulguneak .....	93
4. kap. <i>Orientabideak. Beharrak eta eskaerak</i> .....	101
4.1. BBHn gehiago sakondu beharreko gaiak .....	101
4.2. Prestakuntzara bideratutako beharrak eta eskaerak .....	104
4.3. Hartu beharreko neurriak .....	108
ONDORIOAK .....	111
1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin zerikusia duten kontzeptuak .....	113

2. Deskribapena. Zer egiten da taldeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntzari (BBH) dagokionez?	115
3. Egiten denari buruzko balioespena .....	117
PROPOSAMENAK .....	119
AZTERLANAREN FITXA TEKNIKOA .....	127
1. Elkarrizketa sakonak .....	129
2. Eztabaida taldeak .....	130
3. Galdera sortak .....	133
BIBLIOGRAFIA .....	139
TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA .....	141
ESKERTZA .....	147
I. ERANSKINA. <i>Elkarrizketatutako taldeak</i> .....	153
II. ERANSKINA. <i>Erakundeak: baliabide basea</i> .....	165
III. ERANSKINA. <i>Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoan programarako proposamena</i> .....	185
IV. ERANSKINA. <i>Galdera sortak</i> .....	189

# Aurkezpena

XXI. mendeko hezkuntzari buruzko txosten batean UNESCOk gomendatzen duenez, elkarbizitzen ikastea da hezkuntzaren zutabe nagusietako bat. Komunikazio-bide berriak irekitzen eta pertsona, herri eta kulturen arteko mugak ezabatzen ari diren gizarte berri honetan, bakean elkarbizitzen ikastea guztien eskaria da, eta hori hala da, bereziki, Euskal Herrian, arrazoi eta indar handiagoarekin.

Azken hamarkadan hainbat ahalegin egin dituzte erakundeek Bakerako Heziketaren inguruan oinarri komunak sortzeko. Hala, 1998an, *bakerako hezten Euskal Herrian. Euskal Herrian bakerako heziketa sustatu eta garatzeko oinarriak*, lana jorratu zuten Lehendakariak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskadin bakerako heziketan lan egiten duten gizarte-erakundeekin batera. Taldeek egin zuten proposamen nagusietako bat *egoeraren mapa* egitearena zen. Abiapuntua bakerako heziketaren egoeraren argazki finko bat edukitzea zen, hortik aurrera proposamenak diseinatu, eskuartze-motak definitu eta ase beharreko premiak zehazteko.

2000. urtetik aurrera teknikari eta adituen lantalde bat osatu zen *egoeraren mapa* egiteko. Mapa horrek Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntza arautu zein arautu gabekoan, elkarbizitza eta bakerako heziketak zuen egoera deskribatu behar zuen: errealitatea, premiak eta proposamenak. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Giza Baliabideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren sustapenarekin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Kultura Saileko Gazteria eta Komunitate Ekintzarako Zuzendaritzaren laguntzarekin.

Lan horren emaitza elkarbizitza eta bakerako hezkuntzak Autonomia Erkidegoko eskolarloan eta arautu gabeko hezkuntzan duen egoerari buruz orain argitaratu diren bi ikerketa-lan dira, eta horien edukia da Jaurlaritzak aurrera eraman nahi duen bakerako hezkuntzari buruzko politikak garatzeko oinarria.

Hezkuntza-arloko beharizan bat plazaratzen denean, lehenik eta behin, ikastetxea dator-kigu gogora; izan ere, pertsona guztiak joan daitezke bertara, eta bertan pasatzen dute bizitzako zati garrantzitsu bat, garapen pertsonalerako erabakigarrienak diren faseetan bereziki. Ikastetxeetan familia eta gizarte maila desberdinetatik datozen pertsonak bizi dira; giro positibo eta eraikitzaile batean elkarbizitzen ikasten dute; eta oinarrizko kultur irakaspenak jasotzen dituzte, erreferente komuna osatzen dutenak. Besteak beste, horregatik onartzen dute hezkuntza-komunitateko kolektiboek zeregin garrantzitsua eta beharrezkoa dutela —ez, ordea, esklusiboa— elkarbizitza eta bakerako heziketan.

Horren ildotik, aisialdiko taldeek egiteko bereziki garrantzitsua dute, borondatezkoak diren aldetik. Horietan heziketa-lan bideratua egiten da, bizipen-metodologia dinamiko batekin, etengabeko elkarbizitza eta lankidetzat-testuinguru baten barruan.

Hori dela eta, txostenak bi dira. Horietako batek eskola edo hezkuntza arautuaren esparrua hartzen du, eta besteak eskolaz kanpoko, edo arautu gabeko irakaskuntzarena.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du, erabat, gai horren inguruan dagokion ardura. Gure ustez, erakundeek ekidinezinezko betebeharra da aitzindaria izatea gizartearentzat, bake eta elkarbizitzako benetako kultura garatzeko lanean. Horregatik, behean sinatzen dugun hiru sailburuok, Jaurlaritza osoaren izenean, bakerako heziketa irtotasunez sustatzeko ardura hartzen dugu gure gain, aipatutako bide horretan aurrera egiteko ezinbesteko tresna delako.

Jakitun gaude lan hori etengabea dela, eta ez garela hutsetik hasiko. Izan ere, hainbat ekimenen bitartez hasitako lan garrantzitsua dago eginda, eta lan horietatik ikasi behar da, baliozko esperientziak diren aldetik, nahiz eta gaiak lan trinkoago eta sendagoaren beharra duen.

Gure zereginaren xedea, bada, dauden ekimenak koordinatu eta dinamizatzea da, gaur arte garatu diren programa guztien koherentzia bermatzeko asmoz. Baina, batez ere, etorkizunean hartuko diren lan-ildo berrietan jarriko ditugu indarrak.

Finean, lerro hauen bitartez ikerketa-lan horiek aurkeztu nahi ditugu, bake eta elkarbizitzarako heziketak lehen mailako helburu politikoaren kategoria izan dezan Jaurlaritzarentzat, eskalaz gizartearentzat etorkizun orekatu eta gizalegezkoagoa lortze aldera. Ibilbide horri ekiteko, ezinbestekoa da, noski, erakunde publikoen partaidetza aktiboa, baita herritarrena ere, familieren, aisialdiko taldeen eta komunikabideen bitartez, besteak beste. Indar horiek guztiak helburu berari begira jartzeak xede horretan aurrera egiteko aukera emango digu. Eta hori da Jaurlaritzak hartu duen norabidea.

JOSEBA AZKARRAGA  
Justizia, Lan eta Gizarte  
Segurantzaren Sailburua

ANJELES IZTUETA  
Hezkuntza, Unibertsitate eta  
Ikerketa Sailburua

MIREN AZKARATE  
Kultura Sailburua

# Sarrera

Erakundeek ahalegin handia egin dute, azken hamar urteotan, bakerako hezkuntzaren esparruan oinarri komunak ezartzearen. Adibidez, 1998. urtean, Lehendakaritzak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, egin zuten, Euskadin bakearen aldeko hezkuntzan diharduten beste 11 talderekin<sup>1</sup> batera, *Bakerako hezi Euskal Herrian. Euskal herriko bakerako hezkuntza bultzatzeko eta garatzeko oinarriak eta proposamenak* izeneko lana. Taldeek egindako proposamenik garrantzitsuenak «egoeraren mapa» izan zuen oinarri. Abiapuntuan, helburua zen bakerako hezkuntza zein egoeratan zegoen zehatz-mehatz jakitea; eta horren arabera diseinatuko ziren proposamenak eta zehaztuko zen nola jokatu eta zein behar bete behar zen.

Txosten horren ondorioz, beharrezkotzat jo zen «egoeraren mapa» osatzea, mapa horrek erakutsiko baitzuen zein ziren Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza formalean eta ez formalean bizikidetzarako eta bakerako hezkuntzaren errealitatea eta beharrak, bai eta zein proposamen egin ere.

Eskuartearen duzun txosten hau da 2002. urtean egindako EAEko hezkuntza ez formalaren esparruan bizikidetzara eta bakerako hezkuntza azterlanaren emaitza. Ekimena bultzatu dute, ares-tian azaldutako eskaerari erantzutearren, Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak eta Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzak.

Azterlana EDE Fundazioaren Aholkularitza Sailak egin du, eta lagundu diote fundazio bereko AHIMSA LAN TALDEAK (Hezkuntza eta Indarkeria-ez Saila), azterlanaren teoria esparrua mugatzen, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak.

Bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzarako (aurrerantzean BBH) proposamenek osoko esku-hartzea izan dezaten, antzeko ezaugarriak dituen azterlana egin du beste talde batek aldi berean, hezkuntza formalaren esparruan. Bi taldeak teoria-esparru berera mugatu dira, biek ala biek erabili dituzte antzeko metodologia baliabideak landa lana egiterakoan, eta txostena idazterakoan ere, egitura berari jarraitu diote.

---

<sup>1</sup> AHIMSA LAN TALDEA-Hezkuntza eta indarkeriarik eza, EDE Fundaziokoa, Giza duintasunaren aldeko elkarteak, Bakea Orain, Bakeaz, Gernika Gogoratuz, «Euskal herriko Bakearen aldeko Koordinakundearen» bakerako hezkuntza batzordea, UNICEF-Euskadiko batzordea, ELKARRI, Gazteak bakearen alde, Movimiento contra la Intolerancia, UNESCO Etxea.



---

## 1. Azterlanaren helburuak

Azterlan honen bidez lortu nahi diren helburuak honakoak dira:

- Hezkuntza ez formalaren esparruan bizikidetza eta bakerako hezkuntza zein egoeratan dagoen jakitea, eta, era berean, jakitea zein diren arlo horretan antzemandako beharrak.
- *EAEko bizikidetza eta bakerako hezkuntzari dagokionez, jokabideak proposatzea hezkuntza ez formalaren esparruan.*
- *EAE n dauden bizikidetza eta bakerako hezkuntza materialen datu basea egitea.*

---

## 2. Azterlanaren irismena

Azterlanaren hartzaileak dira: alde batetik, aisialdiko taldeetan edota eskolaz kanpoko jardueretan aritzen diren adin txikikoak, 8 eta 18 urte bitartekoak. Gutxieneko adina 8 urte izatea erabaki dugu, eta arrazoiak izan dira bai azterlanaren edukiak, bai eta aisialdiko taldeen errealitateak hala agintzen zuelako ere; adin horretako neska-mutilekin hasi ohi dira lanean aisialdiko taldeetan.

Beste alde batetik, talde, elkarte, federazio, eskola, eta, oro har, hezkuntza ez formalaren esparruan diharduten erakundeetako begirale eta arduradunak, bai eta aisialdiko taldeetako neska-mutilen gurasoak ere.

Azterlan honetan azaltzen den esparru ez formala mugatzearen, honakoak aztertu ditugu:

- Haur eta gazteen aisialdiko taldeak.
- Ikastetxeetako eskolaz kanpoko jarduerak.
- GGKE-ak eta gizarte mugimenduak.

---

## 3. Metodologia

Azterketaren metodologia erabakitzerakoan, beharrezkoa iruditu zitzaigun hainbat teknika erabiltzea, eta, azkenean, teknika kualitatiboen eta kuantitatiboen arteko konbinazioa erabiltzea ebatzi genuen.

Teknika kualitatiboei dagokienez, elkarriketa sakonak egin dizkiegu aisialdiko taldeetako, eskoletako eta federazioetako arduradunei, eta, bestalde, erakunde horietako ordezkariekin eztabaida taldeak antolatu genituen.

Eztabaida talde horietan esku-hartu zuten bai begiraleak prestatzen dituzten eskoletako arduradunek, bai eta aisialdiko elkarte eta taldeak biltzen dituzten federazioetako arduradunek ere.

Teknika kuantitatiboei dagokienez, idatzizko galdera sortak eman dizkiegu aisialdiko begiraleei, neska-mutilei, eta gurasoei.

Bestalde, BBHren alorrean egiten ari denari buruzko informazioa jasotzea ezinbestekoa da bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren Liburu Zuria egin ahal izateko, eta hori kontuan hartuta, arlo horretan berriaz diharduten erakundeei buruzko datu bilketa egin dugu: agiriak, bibliografia materiala eta BBHn egindako lanak.

Kontraste talde batek ere lagundu digu prozesu osoan. Izenak berak dioen legez, gure lana alderatu dute gure esparruan lan egiten duten beste zenbaitekin, gai honetan adituak direnekin... Talde horrek estrategia mailako erreferentzia eskaini digu, errealitatearekin zerikusia duten gaiak ekarri baitituzte; maila operatibo eta taktikoan ere lagundu digute... eta horrek bermatzen du gure lanaren aniztasuna, mota guztietako pentsamendu, jarduera eta interpretazioak hartu baititugu.

Gure asmoa taldeko lanean aritzea denez, azterlanaren diseinuan esku-hartu dute Euskadiko Gazteriaren kontseiluak, EDE Fundazioko AHIMSA LAN TALDEA - Hezkuntza eta indarkeria-ez Sailak, EDE Fundazioaren Aholkularitza Sailak eta kontraste taldeak. Kontraste taldearen partaideak Zesar Martínez, Félix Placer, José María Puyo eta Ricardo Calle izan dira.

Hauek izan dira informazio garrantzitsua biltzeko bideak:

- Galdera sortak begirale, neska-mutil eta gurasoentzat.
- Banakako elkarrizketak aisialdiko eskola eta mugimenduetako arduradunei.
- Elkarrizketak aisialdiko talde, eskola eta mugimenduetako arduradunei.
- Eztabaida taldeak aisialdiko eskola eta mugimenduetako arduradunekin.
- Elkarrizketak adituei.
- Kontsultak agiritegietan, erabiltzeko moduan dauden informazio eta zerrendak biltzeko.
- Alor honetan izan diren saiakera arrakastatsuei buruzko informazioa biltzea.
- Esparru honetan diharduten erakundeen fitxategia eta zerrenda osatzea.
- Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoan egitaraua (ACEX).



# **Azterketaren helburua.**

## **Teoria esparrua**



EAEko hezkuntza ez formalaren sarean bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren egoerari buruzko azterlana hasi aurretik, behar-beharrezkoa iruditu zitzaigun kontzeptuak erabat zehaztea: hezkuntza, bakea, hezkuntzaren esparru ez formala, gatazka, indarkeria, indarkeria-eza,...; helburua zen teoria esparru batetik abiatzea, kontzeptu horien inguruan gaur arte lortu den adostasuna, etorkizuneko erronka,... azaltzen duen esparrutik, alegia.

Eta hori izan zen gainditu beharreko lehenengo oztopoa; izan ere, kontzeptu horiek, beste guztiak bezala, aldatu egiten dira garaiaren arabera, herriaren historia, politika eta gizarte testuinguruaren arabera, kultura nagusia zein den,... azken finean, tokiaren eta denboraren arabera.

Lehen ere aipatu dugu azterlan honekin batera beste bat ere ari direla egiten, hezkuntza formalaren esparruari dagokiona, eta biek dutela teoria esparru bera. Horrek nekezagoa bihurtu du lana, teoria esparru komuna onartu behar baikenuen, baina lortu lortu dugu.

Gure teoria esparrua osatzeko, hartu dugu kontzeptu horiek nola aurkeztu dituzten historian zehar pentsalariak, hezkuntza eskolek, gizarte mugimenduek... eta, ondoren, sintesi azterketa erabili dugu. Aipatutako horiei guztiei esker, hitzak argitu eta zehazten dituen teoria esparrua osatzea erdietsi dugu.

Ondoren, azterlanaren helburuarekin zerikusia duten kontzeptu horiek aurkeztuko ditugu banan-banan. Hartara, irakurleari gaira hurbiltzen lagunduko diogu.

---

## **Azterlanaren helburuaren definizioa: Hezkuntza ez formalaren esparruan bizikidetza eta bakerako hezkuntza**

### *Hezkuntza ez formalaren esparrua*

Lehenengo eta behin, esan beharra dago ezezko definizioa dela, hezkuntza formalaren esparruari kontrajarrita baitago.

Hezkuntzazkotzat jo daitekeen esparru honen bereizgarrietako bat izan liteke nahitaezkoa den edo ez. Hezkuntza ez formalaren esparruaren ezaugarri positiboetako bat da ikasleek eurek askatasun handiagoa dutela aukeratzeko zein jarduera egin.

Esparru honen bigarren ezaugarria izan liteke jarduerak zein tokitan eta zein garaitan egiten diren. Hala bada, hezkuntza ez formalaren esparrua identifikatzen da eskolaz kanpoko edo eskolako ez den esparruarekin.

Edonola ere, ikuspegi horrek badu arriskua nahasmena sortzeko, izan ere, gaur egun, aisialdiko jarduera asko eta asko, ez formalak edo eskolaz kanpokoak, eskolaz kanpoko ordutegian egin ohi dira, baina ikastetxean bertan.

Ikastetxeak, eskolaz kanpoko jarduerak ez ezik, hezkuntza esparru ez formalari berariaz dagozkion metodologiak ere ari dira hartzen, gero eta gehiago; baita ikasgelako jardunean ere. Horregatik, zaila da bi esparruak bereiztea jarduerak egiten diren tokiaren edo baliatzen den metodologiaren arabera.

Azkenik, badago bereizketa egiterik jarduera egiten duen lagunaren arabera, baina, gaur egun, bereizketa hori ere ez dago batere argi. Sektore honetako ohiko eskaintza ez ezik, alegia, aisialdi hezitzaileko taldeak eta gazte elkarteak, gaur egun bada ikastetxeen, udalen eta enpresen eskaintza ere.

Elkarreragina eta erlazioa dago, egon ere, hezkuntza formalaren, ez formalaren eta informaldaren artean. Elkarreragin eta erlazio horiek hezkuntzaren kontzeptu sistemiko batera garamatzate.

## Hezkuntza

*Bakerako heziketari buruzko euskal liburuan*<sup>2</sup> honako hau dago adierazita:

Hezkuntzaz aritzean, pertsonaren *baitatik ateratzen utzi* kontzeptuaz aritzen ari gara.  
(...)

Hau hezkuntza aukera oso, aktibo eta askatzailea da; hots, pertsonari bere garapen integrala osatzeko behar dituen baliabideak eskaintzen zaizkio. Modu horretara, pertsonak berak erabaki eta eraikitzen du ondoen uste duena, beraz, gizartean murgiltzea eta egoera desberdinak era positiboan bizitzea ahalbidetzen da. Horren harira eta hezkuntza neutrorik ez dagoela onarturik, ondrratu izateko, esan behar dugu hautatu nahi dugun hezkuntzak ondorengo ezaugarriak dituela: manipulatzaila, intentzionala, pertsona ezbertitzak lortu nahi dituen, hau da, pertsona horiek ez dituzte gauzak onartu ala errefusatzen, onartu ala errefusatzeko hutsagatik, baizik eta azaldutakoa baloratu eta aztertu ondoren.

(...) Balore batzuen helburua pertsona kritikoak heztea da eta gure ustetan positibo diren baloreotan oinarritutako hezkuntzaren aldeko apustuak nahi dugun pertsona eredura hurbiltzen gaitu. Eredua hori, eduki handia izateaz gain, honakoa da: pertsona managaitza.

## Bakea

Hitzik erabilitakoena da gaur egun; era guztietako pertsonen, politikariek, idazleek, pentsalariak, hezitzaileek, artistek, kirolariek... guztiek darabilte ahotan «bakea» hitza. Eta, orain, gainera, moda-modako hitza da. Hala ere, kontzeptu anbigua da, oso, eta konnotazioz beterikoa.

<sup>2</sup> Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. Consejo de la Juventud de Euskadi: *Bakerako Heziketari buruzko Euskal Liburua. Libro vasco de educación para la paz*. Bilbo, 1997. 112 o.

Bakea hitzaren esanahia argitze aldera, John Paul Lederach-ek<sup>3</sup> aurkezten dituen bakea hitzaren ikusmoldeak hartuko ditugu oinarri. Bakea hitzak, herri mailan, gizakion ilusio eta ideal bat, denok gogo biziz nahi dugun ilusio eta ideala, adierazteko ahalmena du; horrexegatik manipula daiteke erraz-erraz: inor ez dago bakearen aurka, denon helburua da bakea.

Mendebaldean duen esanahiari erreparatuz gero, bi kontzeptu dira ardatz: greziarren eirene eta erromatarren pax kontzeptuak. Greziarrentzat, *eirene* (bakea) hitza zen ia-ia harmonia osoa; bakez eta lasaitasunez beteriko egoerari esaten zioten. Erromatarrek, berriz, pax hitza zerabilten ezarritako lege eta arauen arabera, gerrarik eza adierazteko. Hitza zehazten duten ezaugarriak dira indarkeriarik eza, barne edo kanpoko gerrarik eza; horrek berekin dakar barruko ordena eta armonia bermatuko duen aparatu militarra; erakunde horrek egingo dio aurre etsaiari, eta gizartean agintzen duen zatiak ezarritako lege eta aginduekiko begirunea bermatuko du<sup>4</sup>.

Laburbilduz, gaur egun indarrean dagoen kontzeptua erromatarrena da, alegia, bakeak erasorik eza adierazten du; gatazkarik eza. Bakea kontzeptu negatiboa da; gerrarik eza. Bakearen ideia negatibo horrek, lasaitasuna, gatazkarik eza, bakearen beraren irudi pasiboa ekarri du. Bake negatiboak ez dakar berekin justizia, ez du egiturazko bortizkeria kritikatzeko.

#### Bake negatiboa

Zuzeneko indarkeriarik eza azpimarratzen du ikusmolde horrek. Bakea «gerrarik eza», besterik ez da. Beraz, berekin dakar aparatu militar bat, ordena bermatuko duena, etsaiari aurre egingo diona eta statu quo iraunaraztea bermatuko duena.

Galtung-ek<sup>5</sup> halaxe dio: «Gaur egun bakeari buruz dagoen kontzeptua pobrea da...» eta behar-beharrezkoa da kontzeptua egituratzea.

#### *Bake positiboa*

Johan Galtungek indarkeriaren ikuspegi zabalagoa proposatzen du. Egile honen ustez, «indarkeria badago egon, pertsonak halako eraginpean daudenean, non beren eginbideak, afektiboak, somatikoak edo buruzkoak, egin lezaketenaren azpitik baitaude». Horrexegatik da beharrezkoa indarkeriari buruzko ikusmolde zabalagoa. Eta ikusmolde zabalago horrek «bakearen ikuspuntu zabalagoa» dakar berekin.

Galtungek zenbait indarkeria mota bereizi ditu: indarkeria pertsonala edo zuzena, eta zeharkako edo egiturazko indarkeria. Hala bada, proposatu zuen «bake positibotzat»

hartzea ez bakarrik bortizkeria zuzenik edo egiturazkorik ez egotea, baizik eta bortizkeriarik gabeko lankidetzaren egotea, berdintasunezkoa, esplotaziorik gabekoa, eta nahitaez berdinak izan behar ez diren unitateen, pertsonen eta nazioen arteko errepresiorik gabekoa.


<sup>3</sup> LEDERACH, John Paul: *Educar para la Paz*, Fontamara, Bartzelona, 1984.

<sup>4</sup> GRASA, Rafael: *Situación actual de la educación y la investigación por la paz*, Vitoria-Gasteiz, 1986.

<sup>5</sup> GALTUNG, Johan: *Sobre la paz*, Fontamara, Bartzelona, 1985.



Definizioa eman ondoren, oso era grafikoan, «hirukia erabili zuen, oso baliagarria izan baitaiteke indarkeriaren mapa irudikatzeko»:



Zuzeneko indarkeria, fisikoa edo ahozkoa izan, ikusi egiten da jokabidean, agerikoa da. Baina giza ekintza ez da ezerezetik sortzen, sustraiak dituelako. Bi sustrai aipatzen ditu: indarkeriazko kultura (heroikoa, abertzalea, patriarkala...) eta egitura bat berez indarkeriazkoa dena, zapaltzailegia, esplotatzailegia edo alienatzailegia delako; gogorregia edo bigunegia jendearen ongizaterako.

#### Bake positiboa

Zuzeneko indarkeria ia ez egotea, eta, aldiz, justizia eta adiskidetzeko kultura ondo sustraituta egotea. Helburua da, batetik, egiturazko eta kultura indarkeria desagerraraztea, eta, era berean, gizartearen harmonia eta guztien eskubideak errespetatzea. Bakerako hezkuntzaren alorrean nagusi da, gaur egun, ikusmolde hau, eta berdintasuna, justizia eta elkartasuna lehenesten ditu.

*Adam Curle*<sup>6</sup> da, bakeari buruzko ikerketetan, aitzindarietako beste bat. Egile honek ere, bakea zehazterakoan, bake negatiboa eta bake positiboa kontzeptuak aztertu ditu: «Definizio negatibo batean, bakezko harremanak dira gatazkarik gabekoak. Baliteke, ordea, gatazkarik ezak elkarketa eza baino ez adieraztea... baina nik horri bake negatiboa esango nioke. Curleren ustez, bake positiboa da indarkeria gutxi eta justizia handia egotea». Helburua da gizartearen harmonia, justizia, berdintasuna; eta, beraz, egiturazko indarkeria eta indarkeria zuzena dakarten egoerak aldatzea. Prozesutzat hartzen du, helmuga baterantz, justizia eta berdintasunerantz, abian den zerbait dinamikotzat, alegia.

#### Gatazka

Gaur egun, nagusi da gatazkari buruzko ikusmolde negatiboa; zorigaitza da, arazoa, inork nahi ez duena. Lederachek dio «herri senak eta zientzia definizio askok aurkezten dutela gatazka gertakari desatsegin gisa, berez txarra den gertakari gisa».

<sup>6</sup> CURLE, Adam: *Educación liberadora*, Herder, Bartzelona, 1977.

Cascón-en<sup>7</sup> iritziz,

gehienok uste dugu (hezitzaileak barne) ez gaituztela hezi gatazkei modu positiboan aurre egiteko; hori dela eta, tresnak eta baliabideak falta zaizkigu.

Horrela definituta, «helburu bateraezinak dituzten pertsonen arteko elkarrekintza da gatazka» (Lederach).

Bestetik, Galtung-ek gatazkaren ikuspegi positiboaren aldeko jarrera du:

Gatazka erronka da; azken batean, helburu bateraezinak edukitzea bi aldeentzat izugarrizko desafioa da, bai adimen mailan, bai emozio mailan. Horren arabera, beraz, gatazka gure izateari zentzua ematen dion arrazoietakoa bat da; aldaketaren arrazoia, aldaketarekin batera gertatzen den zerbait eta aldaketaren ondorioa; bizitza sozialerako ezinbestekoa; bizitzeko arnasa hartzea bezain garrantzitsua.

Lederach-en ustez,

gatazka prozesu naturala da, gizarte guztietan gertatzen da, eta beharrezko fenomeno da giza bizitzarako. Gainera, positiboa izan daiteke aldaketetarako eta harremanetarako, baina baita negatiboa ere; izan ere, hori gatazka erabiltzeko moduaren baitan dago.

Giza Eskubideen aldeko elkarteak (APDH-CIP) bakerako hezkuntzari buruz egindako mintegian<sup>8</sup> honela dio:

Bakerako hezkuntzan, gatazka da landu beharreko helburu garrantzitsuenetako bat, eta hausnarketa honetarako abiapuntutzat eta erreferentziatzat hartzen da: ba al dakigu gatazka konpontzen? Eskuarki, gatazka negatibotzat hartzen da, desatsegina izaten da. Izan ere, zenbaitetan, gatazka konpontzeko erabiltzen dugun moduak ondorio suntsitzaileak edo kaltegarriak dakartza, eta horrekin lotzen dugu gatazka, ez gatazkarekin berarekin... horregatik hartzen dugu gatazka negatibotzat. Gatazka ez da indarkeria; aitzitik, beharrezko osagaia dugu pertsonon bizitza sozialerako.

*Bakerako hezkuntzarako euskal liburuan* hauxe diote:

Bizitzak berezkoa du gatazka, elkarren arteko harremana bera da gatazka. Besteekin batera egiten gara, hainbat lagunekin harremanak ditugu, eta harremanak, izatez, gatazka-tsuak dira, harreman horietan gizaki askok hartzen baitute parte. Gizakiak behar-beharrezko ditu desberdintasunak eta giza harremanak, eta horietan berezkoa da gatazka. Alde horretatik, gatazka ez da ez negatiboa, ez positiboa. Positiboa edo negatiboa gatazka konpontzeko modua izango da; hau da, bizirik eta elkarrekin harremanetan dauden pertsonen, desberdinak izanik, elkarren artean duten harreman mota.

Beraz,

gatazka, izatez, ez da ez positiboa, ez negatiboa. Gatazka positiboa edo negatiboa izatea harremanak izateko dugun moduaren baitan dago; hots, mendekotasunezkoak, menderatzaileak

---

<sup>7</sup> CASCÓN SORIANO, Paco (koord.): *Cuadernos de Pedagogía. Educar para la Paz y la Resolución de Conflictos*, CISSPRAXIS argitaletxea, S.A. Bartzelona, 2000.

<sup>8</sup> SEMINARIO DE EDUCACIÓN PARA LA PAZ, ASOCIACIÓN PRO DERECHOS HUMANOS: *Educar para la paz: una propuesta posible*, Los Libros de la Catarata, Madrid, 1994.

edo berdintasunezkoak izatearen baitan. Positiboa edo negatiboa gatazka konpontzeko modua izango da; hain zuzen ere, elkarrekin bizi diren eta harremanetan dauden pertsona desberdin horien arteko gatazka konpontzeko modua. Gainera, gatazkek beharrezkoak dira garapen pertsonalerako eta partaide garen taldeen garapenerako; beraz, gatazkarako hezi, bizi dugun gatazkaz jabetu, horiei aurre egin eta horien jatorria aztertu behar dugu; eta, gainera, horiei erantzun positiboak emateko gaitasuna izan behar dugu, geure burua eta taldea garatzen lagungarri izateko».

Gatazka kontzeptuak harreman zuzena du bizikidetza kontzeptuarekin. Gatazkek harremana dagoela esan nahi du, eta bilatzen ari garen harremanak bizikidetza du oinarri; ahalik eta ondoen bizitzea besteekin, geu izanda eta pentsatzen duguna pentsatzen dugula.

### *Agresibitatea*

Kontzeptu hau ere gizarteak eta historiak baldintzatuta dago. Baldintza horiek hainbat jorkabide zurriz saiatu dira.

*Bakerako heziketari buruzko euskal liburuan* adierazita dagoenez,

joan den mendean, Darwinen teoriatik, espezieen bilakaerari buruzkoa, eta giza natura era zientifikoan aztertzeke interesetik abiatuta, hasi ziren halako esaldiak entzuten: «gizakia berez da bortitza», «gu ere, animaliak bezalatsu, bortitzak gara»... eta bizirauteko borroka aitzakiatzat hartzea doanekoa eta erabat gizatiarra da indarkeria zurrizteke. Jatorrira jo behar da (Darwin...),

eta aurreiritzirik gabe,

irakurtzerakoan bereizten hasi behar dugu agresibitatearen eta indarkeriaren artean. Hor dira, irakurgaien artean, esaterako, Santiago Genovés, Malinowski, Margaret Mead, John Bowlby eta gaur egungo beste hainbat zientzialari, antropologo, biologo... Horiek guztiek askoz ere ikuspegi zabalagoen aurrean jartzen gaituzte: agresibitate hitza berreskuratu eta indarkeria hitzetik bereizi behar dugu.

Bizidunei dagokienez, pertsonok baditugu sen edo irrika batzuk, bizitzeko ahalbidea ematen digutenak, eta agresibitatean aurkitzen dutenak bizibidea eta espeziea iraurarazteke erreakzio-gaitasuna.

Silvia Boninok, adibidez, «Eboluzio-psikologiaren ekarpenak bakerako hezkuntzari» liburuan, halaxe dio:

«agresibitatea bizitzeko indarra izan daiteke, nahiz eta sarritan heriotza-senarekin bat egin. Bi funtzio osagarri betetzen ditu:

- Alde batetik, norberaren garapenerako eta norberaren burua sendotzeko.
- Beste batetik, norberaren errealizazioan sortzen diren oztopoetan aurrean, identitatea babesteko.

Agresibitatea ahalmen positiboa dela onartzeak ez ditu zilegi bihurtzen indar suntsitzaila eta indarkeria; berez, agresibitatea eta indarkeria ez dira bat. Indarkeria agresibitatearen endekapena da; gertatu ohi da nor bere burua sendo erakutsi eta errealizatu nahi duelako.

Agresibitate positiborik ez egotea indarkeria suntsitzaila bezain larria da, pertsona konformismora daramalako, eta arriskua du erabakitzeke gaitasunik ez izatea, eta, ondorioz besteek manipulaztea.

## Indarkeria

Txosten honetan behin eta berriz azaltzen da indarkeria hitza. Galtungek hasiera-hasieratik oharrarazi zuen indarkeriaren ikuspuntu zabalago batez, esan

baitzuen indarkeria badagoela egon, pertsonak halako eraginpean daudenean, non beren eginbideak, afektiboak, somatikoak edo buruzkoak, pertsonak berak egin lezaketenaren azpitik baitaude.

EDE Fundazioko AHIMSA LAN TALDEA-Hezkuntza eta indarkeria-eza Sailaren ustez, indarkeria da pertsona edo erakunde mailako jokaera bat, aktiboa zein pasiboa, zeinak pertsonak bere buruarekin, gainerakoekin eta naturarekin duen armonia hausten baitu, bai indarkeriazko ekintzen bidez (egoerazko indarkeria) edota indarkeriazko egoeren bidez (erakundeen indarkeria).

Gure ustez, gatazkari eman dakioken irtenbideetako bat da. Baina azpimarratu nahi dugu irtenbidea emateko modua dela, eta ez gatazka bera. Bestalde, erantzuteko modurik hedatuena da, eta, zoritxarrez, gehien erabiltzen dena; baina, gure iritziz, gutxien asetzen duena da, eta negatiboena ere bai; pertsona izaten gutxien uzten diguna.

## Indarkeria-eza

Aldez aurretik komeni da argitzea zergatik idazten dugun indarkeria-eza, hitz bakar batez. CANek<sup>9</sup> (Indarkeriarik gabeko Alternatiba baten aldeko Taldea) dio

ez dela nahieran aukeratutakoa». Italicieraz, gaztelaniaz eta frantsesez ere hitz bakarra dugu... Beti diogu indarkeria-eza ez dela indarkeriaren ukapen hutsa... indarkeria-eza indarkeriari baino gehiago, pasibotasunari eginiko erronka da. Horrek guztiak hitz bakar batean adieraztera garamatza, berezko edukia du-eta. Horretarako, hizkuntzaren bizitasunera jo dugu, hizkuntzaren bidez osotasuna adieraz baitaiteke zati bakarra izendatuta, eta hitz askorekin gertatzen den legez, hizkuntzak eman diezaiekeelako etimologia jatorritik ondoriozta daitekeen baino eduki semantiko zabalagoa.

EDE Fundazioko AHIMSA LAN TALDEA-Hezkuntza eta indarkeriarik-ez Sailak dio

Ghandik zabaldu zuela indarkeria-eza hitza, «Ahimsa» hitz hindua oinarri hartuta. «Ahimsa» hitzak erabat adierazten du indarkeria-ezaren kontzeptua, eta berez du esanahia, ez beste baten ukapenez (horregatik idazten dugu hitz bakarrean).

Indarkeria-eza da pertsona edo talde mailako jokaera bat, zeinak pertsonaren harmonia hirukoitza bilatzen baitu (harmonia bere buruarekin, gainerakoekin eta naturarekin). Horretarako, koherentziaz, egiazkotasunez eta naturaltasunez bizi ditu hainbat balio, besteak beste, justizia berdintzailea, autonomia solidarioa, norbera desarmatzea eta utopia osasuntsua; eta, horrez gain, halako jokabideak ditu: lankidetzeta, tolerantziaz beteko elkarriketa, jarrera ludikoa, desobedientzia kritikoa, erlazio enpatikoa, ekologia integrazioa eta otoitz egiteko gaitasuna.

<sup>9</sup> COLECTIVO PARA UNA ALTERNATIVA NOVIOLENTA: *Los niños de Getafe declaramos la paz*, 1984.

Horregatik guztiarengatik da gatazkei irtenbidea bilatzeko erarik egokiena; baita bizitzeko modu bat ere, eta horrela biziz gero, beharrezkoa da gizartea eraldatzeko estrategia bihurtzea.

Beharrezkoa da errealitatea aztertzea, eta azterketa hori abiapuntutzat hartuta, ondorengo prozesua lau ardatzetan oinarrituko dugu. Hauek dira ardatzak:

- Lortu nahi ditugun helburuen eta erabiltzen ditugun bitartekoen arteko koherentziari eustea. Ghandik berak zioenez, «helburua bitartekoetan dago, zuhaitza hazian dagoen bezalaxe”.
- *Ez izan abangoardia borrokan* pedagogia printzipioaren bidez, totalitarismoa, buruzagikeria edo sasiaitzindarritza saihestea.
- *Injustiziari ez laguntzeko* jarrera aktiboari eustea.
- Ahalbidetzea gatazkak indarkeriarik gabe konpon daitezken, eta, horretarako, *indarren arteko harreman berdintsua* bilatzen saiatzea.

Giza Eskubideen aldeko Elkartek (APDH-CIP) Bake hezkuntzako mintegian adierazita-koaren arabera,

indarkeria-eza hiru modutan eman ohi da: bizitzeko moduan, gatazkak konpontzeko moduan eta errealitatea eraldatzeko politika estrategia gisa... Bizitzeko moduari dagokionez, indarkeria-eza pertsonaren harmonia aurkitzen saiatzen da, eta bestelakotasuna, berdintasuna, ekologia, justizia... ditu oinarri; helburua beti da koherentzia pertsonalaren eta proposatu nahi den gizarte ereduaren arteko batasuna.

Gatazkak konpontzeko alorrean, indarkeria-eza saiatzen da, lehenengo eta behin, injustiziak sortutako gatazka aurkitzen. Eta, hori egin ondoren, gatazkan zapalduta dagoenaren agresibitatea baliatzen du zapaltzailea oharrarazteko. Gatazkan esku-hartzen duten aldean osokotasunarekiko begirunean dago oinarrituta, eta helburuen eta bitartekoen arteko koherentzia du estrategia eta baldintza; horregatik egiten dio uko indarkeria bitarteko gisa erabiltzeari... Gizartea eraldatzeko politika estrategia ere bada, eta, halakoetan, gatazkak konpontzeko urrats berberak erabili ohi ditu, baina talde eta gizarte dimentsioa ematen die; injustizia aztertzen du, kontzientzia hartu ere bai, salatu ere salatzen du, ez dio laguntzen, desobedientzia zibila proposatzen du eta alternatibak eskaintzen ditu.

# **Emaizen azterketa**



# Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin zerikusia duten kontzeptuak

Txosten honetako lehenengo kapituluaren aztertuko ditugu bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin (aurrerantzean BBH) zerikusia duten kontzeptuak. Honakoak dira: bizikidetza eta bakerako hezkuntza, bakea, gatazka eta indarkeria.

Kapituluari eman diogun egituraren ondorioz, lehendabizi aztertuko ditugu BBHk, hezteko eredu gisa, izan dituen emaitzak, eta ondoren, goian aipatutako kontzeptuak aztertuko ditugu, banan-banan; kontzeptu horiekin eta aisialdiko taldeekin zerikusia duten ezaugarriak sakon aztertuko ditugu.

- 1.1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza:
  - 1.1.1. BBHri buruzko ezagutza.
  - 1.1.2. BBHren edukiei buruzko ezagutza.
- 1.2. Bakearen kontzeptua:
  - 1.2.1. Bakeari lotutako ideiak.
  - 1.2.2. Zer iradokitzen die bakea kontzeptuak?
- 1.3. Gatazkaren kontzeptua:
  - 1.3.1. Gatazkari lotutako ideiak.
  - 1.3.2. Zer iradokitzen die gatazka kontzeptuak?
  - 1.3.3. Euskal gatazka.
- 1.4. Indarkeriaren kontzeptua:
  - 1.4.1. Indarkeriari lotutako ideiak.
  - 1.4.2. Indarkeriaren justifikazio maila.

---

## 1.1. Bizikidetza eta bakerako hezkuntza

Lehenengo atalean aztertuko dugu aisialdiko taldeetan diharduten begirale, neska-mutil eta gurasoek ea zein neurritan izan duten BBHri buruzko berri; eta ea zein neurritan dakiten zein diren BBHk biltzen dituen edukiak.



### 1.1.1. BBHri buruzko ezagutza

Galdera sortako lehendabiziko galderak zioen ea inoiz entzun duten bizikidetza eta bake-rako hezkuntzari buruzko ezer.

1. Taulan adierazitako datuen arabera, aisialdiko begiraleek gehiago dakite BBHri buruz taldeetako neska-mutil eta gurasoek baino. Zehaztearren, begiraleen %72k dio izan duela horren berri; gurasoen artean, %66k, eta neska-mutilei dagokienez, %53k ez du sekula ere entzun BBHri buruzko ezer.


#### 1. Taula

BBHri buruz zerbait entzun izana. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Bai	140	72	83	47	91	66
Ez	54	28	94	53	46	34
ED/EE	4		8		5	
<b>Guztira</b>	<b>198</b>	<b>100</b>	<b>185</b>	<b>100</b>	<b>142</b>	<b>100</b>

#### 1. grafikoa

BBHren berri izan dute




Gure ustez, interesgarria da honako datu hau: lurralde historikoaren arabera, alde nabarmena dago begirale eta gurasoen atalean, baina neska-mutilen kasuan ez da horrelakorik gertatu.

Bereziki azpimarratu nahi dugu oso lotuta daudela *begiralea* zein lurralde historikotakoa den eta BBHri buruzko berri eduki izanaren artean. Bizkaiko begiraleen %80k izan du BBHren berri, eta talde hori da gaiari buruzko ezagutza handien duena; Bizkaikoen ondoren datoz Arabako begiraleak, %59, eta Gipuzkoakoak, %55. Grafikoa ikusten denez, alde handia dago, eta galderari emandako erantzunak azaltzeko datu lagungarria izango da.

## 2. grafikoa


Begiraleak. Lurraldeka BBHren berri izan dute



*Gurasoei dagokienez, ez da horren nabarmena, baina, hala ere, badago aldea. Hurbil samar daude BBHren berri izan duten Bizkaiko eta Arabako gurasoak, hurrenez hurren, %71 eta %67. Gipuzkoako gurasoen erdiek ez dute inoiz ere entzun BBHri buruzko ezer.*

## 3. grafikoa

Gurasoak. Lurraldeka BBHren berri izan dute



Elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan antzemandakoaren ondorioz, bizikidetza eta bakerako hezkuntzari lotutako ideia nagusia da balioen transmisioa. Aipatutako gainerako balio guttien gainera, begirunea eta tolerantzia.

Zerbait abstraktutzat jotzen dute; bizikidetza du helburu, eta talde edo mugimendu bakoitzaren ideietan zehazten den pertsona eta gizarte mota bultzatzen ditu.

Oraintsu arte ez da bizikidetza kontzeptua erabili hezkuntza ez formalaren esparruan, izan ere, erabiltzen zen metodologia, ikuspegi sozio-afektibo batetik abiatuta, pertsonen eta taldeki-deen arteko harremanetan oinarritzen zen. Baina bada kezka bat ikastetxeetan areagotu egin dena, alegia, ikasgelako giroa, eta horrexek ekarri du bakerako hezkuntzan edo indarkeriarik gabeko hezkuntzan oinarritutako ikusmoldea.

### 1.1.2. BBHren edukiei buruzko ezagutza

BBHren *edukiak* zein diren galdetuta, hiru taldeetakoak bat datoz eduki nagusia zein den erantzutean: giza eskubideak. Hori erantzun zuten begiraleen eta gurasoen %95ek, eta neska-

mutilen %96k. Begiraleek eta gurasoek bigarren aipatzen duten edukia da balioetan oinarritutako hezkuntza; neska-mutilek, ordea, gizarte justizia aipatzen dute bigarren tokian. Hori bera, inmigrazioarekin batera, baina hirugarren tokian, aipatzen dute gurasoek. Begiraleen %88k gatazkei aurre egiteko era aipatzen dute hirugarren tokian.

## 2. Taula

BBHren edukiak. Frekuentziak eta ehunekoak


	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Giza eskubideak	188	95	177	96	135	95
Antimilitarismoa	139	70	97	52	73	52
Euskal gatazka	162	82	105	57	93	66
Inmigrazioa	157	79	118	64	110	78
Hezkidetza	166	84	120	65	103	73
Kulturartekotasuna	172	87	135	73	103	73
Gatazkei aurre egiteko era	175	88	134	72	99	70
Pobrezia	132	67	107	58	89	63
Gizarte justizia	159	80	146	79	110	78
Arrazakeria, xenofobia eta estereotipoak	173	87	120	65	109	77
Balioetan oinarritutako hezkuntza	180	91	139	75	118	84
Garapenerako lankidetza	146	74	126	68	94	67
Garapen iraunkorra eta ingurumena	125	63	108	58	89	63
Besterik	12	6	8	4	7	5

Elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan adierazitako iritziek berretsi egiten dituzte grafiko hauetako emaitzak. Hezitzaileen hezkuntza lana lotu egiten zaie balio jakin batzuen transmisioari; balio horiek bideratuko dute gizartearen estiloa non giza eskubideen paradigma bakearen kontzeptuari loturik agertzen baita.

Begiraleen ustez, taldeen bizitzan oso garrantzitsua da gatazka aurre egiteko moduak lantzea, auzi horretan baitatza hezitzaile gisa duten sinesgarritasuna.


#### 4. grafikoa

BBHren edukiak. Begiraleak




#### 5. grafikoa

BBHren edukiak. Neska-mutilak



## 6. grafikoa

BBHren edukiak. Gurasoak



### 1.2. Bakearen kontzeptua

Bakea da ikerketa honetako kontzeptu garrantzitsuenetariko bat. Hori dela-eta, atal honetan bi aldetatik aztertuko dugu: batetik, aztertuko dugu aisialdiko taldeetako partaideek zein ideiarekin lotzen duten bakea; eta, bestetik, aztertuko dugu ea nola lotzen dituzten bakea eta ikerketa honetan garrantzi handia duen beste kontzeptu bat, indarkeria, alegia.

#### 1.2.1. Bakeari lotutako ideiak

Galdera sortan eskatu genien bakea kontzeptuari lotutako hiru ideia aipa zitazela. Nabarmentarazi nahi dugu galdera irekia zela, aurrekoa bezalakoa, eta, beraz, erantzunek ez zeukaten aurrez ezarritako mugarik.

3. Taulan jasotako datuen arabera, hiru taldeek erakutsi zuten Bakea lotzen dutela tolerantzia eta begirunearekin: gehien, gurasoek, %26k, eta gutxien, neska-mutilek, %18k. Azken horiek elkartasunarekin lotzen dute gehienbat, %28k.

Badirudi elkarrizketak garrantzia handia duela begiraleentzat eta gurasoentzat (hurrenez hurren, %15 eta %12), baina ideia hori ez dago oso zabaldua neska-mutilen artean.

Bestalde, denak datoz bat esaterakoan gizarte justizia eta berdintasunak bakea bermatzeko balio dutela. Bizikidetzak kontzeptuaren antzeko ehunekoak ditu ideia horrek.

### 3. taula

Bakeari lotutako ideiak. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Tolerantzia, begirunea	144	25	90	18	102	26
Elkartasuna	92	16	138	28	77	20
Elkarrizketa	87	15	17	4	42	11
Bizikidetza	53	10	28	6	38	10
Gizarte justizia, berdintasuna	48	9	35	7	34	9
Indarkeria-eza	42	7	61	13	22	6
Askatasuna	30	5	20	4	20	5
Gatazkarik eza	10	2	12	2	4	1
Giza eskubideak	7	1	10	2	5	1
Lasaitasuna	11	2	9	2	8	2
Beste batzuk	45	8	68	14	34	9
ED/EE	25		67		40	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>


*Neska-mutilen eta begiraleen %2k (eta gurasoen %1ek) baino ez dute uste bakea hitzak berezkoa duela gatazkarik ez egotea. Badirudi, eta azpimarragarria da, heziketako aisialdi taldeen artean oso sustraituta dagoela gatazkaren eta indarkeriaren arteko bereizketa. Erantzun gutxiagotan aipatu zituzten askatasuna, giza eskubideak, eta lasaitasunik eza.*

Elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan, bakea kontzeptua definitzerakoan, historian zehar izan diren ikusmoldeek utzi dituzten aztarnak aurkitu ditugu, eta, ondorioz, planteamendu ugari sortu dituzte:

Idea nagusiak dira, indarkeria-eza, begirunea, elkarrizketa eta justizia. Parrokia elizen inguruko taldeek ideia hori lotzen dute beren heziketako jardueraren oinarri diren balio kristauekin.


### 7. grafikoa

Bakeari lotutako ideiak. Begiraleak




### 8. grafikoa

Bakeari lotutako ideiak. Neska-mutilak



### 9. grafikoa

Bakeari lotutako ideiak. Gurasoak



Aipagarria da badela talde multzo bat uztartzen dituen bakea, gatazkarik eza, lasaitasuna eta ongizatea. Planteamendu hau hurbil dago bake negatiboaren ohiko *kontzeptutik (ikus teoria esparrua)*.

Bada beste multzo bat bakea ikusten duena indarkeria-ezari eta gizarte justiziariku lotuago. Ikerketaren teoria esparrua erreferentzia gisa hartuz gero, planteamendu horrek bat egiten du bake positiboaren kontzeptuarekin.

#### 1.2.2. Zer iradokitzen die bakea kontzeptuak?

Bakea kontzeptuan sakontzearen, eskatu genien aukera zezatela, aukera anitzen artean, euren ustez bakea kontzeptua ondoen islatzen zuena. Erantzunen artean, aipatuena izan zen, hiru taldeetan, «*zuzeneko, egiturazko eta kulturazko indarkeriarik ez egotea*»; horixe erantzun zuten gurasoen %56k, neska-mutilen %52k eta begiraleen %44k. (ikus 4. Taula).

Galdera irekia egin genienean, hau da, alde aurretik aukera jakin batzuk eman gabe, gizarte justizia izan zen gutxien aipatu zutenetarikoa; baina hemen bigarren aipatuena izan zen.

Antzeko zerbait gertatzen da gatazkarik ezaren kasuan; aurreko galderari emandako erantzunekin alderatuz gero, jende gehiagok eman zuen erantzun hori: begiraleen artean, %16k, neska-mutilen %14k eta gurasoetatik %8k. Horrek berresten du gizarteak egoera desatsegintzat dituela gatazkak.


#### 4. Taula

Bakea kontzeptuak zer iradokitzen dien batez ere. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Zuzeneko, egiturazko eta indarkeriarik ez egotea	87	44	95	52	79	56
Gizarte justizia	60	30	47	26	30	21
Gatazkarik eza	31	16	25	14	12	8
Zuzeneko indarkeriarik eza	2	1	11	6	8	6
Besterik	17	9	4	2	13	9
ED/EE	1		3			
<b>Guztira</b>	<b>198</b>	<b>100</b>	<b>185</b>	<b>100</b>	<b>142</b>	<b>100</b>

#### 10. grafikoa

Zer iradokitzen dien bakea kontzeptuak?



Grafikoan azaltzen diren datuak bat datoz heziketa eskolek eta elkarrizketatutako taldeetako arduradunek adierazitakoarekin; indarkeriak, edozein eratakoa eta mailatan dela ere, ez du tokirik bakean.

Azpimarratzekoa da, bestalde, hiru taldeek zein garrantzi handia ematen dioten gizarte justiziari. Bakearen ideia lotzen dute pertsonen eta komunitateen garapena ahalbidetuko duen indarkeriarik gabeko eta justiziaz beteriko egoerarekin; ideia horrek erakusten du heziketako aisialdiko mugimendua zein sentibera den gizarteko desabantailarekin eta zenbaterainoko konpromisoa duen gaur egungo gizarteko injustizia egoerak aldatzeko.



### 1.3. Gatazkaren kontzeptua

*Ikerketa honetako beste aztergaietako bat gatazka da. Pedagogiaren ikuspuntutik, oso interesgarria da, izan ere, kontzeptua ondo ulertuz gero, aldaketarako indar eragilea izan daiteke, bai eta taldearen bizitza aberasteko iturri ere.*

Gatazka hitza aztertzeke, hiru ataletan banatu dugu blokea. Atal horietan aztertuko dugu, hurrenez hurren, gatazkarekin zein ideia lotzen duten, zer iradokitzen dien kontzeptuak, eta, azkenik, bereziki euskal gatazka izenekoak.

#### 1.3.1. Gatazkari lotutako ideiak

Talde handi batek uste du gatazka dela interesak kontrajartzea, kontrajarrita dauden plan-teamenduen arteko liskarra.

Bakea kontzeptuarekin egin genuen bezala, eskatu genien esateko gatazkarekin lotutako hiru ideia. (5. Taula).

#### 5. taula

Gatazkari lotutako ideiak. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Indarkeria, borroka, liskarra, istilua	92	17	142	31	49	14
Gerra	40	7	65	14	26	7
Eztabaida, ideia desberdinak	91	17	67	15	38	10
Neutroa, nola ekiten zaion	35	6	3	1	7	2
Tolerantziarik ez	51	10	20	4	40	11
Elkarrizketarik ez	53	10	13	3	34	9
Begirunerik ez, iraintzea	32	6	26	6	32	9
Injustizia	30	6	35	8	44	12
Gorrotoa, amorrua, sumina, bekaizkeria, norberekeria...	34	7	15	3	20	5
Beste batzuk: Botere beharra (%3), nahasmena, oinazea...	78	14	69	15	74	21
ED/EE	58		100		62	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>


Begirale eta gurasoei dagokienez, tolerantziarik eza, elkarrizketarik eza, begirunerik eza eta injustizia aipatu dituzte gehien. Zehatzago esatearren, halako erantzuna eman dute gurasoen %41ek eta begiraleen %32k. Erantzun horietatik ondorioztatzen da gehienek oztopo gandiezintzat hartzen dutela gatazka, aurkako jarrerak ez hurbiltzearen ondorioa, eta jarreraren arteko aurkakotasuna konpontzeko asmorik ez izatea dela.

Zehazki, neska-mutilak dira, batez ere, gatazka gauza negatibotzat hartzen dutenak. Batuz gero gatazka «Indarkeria, borroka, liskarra, istilua» atalarekin lotzen dutenen kopurua (%31), eta «gerra» izenburuari emandako erantzun kopurua, emaitza da gazteen %45ek hartzen dutela gatazka gauza negatibotzat; begiraleen artean, %24tan gertatzen da hori, eta gurasoei bagagozkio, %21ek du irudi negatibo hori.

Bada beste datu azpimarragarri bat ere: ehuneko txiki batek, %3 eta %7 bitartean, uste du gatazka dela gorrotoaren, amorruaren edo suminaren (nahi den bezala), bekaizkeriaren eta berekoikeriaren ondorio; ideia horrek ez dio batere laguntzen gatazkaren konponbideari.


### 11. grafikoa

Gatazkari lotutako ideiak. Begiraleak




### 12. grafikoa

Gatazkari lotutako ideiak. Neska-mutilak



### 13. grafikoa

Gatazkari lotutako ideiak. Gurasoak



Izaera neutroko ideiak ere badira, adibidez «eztabaida, ideia desberdinak», eta berriaz adierazita dagoena «neutroa, nola ekiten zaion»; begiraleek erantzuten dute gehien atal horren alde (%23 bi epigrafeei emandako erantzunak batuta). Beraz, begiraleek, neurri handiago batean, gauza neutrotzat hartzen dute gatazka; gurasoek eta neska-mutilek, berriz, neutrotzat baino gehiago negatibotzat dute kontzeptua.

Azkenik, portzentaje handi samarra da «beste batzuk» atalean bildutakoa. Erantzun heterogeneoak bildu ditugu atal horretan, baina badira gailentzen diren batzuk, adibidez, «botere beharra» (hiru taldeetan izan da %3). Beste erantzun batzuk izan dira nahasmena, oinazea eta errealtatea ez ezagutzea.

Erantzun irekia eginez gero, inkesta bete dutenen artean inork ere ez du gatazka gauza positibotzat hartu; hala ere, aukera emanez gero, eta halaxe egin genuen hurrengo galderan, ziurrenik «espero zuten erantzuna» efektua dela-eta, aukera horren alde egin dutenen ehunekoa adierazgarria izan da. Hala ere, oro har, kontzeptu negatiboa da.

Aisialdiko erakunde eta eskoletan, kontzeptu neutrotzat hartzen dute gatazka; ez da positiboa, ezta negatiboa ere. Halakoetan azaldu ohi dira elkarrizketa, indarkeria-ez eta aukera kontzeptuak. Gatazka da bidegabekeria aldatzeko aukera, gatazkaren bi aldeak garatzeko eta bilakatzeko bidea. Gatazka ikusteko modu hau bat dator ikerketa honen kontzeptuei buruzko teoria esparruarekin: desberdinak diren eta desberdin pentsatzen duten pertsonen eta taldeen arteko harremanak berezkoa du gatazka.

Eskoletako prestakuntza ikastaroetan irakasten dizkiete edukiak taldeetako begirale eta arduradunei. Gure ustez, positiboa da eskola horiek hurbil egotea BBHk gaur egun aldarrikatzen dituen ideietatik.

Lurraldeka aztertuz gero, esan genezake Gipuzkoa dagoela hurbilen gatazkei buruzko ikuspegi neutro edo, hala nahi bada, baikor horretatik. Bizkaian askotarikoak dira planteamenduak, eta ez dago joera homogeenorik. Araban, nagusi da gatazka kontzeptu negatibotzat hartzea.

### 1.3.2. Zer iradokitzen die gatazka kontzeptuak?

Modu hertsian aurkeztu genien galdera hau, kontuan hartuta gatazka dela-eta nolako perzeptzioak dauden. Ikusiko dugunez, gatazka nola interpretatu edo hartzen den, halako jarrera eragiten du gatazkaren beraren aurrean.


#### 6. Taula

Gatazka kontzeptuak zer iradokitzen dien nagusiki. Frekuentziak eta ehunekoa

	Beguraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Beti da negatiboa, itzuri beharrekoa	24	12	63	34	26	18
Gehienetan negatiboa da	25	13	41	22	21	15
Nola ekiten zaion, negatiboa edo positiboa izan daiteke	142	72	76	42	89	63
Gehienetan positiboa da	1	0,5	2	1	0	0
la beti edo beti da positiboa	1	0,5	0	0	1	1
Beste batzuk	3	2	1	1	4	3
ED/EE	2		2		1	
<b>Guztira</b>	<b>198</b>	<b>100</b>	<b>185</b>	<b>100</b>	<b>142</b>	<b>100</b>

#### 14. grafikoa

Gatazka nola sailkatzen duten



Emandako aukeren artean, «nola ekiten zaion, positiboa edo negatiboa izan daiteke» erantzuna errepikatu da gehien, baina taldeen artean bada alderik. Esaterako, uste horretakoak dira begiraleen %72, baina guraso eta neska-mutilen erantzunetan ehunekoak nabarmen egin zuen behera, %63 eta %42, hurrenez hurren.

Aurreko galderari emandako erantzunetan gertatu den bezala, begiraleak dira baikorrenak edo idealistenak gai honen aurrean.

Neska-mutilen %56k eta gurasoen %33k uste dute gatazka beti edo ia beti dela negatiboa, eta begiraleen artean, laurdenak baino ez dira iritzi horretakoak.

Lehenago aipatu dugunez, ia inork ez du gatazka ideia positiboekin lotu.

Hori dela-eta, ondorioztatzen dugu gatazka berez ez dela negatibotzat jotzen; baina gatazkaren konponbidea zirkunstantzien arabera izango da, eta positibo edo negatibo bihurtuko da ekiten zaion moduari arabera. Hemen, berriz ere, gatazkei buruzko planteamendu orokorrak errealitate itxaropentsua aurkezten digu, eta horrek gatazken konponbideari aurre egitea ahalbidetzen du. Gauzak soilago esatearren, esan genezake badagoela egon bizikidetzeta eta bakerako hezkuntzan aritzeko giro aproposik.

### 1.3.3. Euskal gatazka

*Atal honetan aztertu ditugu hiru taldeek euskal gatazkaz adierazi dituzten ideiak. Galdera irekia egin genien, eta eskatu genien eman zitzatela euskal gatazkarekin lotzen zituzten hiru ideia. Galdera sortaren lehen atalean zegoen, kontzeptuen ondoren, inkesta bete zutenen erantzunak ez baldintzatzearren.*

Atal honetako datuek eta ondorioek ondo islatzen dute galdetutakoek zein iritzi eta sentimendu duten EAEko errealitate sozio-politikoari buruz.

7. Taulan ikus daitekeenez, begiraleen laurdenek eta gurasoen %20k lotzen dute euskal gatazka gizarte eta politika elkarrizketa ezarekin, eta adostasun ezarekin. Neska-mutilen %16k, ordea, ETAren indarkeriarekin, kale borrokarekin, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendurekin, mehatxuekin eta bahiketekin lotzen dute (begiraleen artean, %11tik gora, eta gurasoetan, %9k); eta helduek baino gehiago lotzen dute independentziarekin, autodeterminazioarekin eta lurraldetasunarekin (%9).

Begiraleen eta gurasoen ustez, bigarren ideia nagusia da tolerantzia eza, amorerik ez ematea eta balioetan oinarritutako hezkuntzarik ez izatea; ideia horrek balio txikiagoa du gatzetxoaren artean.

Horien ondoren datoz politika gatazkak, eta, oro har, politikariak: begiraleen eta neska-mutilen %15ek aipatu zuten hori, eta gurasoen %12k.

Gurasoek laugarren tokian dute askatasun eza eta indarrezko ezarpena; beste bi taldeek atzerago jarri dute ideia hori. Adina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta gutxiago lotzen da ideia hori euskal gatazkarekin.

Begiraleen aipamenetan, %6 dira euskal gatazka giza eskubideekin eta gizarte justiziarekin lotzen dutenak; ideia hori %3 da neska-mutil eta gurasoen iritzietan.

Talde guztietako %3k eta %4k bitartean aipatu dituzte gogaitarekin zerikusia dituzten kontzeptuak, esaterako, etsipena, desengainua, zentzugabekeria... eta sentimendu horiek sakon sustraiturik dituzte; eta %1ek eta %3k bitartean, gatazkaren konponbidearekin zerikusia duten sentimendu positiboak adierazi dituzte: izan litekeena, hurbil ikusten dute, akordioa...

## 7. taula

Euskal gatazkari lotutako ideiak. Frekuentziak eta ehunekoak


	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Adostasun eza, gizarte edo politika elkarrizketa eza	134	26	59	15	65	20
Tolerantzia eza, amore ez ematea, balioetan oinarritutako hezkuntzarik ez	81	15	29	7	55	17
Politika gatazkak: politika, euskal gatazka, alderdiak	78	15	63	15	38	12
ETAren indarkeria: kale borroka, ENAM, mehatxuak, bahiketak	56	11	67	16	28	9
Heriotza: hilketa, atentatua, biktima, gerra, terrorismoa	35	7	62	15	31	10
Askatasunik ez, indarrez ezartzea	33	6	31	8	32	10
Independentzia, autodeterminazioa, lurraldetasuna, Espainia, Euskadi, Frantzia	28	5	38	9	18	5
Giza eskubideak, gizarte justizia	29	6	10	3	9	3
Gogaita: etsipena, iruzurra, zentzugabekeria...	17	3	18	4	12	4
Irtenbidea: izan litekeena, hurbil, akordioa...	14	3	3	1	8	2
Beste batzuk	15	3	28	7	27	8
ED/EE	74		147		103	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>

Eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan jasotako iritziek ere bat egiten dute galdera sortetatik ondorioztatutako datuekin. Gizartean nabarmenak dira jarrerak muturrera eramatea, alderdi politikoen adostasunik eza, hedabideek betetzen duten zeregina eta ETAren ekintzak. Oztopo gisa azaltzen dira, eta, batez ere, kezka eragiten dute. Gogaitu egiten dute, gizartearen interesak alderdi politikoen eta hedabideen interesen atzetik geratzen direlako.

Hala ere, den-dena ez da negatiboa: Gaur egungo testuinguru sozio-politikoan, osagai lagungarri gisa azaltzen dira gizarte mugimenduen ekimenak, gizartearen sentsibilitate maila handia, eta egungo errealitatea aldatzeko lagun eta talde askok duten motibazioa ere bai. Taldeetako arduradunek eta heziketa eskolek uste dute euskal gizartean badagoela nahikoa aukera ona euskal gizarteari berari modu egokian ekiteko. Haien ustez, azpimarratzeko modukoak dira lan egiteko gogoia eta gizartearen sentsibilizazioa maila handia.

### 15. grafikoa


Euskal gatazkari lotutako ideiak. Begiraleak



- Heriotza: hilketa, atentatua, biktima, gerra, terrorismoa
- Adostasun eta elkarrizketarik ez gizaratean eta politikan
- Tolerantziarik, baliorik eta hezkuntzarik ez, amore ez ematea.
- ETAre indarkeria: kale borroka, ENAM, mehatxuak, bahiketak
- Independentzia, autodeterminazioa, lurraldetasuna, Espainia, Euskadi, Frantzia
- Askatasunik ez, indarrez ezartzea
- Gogaita: etsipena, iruzurra, zentzugabekeria
- Politika gatazkak: politika, euskal gatazka, alderdiak
- Giza eskubideak, gizarte justizia
- Irtenbidea, izan litekeena, hurbil, akordioa
- Beste batzuk

### 16. grafikoa


Euskal gatazkari lotutako ideiak. Neska-mutilak



- Heriotza: hilketa, atentatua, biktima, gerra, terrorismoa
- Adostasun eta elkarrizketarik ez gizaratean eta politikan
- Tolerantziarik, baliorik eta hezkuntzarik ez, amore ez ematea.
- ETAre indarkeria: kale borroka, ENAM, mehatxuak, bahiketak
- Independentzia, autodeterminazioa, lurraldetasuna, Espainia, Euskadi, Frantzia
- Askatasunik ez, indarrez ezartzea
- Gogaita: etsipena, iruzurra, zentzugabekeria
- Politika gatazkak: politika, euskal gatazka, alderdiak
- Giza eskubideak, gizarte justizia
- Irtenbidea, izan litekeena, hurbil, akordioa
- Beste batzuk

### 17. grafikoa

Euskal gatazkari lotutako ideiak. Gurasoak



- Heriotza: hilketa, atentatua, biktima, gerra, terrorismoa
- Adostasun eta elkarrizketarik ez gizaratean eta politikan
- Tolerantziarik, baliorik eta hezkuntzarik ez, amore ez ematea.
- ETAre indarkeria: kale borroka, ENAM, mehatxuak, bahiketak
- Independentzia, autodeterminazioa, lurraldetasuna, Espainia, Euskadi, Frantzia
- Askatasunik ez, indarrez ezartzea
- Gogaita: etsipena, iruzurra, zentzugabekeria
- Politika gatazkak: politika, euskal gatazka, alderdiak
- Giza eskubideak, gizarte justizia
- Irtenbidea, izan litekeena, hurbil, akordioa
- Beste batzuk

## 1.4. Indarkeriaren kontzeptua

BBHren inguruko jardunbideak abian jartzerakoan, erabateko garrantzia du indarkeriaren kontzeptuak. Hezkuntza ez formalaren esparruan diharduten taldeek hitz horri buruz adierazita-koek argi erakusten dute nolako balioak transmititzen dituzten beren heziketa jardueran. Historian zehar, hainbat planteamendu izan dira bai indarkeriaren inguruan, bai eta indarkeriak izan ditzakeen justifikazioetan ere.

### 1.4.1. Indarkeriari lotutako ideiak

Indarkeria izan da berezita aztertu nahi izan dugun hirugarren kontzeptua.

### 8. Taula

Indarkeriari lotutako ideiak. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Tratu txarrak, agresibitatea	86	17	149	31	52	15
Tolerantziarik ez, amore ez ematea, balio eta hezkuntza eza	78	15	51	11	54	16
Adostasunik eta elkarrizketarik ez, gatazka politikoak.	80	16	44	9	38	11
Heriotza, hilketa, atentatuak, gerra, biktimak, terrorismoa	64	13	82	17	36	11
Injustizia gizartean	53	10	42	9	42	12
Askatasunik ez, indarrez ezartzea	41	8	27	6	46	14
Gogaita: etsipena, iruzurra, zentzugabekeria...	43	8	28	6	25	7
Haserrea: Gorrotoa, amorrua, sumina, gutxiespena	19	4	12	3	7	2
ETA, kale borroka, ENAM	13	2	18	4	6	2
<i>Ismoak</i> : totalitarismoa, fanatismoa, fundamentalismoa, primitibismoa	7	1	2	0	3	1
Beste batzuk	29	6	19	4	32	9
ED/EE	81		81		85	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>



Eskuarki, ez da alde handirik begiraleek, neska-mutilek eta gurasoek emandako erantzunen artean. Guztientzat ere, honakoak dira ohikoenak: tratu txarrak, agresibitatea; balioetan oinarritutako hezkuntzarik ez izatearen ondorioz, tolerantziarik ez eta amore ez ematea; indarkeriaren iturri, politikoen arteko adostasun eta elkarrizketarik eza; eta heriotzarekin zerikusia duen guztia (hilketak, atentatuak, gerra, biktimak, terrorismoa).

Zenbait ideia azpimarratuko dugu. 8. Taulan ikus daitekeenez, indarkeriari lotuen azaltzen den ideia da tratu txarrak eta agresibitatea (talde guztiek dute iritzi bera, nahiz eta gurasoetan al-daketa txiki bat dagoen). Aipagarria da, izan ere, ikerketaren teoria esparruan bereizita agertzen dira agresibitatea eta indarkeria; baina inkesta bete dutenek zuzen-zuzenean lotu dituzte. Eta, bereziki, neska-mutilek (%31), beste bi taldeetakoen portzentaje bikoitza.

Bada gai interesgarri bat, alegia, gurasoek gehiagotan lotzen dute indarkeria askatasun eza-rekin, eta hirugarren tokian aipatzen dute ideia hori. Neska-mutilek aipatzen dutena baino bi al-diz gehiago.


Gizarte injustizia ere lotzen da indarkeriarekin, baina ez dago lehenengo tokietan. Begirale eta gurasoen %2k aipatu dituzte ETA, ENAM eta kale borroka; neska-mutiletan, berriz, ehuneko-a handixeagoa da, %4.

Gogaitak eta haserreak ere toki handia hartzen dute aipatutakoan artean (%7). Hiru tal-deetan nagusitzen zaio gogaita haserreari.

Edonola ere, erantzunak taldez talde aztertuz gero, ikusten da begiraleen erantzunak as-koz ere heterogeneoagoak direla beste bi taldeetako erantzunak baino. Alde handiak daude bizi diren lurraldearen eta adinaren arabera. Lurraldez lurralde, Araban nagusia da tratu txar-rak eta agresibitatea aukeratzen dutenen kopurua; Bizkaian adostasun ezarekin lotzen dute gehienek (%18,3); eta, Gipuzkoan, begiraleek gizarte injustiziarekin lotzen dute indarkeria gehienbat (%15,5). Adinei dagokienez ere, aldea dago. Begirale gazteenek uste dute adosta-sun eta elkarrizketa eza dela; 22-25 urte bitartekoan iritziak, nagusi da tratu txarren eta agresi-bitatearen ideia; eta, 26 urtetik gorakoek askatasun ezarekin eta indarrez ezartzearekin lotzen dute indarkeria.


### 18. grafikoa

Indarkeriari lotutako ideiak. Begiraleak




## 19. grafikoa

Indarkeriari lotutako ideiak. Neska-mutilak



## 20. grafikoa

Indarkeriari lotutako ideiak. Gurasoak



Elkarrizketetan gauza harrigarria gertatu da: zenbait planteamendutan ez da zehazten indarkeria hitzaren esanahia, eta norberaren diskurtsoa baino, nagusi da anbiguotasuna eta besteen iritziari kontrajarritako diskurtsoa. Hala bada, begirune eza, harmonia haustea... eta horrelako adigaiak azaltzen dira.

Taldeetako arduradun gehienek lotzen dute indarkeria norbanakoari edo taldeari egindako erasoarekin, fisikoa, psikikoa edo ahozkoa dela ere. Berriz ere berresten dute galdera sortetan azaldutako emaitzetatik ondoriozta daitekeena: berdinaren arteko tratu txarrak, eta, oro har, erasoak antzemateko maila handiak errealitatearen adierazle ezin hobea da, eta komeniko litzateke arlo horretan sakontzea eta tratu txarren jatorrizko arrazoiei eragingo dizkieten ekintzak planteatzea.

### 1.4.2. Indarkeriaren justifikazio-maila

Behin indarkeriari lotutako ideiak aztertu ondoren, nahi genuen jakin ea hiru talde horiek zein neurritaraino justifikatzen duten indarkeria. Ez baita ahaztu behar ikerketaren teoria esparruan (galdera sortari erantzun ziotenek ez zeukaten teoria esparruaren berri) behin baino gehiagotan errepikatzen dela indarkeriak ez duela inolako justifikaziorik.

Zehazki, «Balioetsi ezazu, zure ustez, zenbateraino justifika daitekeen indarkeria» galderan hiru erantzunen artean bakarra aukeratu behar zuten. Emaitzak 11. taulan daude.

«Indarkeria inoiz ere ezin da justifikatu» erantzun zuten gurasoen %77k, begiraleen %69k eta neska-mutilen %60k. Baina bada multzo bat (gurasoen %15etik neska-mutilen %32 arte) airtortzen duena «egoeraren arabera, indarkeria justifikatu egin daiteke edo ez».


## 9. Taula

Indarkeriaren justifikazio-maila. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Beti justifika daiteke	2	1	5	3	0	0
Egoeraren arabera	40	21	59	32	21	15
Inoiz ezin da justifikatu	133	69	109	60	109	77
Beste batzuk	18	9	9	5	11	8
ED/EE	5		3		1	
<b>Guztira</b>	<b>198</b>	<b>100</b>	<b>185</b>	<b>100</b>	<b>142</b>	<b>100</b>

## 21. grafikoa

Indarkeriaren justifikazio maila



Ehuneko handi batek ez du argi erantzun nahi izan, eta erantzun anbiguoagoa aukeratu dute. Erantzun horiek «Beste batzuk» atalean bildu ditugu.

Taldeka hartuz gero, eta gurasoen taldean bereziki, ikusten da erantzunak multzokatu egiten direla adinaren eta sexuaren arabera. Hain zuzen ere, zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta gutxiago justifikatzen dute indarkeria. Sexuari dagokionez, ama gehiagok ukatzen du beti indarkeria erabiltzea.

Eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan ere, nagusi da indarkeriak inolako justifikaziorik ez duela dioen iritzia. Hala bada, heziketa aisialdiko mugimenduak sentiberatasun handia erakusten du gai horretan, eta indarkeriarik gabeko konponbideak aukeratzearen aldekoa da.



# Zer egiten den. Bizikidetza eta bakerako aisialdi hezitzaileko taldeetan



Lehenengo kapituluan argitu dugu begiraleek, neska-mutilek eta gurasoek zein iritzi duten oinarrizko hainbat kontzeptuz, alegia, esparru ez formalaren bizikidetza eta bakerako hezkuntzari buruzko ikerketaren teoria esparruan bildutako oinarrizko kontzeptuez. Bigarren kapitulu honetan azalduko dugu aisialdiko taldeek zer egiten duten, beren jardunean, BBHren inguruan.

Kapitulua gaika banatu dugu, sei ataletan, errazago irakurri eta ulertzeko: lehenengo gaia da BBHren isla taldearen hezkuntza proiektuan(zertarako); bigarrena, nola lantzen duten BBH (nola); hirugarrenean, taldeetako gatazkarik garrantzitsuenak zein diren azalduko dugu (zer); laugarrena, ea noiz, zein unetan, lantzen duten BBH; bosgarren kapituluan argituko dugu ea BBHko zein prestakuntza eskaintzen duten (zeren bidez); eta, azkenik, ebaluazioa (zenbat).

Hori guztia azaldu ondoren, goian aipatu ditugun gaietako daturik esanguratsuenak eskainiko ditugu. Taldeek bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren arloan egiten duten lanari buruzko datuak dira.

## 2.1. BBH taldearen hezkuntza proiektuan:

- 2.1.1. Zenbateraino lantzen duten BBH taldeetan.
- 2.1.2. Zein arlotan jasotzen duten BBH.

## 2.2. Nola lantzen da BBH aisialdiko taldeekin?:

- 2.2.1. Nola gauzatzen den BBH taldeetako eguneroko jardunean.
- 2.2.2. BBH lantzeko erabilitako teknikak.
- 2.2.3. BBHn landutako jarrerak.

## 2.3. Gatazkarik garrantzitsuenak aisialdiko taldeetan:

- 2.3.1. Gatazkak taldeetan.
- 2.3.2. Gatazkak taldeen inguruneetan.

## 2.4. Noiz. Zein unetan lantzen da BBH?:

- 2.4.1. Normaltasuna BBH lantzerakoan.
- 2.4.2. BBHren inguruko lana indartzeko une jakinak.

## 2.5. BBHri buruzko prestakuntza taldeetan:

- 2.5.1. Barne eta kanpo prestakuntzako planak.
- 2.5.2. Prestakuntza motak.

2.6. BBHren esparruan egindako lanaren balioztapena:

2.6.1. BBHri buruzko jarduerak balioztatzeko ekintzak.

2.6.2. Indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa taldeetan.

2.6.3. Nork egiten duen indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa:

Taldeko indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa

Inguruneko indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa.

2.6.4. Indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa zenbatero egiten den.

## 2.1. BBH taldearen hezkuntza proiektuan

Jakiteko ea aisialdiko taldeek benetan hartzen duten BBH talde barneko lan ildo gisa, beharrezkoa iruditu zaigu galdetzea ea zein den beren hezkuntza proiektua, hortxe islatzen baitira taldearen oinarrizko premisak, alegia, taldeak sinetsi eta erronkatzat dituen premisak (zertarako).

Egindako elkarrizketetan argi ikusten da hezkuntza proiektuetan jasota dagoela BBH, baina ez dela esplizituki lantzen. Horrek adierazten digu, batetik, gaiaren konplexutasuna zenbaterainokoa den, eta, bestetik, taldeetako arduradunek zer beldur duten gaiari ekiteko.

Talde gutxiak dute BBHren inguruko lan ildo sendoa. Talde horiek eguneroko dinamikan lantzen dute BBH; haur eta gazteekin, begirunearen, lankidetzaren, komunikazio enpatikoaren eta abarren oinarrizko jarrerak lantzen dituzte.

### 2.1.1. Zenbateraino lantzen duten BBH taldeetan

Zehatz-mehatz, lehenengo eta behin galdetu genien ea taldeetan zuzenean, edo, besterik ez bada, zeharka, lantzen duten BBH neska-mutilekin. Zuzenean aipatzen dugunean, esan nahi dugu jarduerak argi eta garbi dituztela beren helburu eta metodologian BBHrekin zerikusia duten gaiak; zeharka diogunean, berriz, adierazi nahi dugu jarduerak ez direla berariaz gai horretakoak, baina arloarekin zerikusia duten gaiak lantzeko metodologiak erabiltzen dituztela.

Inkestari erantzun ziotenen %89k dio bere taldean zuzenean eta zeharka lantzen dela BBH. Hain zuzen ere, begiraleen %94k adierazi zuten BBH lantzen dutela zuzenean edo zeharka, eta %6k esan zuten ez dela horrelakorik egiten.

## 10. Taula


BBH zuzenean edo zeharka lantzen da taldean. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Bai	165	94	149	87	100	86
Ez	10	6	17	10	16	14
Besterik	0	0	5	3	0	0
ED/EE	23		14		26	
<b>Guztira</b>	<b>198</b>	<b>100</b>	<b>185</b>	<b>100</b>	<b>142</b>	<b>100</b>

Talde horietako neska-mutilek eta beren gurasoek emandako erantzunak direla-eta, ehunekoaren batez bestekoa 5 puntu jaisten da; edonola ere, kontuan hartu behar da neska-mutil txikienek ez dakitela zer lan eta helburu dagoen jarduera bakoitzaren atzean. Hala bada, neska-mutilen %10ek eta gurasoen %14k esan zuten beren taldeetan ez dela BBH lantzen.

## 22. grafikoa

BBH zuzenean edo zeharka lantzen da taldean



Grafikoetan ikusten denaren arabera, hiru taldeetako gehienek diote aisialdiko taldeetan BBH lantzen dela, bai zuzenean edo bai zeharka. Elkarrizketetan ere iritzi hori jaso genuen. Edonola ere, argi utzi zuten BBHren inguruan lan gutxi egiten dela zuzenean eta talde gehienek zeharka lantzen dutela.

Hori horrela izanik, geure buruari galdetu behar diogu ea zein den benetan taldeek BBHren inguruan egiten duten lana. Eta erantzuna honakoa izan liteke: aisialdiko talde gehienetan uste dute talde horietan egiten den guztia BBH dela, eta ez dagoela berariaz lantzeko beharrik.

### 2.1.2. Zein arlotan jasotzen duten BBH

Hurrengo lerroetan aipagai izango dugu taldeen bizitzako zein arlok duten zerikusi zuzena edo zeharkakoa bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin. Gure ustez, talde guztien programazioetan, oinarri-oinarrizkoa da helburuak lortzearen zein metodologia eta balioespen baliatzen duten, eta horregatik aztertu dugu arlo hori.

*Begiraleen %60k diote taldearen arlo guztietan lantzen dela BBH; gainerakoek, %40, arlo espezifikoa aipatu zituzten; azken horien artean, %68k uste du BBH jardueretan islatzen dela, %67k helburuetan, %5ek metodologian, eta, azkenik, %14k balioespena egiterakoan.*

Jasotako erantzunak lurralde historikoaren arabera aztertuz gero, honakoa ondorioztatzen dugu: Arabako begiraleak dira, guztien artean, gehien uste dutenak BBH taldearen arlo guztietan lantzen dela (%68). Beste muturrean daude Gipuzkoakoak (%55): horiek, dirudienez, BBH helburuetan ager dadin ahalegintzen dira batez ere (%85).

Beste datu bat ere ikusi dugu: begirale zaharrenak dira kritikoenak taldeetan BBHren inguruan egiten den lanaren balioespena egiterakoan; %46k baino ez dute esaten taldearen arlo guztietan jasotzen dela; beste bi adin-tarteetako erantzunetan, berriz %60tik gora.



Begiraleak sexuka bereizita, argi ikusten da neskak mutilak baino kritikoagoak direla. Nesketatik %59k diote BBH taldearen arlo guztietan lantzen dela. Mutilen %83k uste dute hori.

Sexuaren aldagaiari dagokionez, balioespenetan izan ezik, ez da alde nabarmenik. Mutilen %19k uste dute BBHk baduela tokia balioespenetan, baina nesken %8k baino ez.


### 11. Taula

Taldeetako zein arlotan lantzen den BBH. Begiraleen ehunekoak

Begiraleak	Helburuak	Jarduerak	Metodologia	Balioespenak	Beste batzuk	Guztietan
<b>GUZTIRA</b>	67	68	58	14	2	60
<b>LH</b>						
Araba	86	72	43	0	0	68
Bizkaia	56	73	71	22	4	60
Gipuzkoa	85	54	31	0	0	55
<b>ADINA</b>						
18-21 urte	59	53	57	18	0	62
22-25 urte	70	73	50	10	5	65
26 o + urte	69	77	69	15	0	46
<b>SEXUA</b>						
Gizonezkoa	63	67	56	19	0	63
Emakumea	69	68	59	8	5	59

### 23. grafikoa

Atal guztietan jasotzen ez bada ere, zeinetan dago jasota?



Atal honetako datuak harrigarri samarrak dira, positiboak dira-eta; adierazten dute taldeek neurri handi batean jasotzen dutela BBH beren hezkuntza proiektuetan. Hurrengo ataletan saiatuko gara zehazten zein lan egiten duten eguneroko jardunean.

## 2.2. Nola lantzen da BBH aisialdiko taldeekin?

Badakigu zertxobait gehiago BBHk aisialdiko taldeetan hartzen duen tokiari buruz, baina oraindik aldagai asko ditugu aztergai. Horien artean, adibidez, jakitea ea nola gauzatzen den hezkuntza proiektu hori jarduera eta ekintzetan.

Ea modu esplizituz edo inplizituz garatzen den jakin behar dugu; ea zein teknika erabiltzen den BBH lantzeko, eta, azken batean, zein jarrera bultzatu nahi duten horrekin guztiarekin.

### 2.2.1. Nola gauzatzen den BBH taldeetako eguneroko jardunean

Aisialdiko ia begirale erdiek lantzen dute BBH modu inplizituz, hau da, egiten dituzten jardueretan zeharka lantzen dute, helburu eta metodologietan jasotzen dituzte, eta abar. %29k, berriz, esplizituki zein inplizituki lantzen dute, eta, azkenik, %9k esplizituki. *Beraz, aisialdiko begiraleen %87k BBH lantzen dute esplizituki, inplizituki edo bietara.*

Taldeetako guraso gehienek (%37), ordea, uste dute beren seme-alaben aisialdiko taldean BBH esplizituki lantzen dutela. *Dena dela, gurasoen %90en iritziz, esplizituki, inplizituki edo bietara lantzen da BBH.*

## 12. Taula

Nola lantzen den BBH. Begirale (B) eta gurasoen (G) ehunekoak

	Esplizituki		Inplizituki		Esplizituki eta inplizituki		Ez, baina planteatu dugu gai gori		Ez, sekula ere ez ugu gai hori planteatu		Beste batzuk		Guztira	
	B	G	B	G	B	G	B	G	B	G	B	G	B	G
<b>GUZTIRA</b>	9	37	49	24	29	29	5	6	7	3	1	1	100	100
<b>LH</b>														
Araba	4	57	57	29	32	7	0	7	7	0	0	0	100	100
Bizkaia	12	35	46	22	25	34	8	7	7	1	2	1	100	100
Gipuzkoa	3	29	51	29	43	29	0	5	3	8	0	0	100	100
<b>ADINA</b>														
18-21 /30-39	11	34	43	29	34	25	6	8	6	4	0	0	100	100
22-25 /40-49	9	36	49	26	28	29	6	7	6	1	2	1	100	100
26 edo + /50 +	6	50	61	0	21	42	3	0	9	8	0	0	100	100
<b>SEXUA</b>														
Giz.	12	37	53	23	25	32	5	6	5	2	0	0	100	100
Emak.	7	37	45	25	33	28	5	6	8	3	2	1	100	100

*BBHn esplizituki, inplizituki eta biak batera egiten den lanaren batukari hau kontuan hartuz gero, ez da alde handirik nahiz eta galdera gurutatu aukeraturako aldagaiekin; baina lurralde histo-*


rikoei dagokienez, Araban, erdiek baino gehiagok (%57) uste dute lana esplizitua dela, eta Bizkaian eta Gipuzkoan erdiek baino gutxiagok uste dute hori, %35ek eta %29k hurrenez, hurren.

Dirudienez, Arabako gurasoek hartzen dute parte gehien indarkeriaren errealitateari buruzko azterketan, eta horregatik dakite zer egiten den taldeetan (ikus 2.6.B atala. Indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa).

Oro har, begirale eta guraso gutxiak uste dute beren taldeetan ez dela inoiz landu BBH; hala ere, begiraleen %7k ez dute inoiz lan hori planteatu, eta horrek agerian uzten du gai honi buruzko hausnarketarik ez dela egin.


#### 24. grafikoa

Nola lantzen duzue BBH taldean? Begiraleak



#### 25. grafikoa

Nola lantzen duzue BBH taldean? Gurasoak



Hemen ikus daiteke zergatik talde gehienetan BBH kontuan hartu bai, baina ez duten eguneroko jardunean modu esplizituz lantzen; taldeek BBHri dagokion lana beren hezkuntza lan guztietara hedatzen dute, batez ere helburuetara eta jardueretara.

Hasiera batean oso gertaera positibotzat har daiteke hori, baina zertxobait sakonduz gero, konturatuko gara gaia konplexua dela, eta arduradun taldeek arazoak dituztela gaiari ekiterakoan. Esan genezake, beraz, gaia zeharka lantzeak garrantzia kentzen diola, eta ez duela hezkuntza jarduera osoa hartzen.

### 2.2.2. BBH lantzeko erabilitako teknikak

Atal honetako galdera gakoetako bat zen aisialdiko begiraleek ea zein teknika erabiltzen duten gehienbat BBH lantzeko. Horretarako, eskatu genien aipa zitzatela gehienez ere 3 teknika, BBHn ondo aritzeko eta lantzeko agerietan azaltzen zirenak (erantzunek bazekartzaten aukerak).

Neska-mutilei eta gurasoei ere egin genien galdera, jakitearren ea zein neurritan zuten taldeetan erabiltzen diren teknikak berri. Ez dago batere loturarik talde bakoitzak emandako erantzunen artean eta beren jatorri, adin eta sexuaren artean; beraz, talde bakoitzak emandako erantzunak azalduko ditugu.

Begiraleak eta gurasoak bat datoz adierazterakoan zein diren gehien erabiltzen diren hiru teknikak: komunikazioa eta lankidetzak jolasak (begiraleek %20 bi tekniketara, eta gurasoek, %26 eta %20, hurrenez hurren), eta erabakiak adostasunez hartzeko teknika (begiraleen %17 eta gurasoen %13).

Neska-mutilek ere aipatzen dituzte lankidetzak jolasak eta komunikazioa bi erabilien artean, baina ez datoz bat erabiliena aipatzerakoan, haien ustez *distentsioa* erabiltzen baita gehien (%25).

Hurrengo hiru teknika aipatuena dira gatazken konponbidea, rol jokoak eta gizarte trebetasunak. Hiru horiek frekuentzia ertaineko taldean bil genitzake, beraz. Gainerakoak gutxitan erabiltzen dira, eta ez dute %6tik gorako aipamenik erdietsi; hala gertatzen da, esaterako, bitartekaritza teknikaren kasuan.


**13. Taula**

BBH lantzeko hiru teknika erabilienak. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutirik		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Komunikazioa	99	20	88	18	87	26
Lankidetzak jolasak	99	20	107	22	65	20
Erabakiak adostasunez hartzea	84	17	38	8	46	14
Gatazken konponbidea	68	14	31	6	31	9
Rol jokoak	52	11	52	10	21	6
Distentsioa	41	8	122	25	43	13
Gizarte trebetasunak	35	7	18	3	31	9
Bitartekaritza	11	2	29	6	6	2
Bat ere ez	1	0,5	5	1	3	1
Besterik	2	0,5	4	1	1	0
ED/EE	102		61		92	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>

## 26. grafikoa

BBH lantzeko teknikarik erabilienak



### 2.2.3. BBHn landutako jarrerak

BBH lantzeko teknikarik erabilienak zein diren jakin nahi genuen; era berean jakin nahi genituen landu edo bultzatzen diren jarrerari buruzko datuak.

Aurreko atalean bezala, hiru jarrera mota nagusi daude, zein neurritan bultzatzen diren; eta ez da alde handirik hiru taldeek emandako erantzunen artean.

*Enpatia, aktiboki entzutea eta gaitasun kritikoa dira BBHn bultzatzen saiatzen direnetatik aipatuenak; hiru horiek goreneko mailan sailkatu ditugu.*

## 14. Taula

BBHn landu ohi diren jarrerak. Frekuentziak eta ehunekoak


	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Kritikoa izateko gaitasuna	149	85	103	58	68	54
Aktiboki entzutea	150	84	114	64	83	65
Enpatia	151	76	121	68	81	64
Horizontaltasuna	121	73	95	53	70	55
Asertzotasuna	85	51	86	48	35	28
Ahozkoa ez den komunikazioa	72	44	89	50	39	31
Bat ere ez	1	1	12	7	3	2
Besterik	4	6	6	3	1	1
<b>Guztira</b>	<b>733</b>		<b>626</b>		<b>380</b>	

Begiraleek gaitasun kritikoa aipatu dute gehien (%85), eta, ondoren, hurbil-hurbil, aktiboki entzutea (%84). Enpatia eta horizontaltasuna bigarren mailan ageri dira (%76 eta %73, hurrenez hurren).

Neska-mutilak eta gurasoak bat datoz aukeraketa egiterakoan; bi taldeetakoek diote aktiboki entzutea eta enpatia direla gehien bultzatutako jarrerak (%65, gutxi gorabehera); gaitasun kritikoa eta enpatia erdiko mailan daude, hau da, %60 eta %60 artean. 14. Taulan ikusten denez, neska-mutilen eta gurasoen erantzunak sakabanatuago daude begiraleenak baino.


### 27. grafikoa

Taldean landutako jarrerak. Begiraleak




### 28. grafikoa

Taldean landutako jarrerak. Neska-mutilak



## 29. grafikoa

Taldean landutako jarrerak. Gurasoak



### 2.3. Gatazkarik garrantzitsuenak aisialdiko taldeetan

1. Kapituluaren 1.3.1 eta 1.3.2 atalak irakurrita, aisialdiko taldeetan zer ulertzen duten gatazkatzat jakin dugu gutxi gorabehera; baina ezin dugu erabat jakin zein ideia duten, baldin eta ez badugu aztertzen zein diren, haien ustez, euren taldeetako eta inguruneko gatazkarik garrantzitsuenak. Zein gatazka identifikatzen duten ikusita jakingo dugu, askoz ere zehatzago, zer den haientzat gatazka.

Horregatik guztiagatik erabaki dugu kapitulu honetan biltzea taldeetan gertatzen diren gatazkarik sarrienak, alegia, zehatzago jakitearren talde horien errealitatea zein den eta nola egiten duten lan BBHren alde.

#### 2.3.1. Gatazkak taldeetan

Arestian aipatu dugun bezala, ezinbestekotzat jo genuen aztertzea aisialdiko taldeetan zein gatazkek duten garrantzi handien. Era guztietako erantzunak jaso ditugu, eta badira aldeak bazuena eta besteen artean.

*Antzemandako gatazka gehienek zirikusia dute talde barneko arazoekin, eta horregatik eman diegu «talde barneko gatazkak» izena: horien artean nabarmentzen da giza baliabideen elkarreragin eza (elkarrizketarik ez, motibaziorik ez eta loturarik ez guraso eta begiraleen artean).*

Espero zitekeen bezala, begiraleek aipatzen dituzte gehien gatazka horiek (%56); gurasoentzat ere horietatik dira garrantzitsuenak (%34).

Elkarrizketetan ondorioztatu dugunez, talde barneko beste zenbait gatazkek giza baliabideak dituzte iturri; alde batetik, belaunaldia berriak etortzea (geroz eta urte gutxiagoan diraude), eta, bestetik, boluntarioen profilak azken urteotan izan duen aldaketa arazo dira taldeak egonkorak izan daitezen.

## 15. taula

Gatazkarik garrantzitsuenak taldeetan. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Inplikazio handiagorik ez	36	9	25	8	13	6
Puntualtasun eta asistentziarik ez	12	3	10	3	0	0
Begirunerik ez	43	10	61	18	36	16
Bekaizkeria, Berekoikeria	11	3	24	7	25	11
Adostasun eza	52	12	69	21	31	13
Bazterketa (gustuko ez den jendea)	6	1	25	8	15	6
Jotzea	5	1	21	6	10	4
Taldeen arteko gatazkak	235	56	62	19	79	34
Hizkuntza gatazka	4	1	2	1	1	0
Balioak	10	2	3	1	7	3
Ez da gatazkarik taldean	3	1	19	6	9	4
Besterik	1	1	8	2	7	3
ED/EE	176		226		193	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>

Hurbileko ingurunearekin dituzten harremanak ere aipagarriak dira, adibidez, taldeek darrabiltzaten lokalen arduradunekin, edo taldeak partaide diren komunitateekin dituzten arazoak.

Dena dela, aisialdiko taldeetan esku-hartzen duten neska-mutilek beste gatazka batzuk aipatzen dituzte gehienbat, esaterako, eguneroko desadostasunak (%21); ez dira gatazka larriak, baina horiek dira neska-mutilak gehien ukitzen dituztenak. Gauza bera gertatzen da integrazioa edo bazterketa dela-eta sortzen diren gatazken kasuan (batez ere gustuko ez duten jendearengatik, %8) edo jokabide bortitzengatik (haserrea dela -eta, elkar jotzea), edo bekaizkeriagatik (%7).

Talde guztietakoek jarri dute hiru gatazka garrantzitsuenen artean begirunerik eza. Hala ere, harrigarria da neska-mutileen portzentajea izatea altuagoa (%18) begiraleena baino (%10). Begiraleek, ordea, garrantzi handiagoa ematen diote inplikazio handiagorik ez izateari: taldekoen inplikazioa baino gehiago aipatzen dute gurasoen eta adin batzuetako neska-mutilea (nerabezaroan).

Eskuarki, ez dirudi oso zabalduta dagoenik bileretara joan ez izanaren ondorioz gatazkek sortzea, eta, gainera, ez dira garrantzitsuak. Gauza bera gertatzen da balioetan bat ez etorri izanagatik, aisialdiko talde gehienek dituztelako abiapuntu ideia multzo bat eta helburu batzuk balioetan oinarrituta hezteko.

Hizkuntza gatazkarik ere ez den apenas (%1); taldeetan euskararen normalizazio osoa lortu ez bada ere (ikus «Bizkaiko aisialdi hezitzailea sustatzeko Plana», EDE Fundazioa, 2002). Taldeek




bere egiten dute lan hori, eta bat datoz. Era berean, *ez dugu antzeman politika gaiekin zerikusia duen gatazkarik, ezta geroz eta handiagoa den inmigrazioarekin ere.*

Beste batzuk izeneko aukeran bildu ditugu, besteak beste, baliabide material eta ekonomiko ezak eragindako gatazkak.


**30. grafikoa**

Gatazkak taldean. Begiraleak




**31. grafikoa**

Gatazkak taldean. Neska-mutilak



### 32. grafikoa

Gatazkak taldean. Gurasoak



#### 2.3.2. Gatazkak taldeen inguruneetan

Aurreko atalean ikusi dugu badela alderik taldeetan gertatzen diren gatazken garrantzia sailkatzerakoan; eta, espero zitekeen bezala, alde hori areagotu egiten da taldearen ingurunean (auzoan, herrian,...) gatazkarik garrantzitsuenak zein diren galdetutakoan.

Adibidez, taldeetako begiraleen ustez, ingurunean gatazkarik garrantzitsuenak honakoak dira: *politika gatazka* (%15), *inmigrazioaren inguruko arrazakeria* (%13) eta, *oro har, tolerantziarik ez izatea* (%10), *alegia, beste iritziekiko begirunerik ez izatea*.

Horixe bera da gatazkarik garrantzitsuena neska-mutilen ustez, eta bigarrena gurasoen iritziz. Gurasoen kezka nagusiak dira drogak eta alkoholzaletasuna, baina batez ere Araban eta Bizkaian.

Terrorismoari eta indarkeriari dagokienez, gurasoek eta beren seme-alabek *hirugarren garrantzitsuenak direla uste dute, eta begiraleek laugarren tokian aipatzen dituzte gai horiek* (9%).

Aurreko taulan ikusten denez, «besterik» aukerak oso ehuneko altuak izan ditu (%28-%32); elkarrizketetan ikusi genuenaren arabera, ingurunean gatazkak aipatzerakoan denetarik azaldu zen. Edonola ere, guztien artean nabarmentzen dira auzo gatazkak, taldeko familia batzuekin zeuden arazoak, eta erakundeekin (udalak) edo auzoko/herriko beste elkarte batzuekin zituzten arazoak.


## 16. Taula

Ingurune gatazkarik garrantzitsuenak. Frekuentziak eta ehunekoak

	Begiraleak		Neska-mutilak		Gurasoak	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Politika gatazka	66	15	19	6	25	9
Arrazakeria, Inmigrazioa	58	13	42	14	23	9
Tolerantziarik ez, begirunerik ez	47	10	57	18	35	13
Terrorismoa, indarkeria	42	9	51	17	28	10
Kultura eta hizkuntza gatazka	25	6	11	4	14	5
Langabezia, pobrezia, delinkuentzia	32	7	19	6	6	2
Drogak, alkoholzale- tasuna...	17	4	16	5	42	15
Etxeko indarkeria, tratu txarrak, sexismoa	2	1	7	2	0	0
Udalarekiko harremanak	20	4	1	0	13	5
Besterik	138	31	86	28	89	32
ED/EE	147		246		151	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>

## 33. grafikoa

Gatazka ingurunean



## 2.4. Zein unetan lantzen da BBH?

Jakin nahi genuen hirugarren erantzuna zen ea noiz lantzen den BBH taldeetan, ea beti lantzen den edo oso noizean behin, edo egoera jakin batzuetan indar handiagoa hartzen ote duen.

Horretarako, bi zatitan banatu dugu atala; lehenengoa, jakiteko ea zein normaltasun maila duen BBHren lanketak, eta, bigarrena, jakiteko ea zein unetan areagotzen den bereziki BBH.

### 2.4.1. Normaltasuna BBH lantzerakoan

*BBH zein unetan lantzen den taldeetan adierazten datu erlatiboak ditugu hasteko. Galdera hori egin genien bai begiraleei bai neska-mutilei ere, bi talde horietakoek bizi baitituzte zuzen-zuzenean taldeko jarduerak.*

*17. Taulan jaso ditugu erantzunak. Aldez aurretik neska-mutileen %10 kendu ditugu, erantzun baitzuten beren taldeetan ez zela inoiz ere lantzen BBH (ikus 2.1.1 atala. zenbateraino lantzen duten BBH taldeetan, 10. Taula). Honakoak izan dira emaitzak.*

### 17. Taula

Zein unetan lantzen den BBH taldeetan. Begiraleen (B) eta neska-mutileen (NM) ehunekoak

	Zerbait berezia gertatzen denean soilik		Zerbait berezia gertatu edo ez		Beste batzuk		Guztira	
	B	NM	B	NM	B	NM	B	NM
<b>A. INDEPENDIENTEAK</b>								
<b>GUZTIRA</b>	18	19	74	72	8	9	100	100
<b>LH</b>								
Araba	16	20	80	70	4	10	100	100
Bizkaia	20	17	72	75	8	8	100	100
Gipuzkoa	14	24	74	62	12	14	100	100
<b>ADINA</b>								
18-21 urte/9-12	24	36	66	57	10	7	100	100
22-25 urte/13-17	14	13	78	76	8	11	100	100
26 edo + urte/18 edo +	17	21	76	74	7	5	100	100
<b>SEXUA</b>								
Gizonezkoa	20	17	73	73	7	10	100	100
Emakumea	17	20	74	72	9	8	100	100

Taldeetako begiraleen hiru herenek erantzun zuten *bere taldean BBH lantzen dutela gertatzen dena gertatzen dela ere*, hau da, *BBH aldian-aldian lantzen duten taldeek bezkuntza horren alde jokatzeko dute ingurunearen edo taldearen beraren gertaerak gorabehera.*


Horrela ikusita positiboa badirudi ere, emaitzak sakonago aztertuz gero negatiboa ere izan daitekeela ikusten dugu; izan ere, pentsa genezake gertaera adierazgarriren bat denean, bai taldean bai ingurunean, ez dela BBHren lanketa areagotzen. *Badirudi, beraz, taldearen ideologia jokabidea dela gehiago, gatazkei konponbidea aurkitzeko edo bizikidetza egonkorragoa bihurtzeko baino.*

Beste %18k BBH lantzen du soil-soilik gertaera bereziren bat izan denean, alegia, egokia iruditzen zaienean; gainerako %8k ez zuten bestelako erantzunik eman.

Lurralde historikoak hartuz gero, ikusten da *Arabako begirale gehiagok (%80) lantzen dutela BBH gertatzen dena gertatzen dela ere*; Bizkaian eta Gipuzkoan (%72 eta %74, hurrenez hurren) jaitsi egiten da, eta horren ordez, gora egiten du zerbait berezia gertatutakoan lantzen dutenen ehunekoak. Adinaren arabera aztertuz gero, gazteek zaharrenek baino joera handiagoa dute BBH soilik egoera berezietan lantzeko (gazteak, %24, eta zaharrak, %14 eta %17). Ez dago alde-rik sexuaren arabera bereiziz gero.


### 34. grafikoa

Zein unetan lantzen duzue BBK? Begiraleak



### 35. grafikoa

Zein unetan lantzen duzue BBK? Neska-mutilak



Talde horietako neska-mutilen kasuan, emaitzak antzekoak dira; hala bada, galderei emandako erantzunak sendoak dira. Neska-mutilen %72k diote *beren taldeetan BBH lantzen dela, gertatzen dena gertatzen dela ere*. Bizkaikoak dira erantzun hori gehien aipatu dutenak (%75) (Arabian, %70ek, eta Gipuzkoan, %62k).

Adina zein den, aldeak handiak dira: 9-12 urte bitarteko neska-mutilen %57k uste du BBH lantzen dela gertatzen dena gertatzen dela ere, eta hurrengo bi tarteetan %76k eta %74k uste dute hori. Beraz, badirudi azken horiek ikusten dutela argien BBHren lanketa une jakin batzuetan.

## 2.4.2. BBHren inguruko lana indartzeko une jakinak

Galdera hori egin genien begiraleei jakitearren ea une jakin batzuetan BBHren inguruko lana bultzatzeko jarduerak programatzen ote zituzten; ea antolatzen zituzten bakearen aldeko jarduerak edo asteak, hau da, jarduera berezituak eta gizarteari begirakoak.

Gurasoei, ordea, galdetu genien ea esku-hartzen ote zuten jarduera horietan, baldin eta jarduerarik bazen, jakina, beren seme-alaben taldeetan. Horregatik baztertu ditugu guraso batzuen erantzunak (%9), aurrez erantzun baitzuten beren seme-alaben taldeetan ez zela BBHren inguruko lana bultzatzeko une jakinik.

Erantzunak 18. Taulan daude jasota. Ez dakitenen edo erantzun nahi ez dutenen ehunekoak oso handia da, eta errespetatu egin dugu; izan ere, gure ustez adierazgarria da begiraleen eta gurasoen %18k ez erantzun izana. Gurasoei dagokienez, ziurrenik, baliteke izatea ez dakitelako aisialdiko taldeetan zein jarduera egiten den gai honen eta beste batzuen inguruan.

*Begiraleen %48k diote beren taldeetan egiten dituztela BBH bultzatzeko jarduerak; %34k ezetz dio, eta gainerakoek, %18, ez dakite edo ez dute erantzun.*

### 18. Taula



BBHren inguruko lana bultzatzeko une jakinak (B) eta gurasoen (G) esku-hartzea.  
Begiraleen eta gurasoen ehunekoak

	BAI		EZ		BESTERIK	ED/EE		GUZTIRA	
	B	G	B	G	G	B	G	B	G
<b>GUZTIRA</b>	48	58	34	19	5	18	18	100	100
<b>LH</b>									
Araba	54	72	32	17	0	14	11	100	100
Bizkaia	52	57	28	18	6	20	19	100	100
Gipuzkoa	33	50	55	23	4	12	23	100	100
<b>ADINA</b>									
18-21 urte/30-39	55	50	26	25	0	19	25	100	100
22-25 urte/40-49	47	61	37	15	4	16	20	100	100
26 edo + urte/50 edo +	34	55	46	25	15	20	5	100	100
<b>SEXUA</b>									
Gizonezkoa	48	59	35	17	7	17	17	100	100
Emakumea	47	57	34	19	5	19	19	100	100

Lurralde Historikoetan, Gipuzkoako erantzunak desberdinak dira Arabako eta Bizkaiko begiraleen erantzunetatik, izan ere, gehienek (%55) diote *ez dutela BBHren inguruko lanik egiten une jakin batzuetan*. Adinez zenbat eta zaharragoak izan, gutxiago dira jarduera horiek egiten dituztela dioten begiraleak; sexuaren arabera, berriz, ez da alderik nabaritzen erantzunetan.



### 36. grafikoa

Areagotu egiten al da BBH une jakin batzuetan talde osoan?  
Begiraleak



### 37. grafikoa

Areagotu egiten al da BBH une jakin batzuetan talde osoan?  
Gurasoak



Datu adierazgarria da gurasoen %58k esatea *aukera ematen dietela jarduera horietan esku hartzeko, eta %9k esatea ez dietela aukerarik ematen*, alegia ez dituztela gonbidatu, edo, behintzat, ez dutela informaziorik jaso.

*Edonola ere, lurraldea zein den, agerikoa da aldea.* Araban, esaterako, gurasoen %72k diote taldeek aukera ematen dietela jarduera horietan esku hartzeko; *Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, erdiek baino apur bat gehiagok diote hori.*

Neska-mutilei dagokienez, zuzen-zuzenean galdetu genien ea beren taldeek Bakearen aldeko jardunaldiak edo asteak antolatzen zituzten. 19. Taulan ikusten denez, datu orokorrak kontuan hartuz gero, ez dira nagusitzen ez baiezkoa ezta ezezko erantzuna ere; %47k diote baietz, antolatzen dituztela, eta %46k, berriz, ezetz. %7k beste erantzunen bat aukeratu du.

Hala ere, Lurralde Historikoa zein den, alde nabarmenak daude jasotako erantzunetan. Batez ere Arabako taldeetako neska-mutilek diote halako jarduerak egiten dituztela; eta datu horrek bat egiten du talde horietako begiraleek eta gurasoek emandako erantzunekin (18. Taula).

Bukatzeko, esan behar dugu, *oro har, Arabako taldeek egiten dituztela gehien BBHri buruzko lana sozializatzeke halako jarduerak.*


### 19. Taula

Bakearen aldeko jardunaldiak edo asteak. Neska-mutilen ehunekoak

A. INDEPENDIENTEAK	BAI	EZ	BESTE BATZUK	GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>	47	46	7	100
<b>LH</b>				
Araba	72	28	0	100
Bizkaia	45	46	9	100
Gipuzkoa	36	61	3	100
<b>ADINA</b>				
9-12 urte	60	33	7	100
13-17 urte	42	50	8	100
18 edo + urte	53	47	0	100
<b>SEXUA</b>				
Mutila	47	47	6	100
Neska	47	45	8	100


### 38. grafikoa

Antolatzen al duzue taldean bakearen aldeko jardunaldi edo asterik? Neska-mutilak



### 39. grafikoa

Antolatzen al duzue taldean bakearen aldeko jardunaldi edo asterik? Neska-mutilak Lurralde Historikoaren arabera





---

## 2.5. BBHri buruzko prestakuntza taldeetan

Atal honetako laugarren gaia zen ea zein laguntza duten BBHren inguruko lana egiteko. Hau da, ez zein prestakuntzaren alde egiten duten, eta prestakuntza horrek zer formatu duen.

Bi gai horiei buruz horiei erantzuteko, begiraleei galdetu genien taldeetako barneko prestakuntza planez eta kanpoko prestakuntzaz.

### 2.5.1. Barne eta kanpo prestakuntzako planak

Begiraleek jasotzen duten BBHren berriazko prestakuntza dela-eta, ikusi dugu gehienek *kanpoko erakundeen esku uzten dutela*, batez ere aisialdiko eskolek egiten dute hori; eta lan gutxiago egiten da taldearen barnean.

Hain zuzen ere, begiraleen %68k diote beren taldeetan *badutela aukera BBHren inguruko kanpoko prestakuntza jasotzeko*. Gehienetan aisialdiko eskolen bidez izan ohi da, eta gutxi eskaerak dituzte bizikidetzaz eta bakerako hezkuntzari buruzko ikastaro edo monografiak.

Bizkaian hezkuntzako bi eskolek baino ez dituzte eskaintzen BBHri buruzko monografiak (Iturralde Eskola-Itaka eta EDE Fundazioa). Araban eta Gipuzkoako aisialdiko eskoletan ez dago berriazko ikastarorik. Prestakuntzako ia eskola guztiek eskaintzen dituzte jolasei buruzko ikastaro eta mintegiak.

Badira BBHren inguruan sar ditzakegun beste ikastaro batzuk, esaterako, hiru lurraldeetan eskaintzen dituzten balioetan oinarritutako hezkuntzari buruzkoak. Hizkuntzaren faktorea kontuan hartuz gero, Urtxintxa Eskola gailendu egiten da euskaraz eskaintzen duen prestakuntzan. Badira beste bi erakunde, Gernika Gogoratuz eta EDE Fundazioa, eskaintzen dituztenak, hezkuntza formalaren eta ez formalaren esparruan, gatazkei aurre egiteko eta bitartekaritzako tailerrak.

Kezkagarria da begiraleen %33k baino ez aitortzea beren taldeetan *badirela BBHri buruzko prestakuntza jasotzeko talde barneko planak*; hori ikusita, uste dugu, beste zenbait hipotesiren artean, edo taldeek ez dutela gai horrekiko interesik, edo ez zaiela lehentasunezkoa iruditzen, edo eragozpenak dituztela diseinatze eta abian jartzeko...

Talde eta eskoletako arduradun gehienek eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan emandako azalpena hartuko dugu aintzat. Horien aburuz, taldeetan lanez gainezka dabilta, eta jardueren erritmo biziaren ondorioz, ez dute astirik prestakuntza jasotzeko; baina gai horri buruzko prestakuntza ez ezik bestelakoa ere ezin dute jaso.

Azterketaren emaitzak Lurralde Historikoaren arabera analizatzerakoan, ikusi dugu badela alderik taldeen artean; hala ere, *hiru lurraldeetako talde gehienek aitortzen dute ez dutela prestakuntza jasotzeko talde barneko planik, eta ematen dela aukera BBHren inguruko kanpoko prestakuntza jasotzeko*.

Hori dela-eta, talde gehienek aukeratzen dituzte beren begirale berrien prestakuntzarako aisialdiko eskolak eta une jakin batzuk, baina ez daukate BBHren inguruko prestakuntzako barneko planik, eta, era berean, ez daukate gai honi buruzko prestakuntza emateko berriazko arduradunik.

Elkarrizketetan galdetu genien *BBHri buruzko prestakuntza emateko berriazko arduradunak*, eta, oro har, *taldeek ez dute halako arduradunik*. Hala ere, talde batzuetan, prestakuntzaz edo Herri Aukeraz (scout metodologiaren Herri aukera) arduratzen direnek sartzen dute gaia progra-

matutako prestakuntza saioetan. Beraz, *berebiziko garrantzia du arduradun horrek edo prestakuntza taldeak duten gai horrekiko sentsibilizazioak*; hau da, pertsona hori edo horiek BBH lantzen duen talderen bateko partaide izateak edo motibazio pertsonala izateak.

*Barneko prestakuntzari dagozkion datuak hartuz gero, lehendabizi, azpimarratu behar dugu Gipuzkoako begiraleek %86k diotela ez dela barneko planik BBHren prestakuntzaren alorrean; Bizkaian %64k aitortzen dute gauza bera, eta, Araban, %57k.*

Begiraleen adina zein den ere, aldeak ikusten dira; adinez zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta ezezko gehiago jaso ditugu erantzunetan: 18-21 urte bitarteko begiraleen %53k, 22-25 urte bitartekoen %70ek, eta %89a 26 urtetik gorakoen artean. Horrek gure hipotesia zuzena dela berresten du, uste baitugu prestakuntza hartzen dutela batez ere begirale berriei zuzenduta, eta betiere taldearen ordutegitik kanpo.



## 20. Taula

Talde barneko eta kanpoko prestakuntza planak izatea. Begiraleen ehunekoak

A. INDEPENDIENTEAK	BARNE PRESTAKUNTZA		KANPO PRESTAKUNTZA	
	BAI	EZ	BAI	EZ
<b>GUZTIRA</b>	33	67	68	32
<b>LH</b>				
Araba	43	57	67	33
Bizkaia	36	64	74	26
Gipuzkoa	14	86	51	49
<b>ADINA</b>				
18-21 urte	47	53	69	31
22-25 urte	30	70	69	31
26 edo + urte	11	89	62	38
<b>SEXUA</b>				
Gizonezkoa	33	67	71	29
Emakumea	31	69	65	35


## 40. grafikoa

Ba al duzue taldean BBKko prestakuntza planik begiraleentzat?



#### 41. grafikoa

Ba al duzue taldean BBHri buruzko prestakuntza kanpotik jasotzeko planik?



*Kanpoko prestakuntza jasotzeko aukera dela-eta, Bizkaiko begiraleen hiru laurdenek (%74) onartzen dute hala gertatzen dela; ondoren, Arabakoak daude (%67), eta, azkenik, Gipuzkoakoak, hauek esaten baitute badela aukera hori (%51), eta besteek (%49), ezetz. Beraz, *BBHren inguruko kanpo prestakuntza dago lurralde guztietan, baina batez ere Bizkaian, %74k aitortzen dutenaren arabera, behintzat.**

#### 2.5.2. Prestakuntza motak

Aurreko ataleko datuak osatzearen, ezinbestekoa da aztertzea zer kanpoko prestakuntza eskaintzen zaien taldeei BBHren inguruan. Hori jakiteko, galdetu genien begiraleei aukeratzeko eskaintzen zitzaizkien erantzunen artean. Aurrekoetan bezala, nahi beste erantzun aukera zitzaketen, horregatik dira batukariak %100 baino handiagoak.

#### 21. Taula


Taldeek eskaintzen dituzten BBHren inguruko prestakuntza bideak. Begiraleen ehunekoak

A. INDEPENDIENTEAK	IKASTARO ETA MINTEGIAK	KANPAINAK	JARDUNALDIAK	HITZALDIAK	BESTERIK
<b>GUZTIRA</b>	68	39	46	57	14
<b>LH</b>					
Araba	72	50	68	72	14
Bizkaia	74	41	49	57	20
Gipuzkoa	46	24	17	46	5
<b>ADINA</b>					
18-21 urte	67	30	47	60	8
22-25 urte	72	42	43	54	11
26 edo + urte	56	47	50	61	36
<b>SEXUA</b>					
Gizonezkoa	73	46	43	59	18
Emakumea	62	31	48	56	11

BBHren inguruko prestakuntza mota dela-eta, gehien aipatu dutena BBHri buruzko ikastaro eta mintegiak izan da (%68); ondoren, hitzaldiak (%57), jardunaldiak (%46) eta kanpainak (%39). Datu horiek erraz ulertzeko modukoak dira, izan ere aurreko atalean aipatu dugunez, gehienek aisialdiko eskolen esku uzten dute prestakuntza, eta eskola horiek antolatzen dituzte ikastaro, mintegi eta monografikoak. Gauza bera gertatzen da jardunaldi eta hitzaldien kasuan, horiek ere koordinadorek eta eskolek antolatzen baitituzte. Aipamen gutxien jaso duena izan da kanpainak izenekoak; taldeek eurek antolatzen dituztelako, eta horregatik jaso dute aipamen gutxien.

#### 42. grafikoa

BBHko prestakuntza honako hauen bidez ahalbidetzen da



Zein prestakuntza motaz eta lurralde historikoz ari garen, emaitzak desberdinak dira. Esaterako, Bizkaian eta Araban ohikoagoak dira ikastaro eta mintegiak, %74 eta %72, hurrenez hurren (adierazi dugu aisialdiko eskola gehiago dagoela BBHren aldeko erronkari eutsi diona); gauza bera gertatzen da jardunaldiei bagagozkio.

## 2.6. BBHren esparruan egindako lanaren balioespena

Atal hau bukatzeko, aisialdiko taldeetan BBHren ingurua egindako jardueren balioespena aztertuko dugu. Funtsezkoa iruditzen zaigu jakitea zein balioztapen mota egiten duten, horren bidez jakingo baitugu taldeak zenbaterainoko konpromiso maila duen gaiarekin.

Galdera sortan bi galdera egin genizkien gai honi buruz; batetik, ea taldearen balioespenean jasotzen diren, eta, bestetik, ea elkartzeko hitzorduak jartzen zituzten BBHren inguruko esperientziak taldera ekartzeko. Atal honetan sartu dugu, bestalde, taldeetako eta inguruneko indarkeriaren errealitatearen azterketari buruzko galderak.

### 2.6.1. BBHri buruzko jarduerak balioztatzeke ekintzak

Hasteko, Taldeetan BBH balioztatzeke egiten dituzten jarduerak motei buruzko datuak hartuko ditugu.

Ahalik eta zehatzen erantzun zezaten, eta alde zuzenetik BBH landu dutela esan duten begiraleen artean hautaketa bat egin ondoren, balioespenei buruzko galderari emandako erantzunekin gurutzatu ditugu, eta 22. Taulan azaltzen dira emaitzak.

## 22. Taula

BBHko jarduerak balioztatzeko ekintzak. Begiraleen ehunekoak

A. INDEPENDIENTEAK	TALDEAREN OROITZA-TXOSTENEAN JASOTZEN DIRA		HIZTORDUAK JARTZEN DIRA	
	BAI	EZ	BAI	EZ
<b>GUZTIRA</b>	<b>65</b>	<b>35</b>	<b>39</b>	<b>61</b>
<b>LH</b>				
Araba	74	26	50	50
Bizkaia	65	36	36	64
Gipuzkoa	58	42	40	60
<b>ADINA</b>				
18-21 urte	76	24	55	45
22-25 urte	66	34	36	64
26 edo + urte	40	60	14	86
<b>SEXUA</b>				
Gizonezkoa	67	33	37	63
Emakumea	62	38	41	59


Begiraleen %65ek aitortzen dute *BBHren jardueren balioztatpenak taldearen oroitza-txostenetan jasotzen direla; antzeko ehuneko batek (%61) dio ez dela esperientzia horiek taldera ekartzeko hitzordurik jartzen.*

Lurraldeka eta sexuka hartuta, ez da alderik; baina adina hartuz gero kontuan, orduan bai.

Lehenengo eta behin, taldearen *oroitza txostenari* buruzko galderari emandako erantzunak azalduko ditugu. Hain zuzen, *18-21 urte bitarteko begiraleen %76k dio biltzen dituela BBHko jarduerak taldearen oroitza txostenean*, eta 26 urtetik gorakoen %60k ezetz dio. Erdikoak, alegia, 22-25 urte bitartekoak, aurreko bi taldeen erdian daude.


### 43. grafikoak

Taldearen oroitza-txostenean biltzen ditugu BBHko jardueren balioespenak



### 44. grafikoak

BBH balioesterakoan hitzorduak ezartzen ditugu izandako esperientziak taldera ekartzeko



*Elkartzeko uneei dagokienez, berriz ere dira gazteenak gehien aipatzen dutenak (%55) hitzorduak jartzen dituztela BBHren inguruan bizi izandako esperientziak taldera eramateko. Eta, aurrekoan bezalaxe, berriz ere dira zaharrenak ez dutela horrelakorik egiten aitortzen dutenak (%86).*

Hala bada, argi esan daiteke *BBHren inguruko ekintzen balioztatpena izan ohi dela oroitza txostenean informazioa biltzea batez ere, eta ez, ordea, hainbeste, nor bere esperientziaren berri berri ematearren une jakin batzuk hartzea.* Hori horrela izanik, gure ustez informazio asko galtzen da, ez baitiote elkarri nor bere esperientziaren berri ematen, eta hori da, hain zuzen, ikerketa honetarako egindako eztabaida taldeetan antzemandako eskaeretako bat.

### 2.6.2. Indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa taldeetan

Lan honen gai garrantzitsuenetako bat da jakitea ea taldeek zein neurritan aztertzen duten lan egiten duten talde eta ingurune indarkeriaren errealitatea; hori guztia, nonbait, argitzearren ea zenbateraino ezagutzen duten eta balioztatzen duten beren lan ingurune errealitatea, eta, jakina, jakitearren zenbateraino hartzen duten kontuan lanari ekiterakoan.

Hasteko, gaiaren ikuspegi orokorra zein den antzematen saiatuko gara, eta ondoren, poliki-poliki, sakonago arituko gara, egindako galderen erantzunak baliatuta.

Aztergai ditugun edukiak kontuan hartu gabe egin genien galdera, uste baikenuen denek zekitelako zein metodologia erabili behar genuen azterketa hau egiteko, eta uste genuelako hobe zela analisi globala egitea. Bestalde, argitu nahiko genuke ez genuela denborazkotasanik zehaztu, aurrerago baitago galdera hori; horrek informazio gehiago eta fidagarritasun handiagoa eskainiko digu. Hona hemen lortutako emaitzak.

## 23. Taula

Taldeko eta ingurune indarkeriaren errealitateari buruzko analisia. Begiraleen ehunekoak

BEGIRALEAK	ANALISIA TALDEKO INDARKERIAZ		ANALISIA INGURUNeko INDARKERIAZ	
	BAI	EZ	BAI	EZ
<b>GUZTIRA</b>	44	56	50	50
<b>LH</b>				
Araba	74	26	64	36
Bizkaia	37	63	48	52
Gipuzkoa	44	56	47	53
<b>ADINA</b>				
18-21 urte	57	43	63	37
22-25 urte	41	59	51	49
26 edo + urte	27	73	22	75
<b>SEXUA</b>				
Gizonezkoa	54	46	59	41
Emakumea	34	66	42	58

Begiraleen erdiek baino gehiagok, %56k, diote ez dutela taldeko indarkeriaren errealitatea aztertzen, eta, aldiz, %50ek aitortzen du aztertzen dutela inguruneko indarkeriaren errealitatea. Datu horien arabera, gure ustez, begirale taldeek garrantzi handiagoa ematen diote, oro har, lan egiten duten ingurunearen azterketari beren baliabideei baino; badirudi beren taldeetako egoera onartu eta aldatzeko asmorik ez dutela, edo, behintzat, ez dute uste premiazkoa denik horrelakorik egitea.


Hala ere, lurralde historikoa zein den, datuek gorabeherak dituzte, eta galdera zein zen kontuan hartuta, datu interesgarria da. Arabako begiraleen hiru laurdenek adierazi zuten taldeko indarkeriaren errealitatea aztertzen dutela, eta ehunekoak behera egin zuen inguruneko azterketari buruz galdetu genienean (%64).

Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, datuak alderantzizkoak dira, eta ohikoagoa da inguruneko azterketa taldekoa baino. Baliteke hori gertatzea lurralde bakoitzaren testuinguru sozio-politikoarengatik, baina, gure ustez, hori gertatzen da Araban inkesta egin zuten taldeen %99 parrokiei lotutakoak direlako, eta guztiak ere koordinadora berekoak (Atsedeen Eskola); talde horiek guztiak ideia eta teoria esparru bera dute, eta garrantzi handiagoa ematen diote taldearen barneko analisiari. Bizkaian, ordea, ikusi dugu taldeen tipologia askotarikoa zela.

Hain zuzen ere, mutil gazteenek onartzen dute gehien *ez dutela beren taldeetako indarkeriaren errealitatea aztertzen*; zehazki esatearren, neskek baino %20 gutxiago. Are gehiago, *adinez zenbat eta zaharragoak izan %30 hazten da taldeko edo inguruneko indarkeriaren errealitateari buruzko azterketarik egiten ez dutela aitortzen dutenen ehunekoak*.


**45. grafikoak**

Taldeko indarkeriaren errealitatea aztertzen duzue taldean?



**46. grafikoak**

Inguruneko indarkeriaren errealitatea aztertzen duzue taldean?



### 2.6.3. Nork egiten duen indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa

Galdera honi emandako erantzunak ulertuko baditugu, ezinbestekoa da jakitea ea nork egiten duen benetan analisisa (24. Taula). Taldeetako begiraleei baino ez genien egin galdera, haien baitira jarduerak eta ekintzak koordinatu eta planifikatzen dituztenak.

#### *Taldeko indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa*

Taldeko indarkeriaren errealitateari buruzko datuak aztertzean, ikusi genuen, eta hori gauza jakina zen, *begiraleen taldeak berak egiten duela (%82); eta berak onartzen dutenez, ehunekoak behera egiten du neska-mutilei bagagozkio (%56) eta gurasoei bagagozkio (%17)*.

Beraz, badirudi *lan hau oso sozializatuta dagoela begirale taldeetan*, baina, hala ere, ez dago oso orekatuta adin tarreak hartzen baditugu kontuan, izan ere orokorragoa da begirale gazteen artean (%81 eta %88); hori horrela gertatzen da, nonbait, prestakuntza plana egiten duten aisialdiko eskoletako ikastaroetako gai bat delako; zaharrenek (26 urte edo gehiago) bukatu dute prestakuntza eta taldeko koordinazio lanez arduratzen dira gehien bat; horregatik aukeratu dute «beste batzuk» erantzuna gehiagotan.

Emaitzak ikusita, Gipuzkoa eta Arabako aisialdiko taldeetako neska-mutilek aztertzen dute gehien (%63) taldeko indarkeriaren errealitatea; era berean, Gipuzkoako gurasoek dute ehuneko-rik txikiena (%6); Arabako gurasoen %17k hartzen du parte azterketa horietan.


## 24. Taula

Nork aztertzen duen taldeko eta ingurune indarkeriaren errealitatea (begiraleen ehunekoak)

BEGIRALEAK	ANALISIA TALDEKO INDARKERIAZ				ANALISIA INGURUKO INDARKERIAZ			
	BEGI-RALEAK	NESKA-MUTILAK	GURASOAK	BESTE BATZUK	BEGI-RALEAK	NESKA-MUTILAK	GURASOAK	BESTE BATZUK
<b>GUZTIRA</b>	82	56	17	1	75	44	23	1
<b>LH</b>								
Araba	85	63	21	0	83	53	35	0
Bizkaia	84	51	19	0	74	37	25	0
Gipuzkoa	75	63	6	6	71	59	6	6
<b>ADINA</b>								
18-21 urte	81	54	17	0	80	44	29	0
22-25 urte	88	59	16	0	74	46	17	2
26 edo + urte	67	56	22	11	71	43	29	0
<b>SEXUA</b>								
Gizonezkoa	82	52	13	0	77	37	22	0
Emakumea	83	63	24	3	75	56	26	3

## 47. grafikoa

Nork egiten du indarkeriari buruzko azterketa?





## Inguruneko indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa

Inguruneko indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa lotu-loturik dago taldekoarekin; hau da, biak ala biak dira aisialdiko taldeek aldizka egin behar duten azterketa globalaren osagaiak. Hala ere, argi ikusi dugu ez dela berdin egiten talde guztietan: *Bizkaian eta Gipuzkoan ohi-koagoa da ingurunea aztertzea, eta Araban, berriz, sarriago egiten dute taldeko azterketa.*

Begiraleek emandako iritziak oinarritzat hartuta, badirudi *hiru lurraldeetan jaitzi egiten dela zerbait neska-mutilek inguruneaz egiten duten azterketa, eta batez ere, Bizkaian gertatzen da hori, parte hartzea ez baita %50era iristen.* Gurasoen parte hartzeari dagokionez, gora egiten du Bizkaian eta Araban, eta bere horretan jarraitzen du Gipuzkoarren artean. Begiraleek uste dute neska-mutilek eta gurasoek parte hartze handiagoa dutela gai honetan.

### 2.6.4. Indarkeriaren errealitateari buruzko azterketa zenbatero egiten den

Indarkeriaren errealitatearen azterketa norik egiten duen jakitea garrantzitsua da; eta hori bezain garrantzitsua da zein aldizkakotasunez egiten duten jakitea ere. 25. Taulan ageri dira lor-tutako emaitzak; aurretik baztertu egin ditugu indarkeriaren errealitateari buruzko azterketarik egiten ez zutela esan zutenak (taldeari dagokionez, %56, eta ingurunearen kasuan, %50). Erantzuna erraztearren, ez genien eskatu bereizteko taldeko eta inguruneko azterketen artean.

Gauzak horrela, indarkeria aztertzen duten taldeen artean (taldekoa %44, eta ingurunekoa %50), %46k aitortu zuen noizean behin egiten dutela, aurrez ezarritako denbora aldirik gabe eta adostasunez hitzartutako denboraltasunik gabe. Beste %14k dio urtero egiten dutela, batez ere ikas-urte hasieran edo bukaeran; bada astero egiten duenik ere (%12), edo hamabostean behin (%4).

## 25. Taula

Zein aldizkakotasunez aztertzen duten indarkeriaren errealitatea. Begiraleen ehunekoak


	NOIZBEHINKA	ASTERO	HAMABOSTERO	HILERO	URTERO	BESTE BATZUK	GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>	46	8	4	14	14	14	100
<b>LH</b>							
Araba	33	21	0	8	21	17	100
Bizkaia	45	6	6	18	10	15	100
Gipuzkoa	56	3	0	6	21	14	100
<b>ADINA</b>							
18-21 urte	32	16	8	16	14	14	100
22-25 urte	46	3	2	15	15	19	100
26 edo + urte	70	4	0	4	13	9	100
<b>SEXUA</b>							
Gizonezkoa	39	5	1	18	15	22	100
Emakumea	52	11	6	9	14	8	100

*Esan liteke, beraz, talde gehienek indarkeria aztertzen ez badute ere, %40k gutxienez (astero egiten dutenetik urtero egiten dutenera batuta), urtean behin aztertzen duela. Horren arabera dakigu nolako garrantzia ematen dioten talde horiek beren inguruko errealitateari.*

Datuak zehatz-mehatz aztertuz gero, ikusiko dugu elkarren eskutik doazela zein aldizkotasunez egiten duten azterketa, batetik, eta, bestetik, zenbait aldagai, adibidez, lurralde historikoa, sexua eta, batez ere, galderari erantzun dioten begiraleen adina.

#### 48. grafikoa

Zenbatero aztertzen dute indarkeriaren errealitatea?



Hain zuzen ere, 26 urtetik gorako begiraleen %70ek diote indarkeriaren errealitatea noiz-behinka aztertzen dutela, eta gainerako adinetan, gehienez %46k esan zuten hori, eta erantzunak sakabanatuago daude urtero eta hilaro aukeren artean. Hala bada, badirudi begirale gazteenak direla sarrien aztertzen dutenak indarkeriaren errealitatea, eta, bereziki, Bizkaikoek, izan ere %40k urtean behin aztertzen dute gutxienez; Araban eta Gipuzkoan %36k eta %30ek, hurrenez hurren.

2. kapitulu honetan BBHk aisialdiko taldeetan zein toki duen aztertu ondoren, talde horiek BBH nola landu duten balioztatuko dugu (3. Kapitulu).



# Egiten denari buruzko norberaren balioespena



Txostenaren hirugarren kapitulu honetan aztertuko dugu begiraleek, neska-mutilek eta gurasoek nola balioesten duten bizikidetzeta eta bakerako hezkuntzaren esparruan aisialdiko taldeek egiten duten lana.

Aurrekoetan egin dugun bezala, kapitulu hau ere gaika banatu dugu. Honakoa da, hain zuzen, II. Kapituluaren banaketa.

Lehenengo eta behin, aztertuko dugu nola balioesten duten BBHk taldean duen tokia. Bigarren, aipatuko dugu zer uste duten BBH lantzeko eskura dituzten baliabideez; hirugarren atalean, BBHren esparruei buruzko balioespena izango dugu mintzagai, eta, azkenik, haien ustez, BBHri dagokionez, taldeen ahulguneak eta alderdi sendoak zein diren adieraziko dugu.

## 3.1. BBHk taldeetan duen tokia:

- 3.1.1. Gatazkei nola aurre egin.
- 3.1.2. BBHren aurrean agertzen dituzten jarrerak.
- 3.1.3. BBH zenbat lantzen den balioestea.
- 3.1.4. BBHk neska-mutilei sorrarazten dien interesa eta taldearen asebetetasun maila.

## 3.2. BBH lantzeko eskura dauden baliabideak.

## 3.3. BBHren lan arloak:

- 3.3.1. Gehien eta gutxien lantzen diren arloak.
- 3.3.2. Arazo gehien sortzen dituzten lan arloak.
- 3.3.3. Lan arloen garrantzi maila.

## 3.4. BBHren alderik indartsuenak eta ahulguneak:

- 3.4.1. Begiraleen iritzia.
- 3.4.2. Gurasoen iritzia.

---

## 3.1. BBHk taldeetan duen tokia

BBHren inguruko lanaren balioespenen artean, bereziki aipatuko ditugu gatazkei aurre egiteko modua, BBHren aurrean agertzen duten jarrera eta egiten den lan neurriaren balioespen orokorra ere.

### 3.1.1. Gatazkei nola aurre egin

Aisialdiko taldeek gatazken aurrean nola jokatzeko araberako, honakoa azpimarratu behar dugu: *begiraleen %74k, gurasoen %69k eta neska-mutilen %62k diote gatazka-  
ren bat dagoenean aldeek elkarrekin hitz egiten dutela, konponbidea aurkitzearen.*

Inkestari erantzun diotenen laurdenek diote beti dagoela norbait gatazkan daudenen jarre-  
rak hurbiltzen laguntzen duena.


## 26. Taula

Taldeek nola egiten dieten aurre gatazkei. Frekuentziak eta ehunekoak

	BEGIRALEAK		NESKA-MUTILAK		GURASOAK	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Aldeen artean hitz egiten dute	146	74	109	62	84	69
Bada norbait jarrerak hurbiltzen laguntzen duena	43	22	45	25	33	27
Ez ikusiarena egiten dute	2	1	7	4	2	2
Erruduna aurkitu eta zigortu egiten dute	1	1	5	3	0	0
Norbaiti eskatzen diote epaile lana egin dezan	0	0	3	2	1	1
Besterik	4	2	8	4	1	1
ED/EE	2		8		21	
<b>Guztira</b>	<b>198</b>	<b>100</b>	<b>185</b>	<b>100</b>	<b>142</b>	<b>100</b>

## 49. grafikoa

Zure taldean, nola egiten diete aurre gatazkei?



Neska-mutilen %4ren ustez, ez ikusiarena egiten da gatazka dagoenean; gurasoen %2k eta begiraleen %1ek baino ez dute gauza bera pentsatzen. Bestalde, neska-mutilen %3k diote erruduna aurkitu eta zigortzen dela halakoetan, baina ez da halakorik gertatzen guraso eta begiraleen ustetan.

Beste horrenbeste gertatzen da norbaiti epaile lana egiteko eskatzen diotenekin; ez du ia inork aukeratu erantzun hori.

Begiraleen adina zein den, alde nabarmena dago emandako erantzunetan; hala bada, 18-21 urte bitarteko begiraleek aukeratu dute gehien «aldean arteko elkarrizketa» erantzuna, eta adin horretako gutxiagok erantzun dute jarrerak hurbilaraziko dituen norbait hartzen dutela.

### 3.1.2. BBHren aurrean agertzen dituzten jarrerak

BBHren aurrean agertzen diren jarrerak direla-eta, begirale eta gurasoei bazik ez genien galdetu, izan ere, gure ustez, neska-mutilek ez dute oraindik nahikoa gaitasun kritiko halako galdera subjektibo bati erantzuteko.

Halaber, galdetu genien ea zer irizten zioten beren kideen jarrerari; hau da, begiraleei galdetu genien gainerako begiraleen jarreragatik, eta gurasoei gainerako familien jarreragatik. Hala egin genuen jakiteko ea berdin hautematen duten norberak egiten duena eta gainerakoek egiten dutena.

Talde horietan, alde batera utzi genituen BBH lantzen ez dela aitortu zuten begirale eta gurasoen inkestak, eta ondoren, emaitzak bildu genituen, 27. eta 28. Tauletan azaltzen direnak.

*BBH dela-eta duten gainerakoek jarrerari buruzko iritzia* aipatuko dugu lehenik eta behin; aurrez, baina, haien taldeetan BBH lantzen ez zutela ziotenen kasuak baztertu ditugu.

Gai honetan, ikusten denez, begiraleen %70en iritziz, taldeak jarrera aktiboa erakusten du BBHren aurrean; %27k adierazi zuten oro har jarrera pasiboa dela; %8ren ustez, axolagabekeria da nagusi; %1ek aitortzen du lan honen aurkakoak direla; azkenik, %8k beste erantzun batzuk eman zituzten.

## 27. Taula

Taldeko kide gehienek BBHren aurrean erakusten duten jarrera. Frekuentziak eta ehunekoak


	BEGIRALEAK		GURASOAK	
	Fi	%	Fi	%
Jarrera aktiboa	116	74	32	37
Jarrera pasiboa	22	14	29	33
Axolagabea	10	6	20	23
Aurkakoak	1	1	0	0
Besterik	8	5	6	7
ED/EE	7		15	
<b>Guztira</b>	<b>164</b>	<b>100</b>	<b>102</b>	<b>100</b>

Gurasoek, gainerako familiek BBHren aurrean eskuarki duten jarrerari buruz, uste dute aktiboa dela (%37); %33k berriz, pasiboa irizten diote jarrerari, %23k axolagabea, eta gainerako %7k beste erantzunen bat eman zuten.

Ikusten denez, *gurasoak begiraleak baino kritikoagoak dira beren kideen jarrera BBHren aurrean balioesterakoan*; %33k uste dute pasiboa dela, eta begiraleen %14k baizik ez dute horrela ikusten.

### 50. grafikoa

Gainerako kideek BBHren aurrean erakusten duten jarrera



*BBHren aurrean norberak duen jarrera balioesterakoan, begiraleen artean %79k diote jarrera aktiboa dutela; beraz, balioespen hobea ematen diote beren buruari gainerako kideei baino.*

Gurasoek ere positiboagozat dute beren jarrera gainerako kideena baino, izan ere *gurasoen %68k uste dute BBHren aurrean jarrera aktiboa dutela.*

### 28. Taula


Nola balioesten duten beren jarrera BBHren aurrean. Frekuentziak eta ehunekoak

	BEGIRALEAK		GURASOAK	
	Fi	%	Fi	%
Jarrera aktiboa	117	79	52	68
Jarrera pasiboa	16	11	11	14
Axolagabea	7	4	7	9
Aurkakoa	0	0	1	1
Besterik	9	6	6	8
ED/EE	15		25	
<b>Guztira</b>	<b>164</b>	<b>100</b>	<b>102</b>	<b>100</b>

Oro har, esan genezake begiraleek eta gurasoek hautematen dutela beren jarrera BBHren aurrean oso positiboa dela, eta denek, bai gurasoek eta bai begiraleek ere, gehiago balioesten dutela norberaren jarrera gainerako kideena baino.

### 51. grafikoa

Norberaren jarrera BBHren aurrean



#### 3.1.3. BBH zenbat lantzen den balioestea

Aurretik ere adierazi dugu munta handia duela jakiteak nola balioesten duten aisialdiko taldeek BBHren arloan zenbat lan egiten duten. Horregatik galdetu genien gai horri buruz begiraleei, haiek baitira taldearen dinamikaren berri ondoen dakitenak.

Beren taldeetan BBH lantzen ez dutenen galdera sortak filtratu gabe, begiraleen erdiek (%52) uste dute nahikotxo lantzen dela; %37ren ustez, gutxi; %7k asko irizten diote egiten den lanari; eta, azkenik, %4k adierazi zuten ez dela batere lanik egiten arlo horretan.

Hala ere, kasu horiek iragaztean (29. Taula), emaitzak nabarmen aldatu ziren, eta azken datu horiek dira interesgarrienak, taldeetan BBH lantzen dutenen erantzunak baitira.

Datuak zehatz adierazita, BBH lantzen duten taldeetako begiraleen %57ren ustez, nahiko lantzen dute; %34k diote gutxi lantzen dela; %8k, asko; eta gainerakoek (%1), ezer ez.

*Erantzunak aldagai bakoitzaren arabera aztertuz gero, alde handiak ikusten ditugu. Hala bada, berriz ere dira gazteenak gainerakoek baino gehiago diotenak asko lantzen dutela BBH; izan ere, asko eta nahiko lantzen dela dioten kopurua batuz gero, %72ra iristen dira.*

Eta Arabakoak dira, orain ere, gehien lantzen dutenak, haien hitzetan betiere. Hain zuzen ere, bi aukerak batuta, %75ek aitortzen dute hori; Bizkaian eta Gipuzkoan behera egiten du portzentajeak, %65 eta %60 hurrenez hurren.

Oro har, badirudi begiraleak gogobeteta daudela BBHri eskaintzen dioten tokiarekin; erdiek baino gehiagok uste dute asko edo nahiko lantzen dutela.




## 29. Taula

BBH zenbat lantzen den balioestea. Begiraleen ehunekoak

	ASKO	NAHIKO	GUTXI	EZER EZ	GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>	8	57	34	1	100
<b>LH</b>					
Araba	4	71	25	0	100
Bizkaia	10	55	33	2	100
Gipuzkoa	6	54	40	0	100
<b>ADINA</b>					
18-21 urte	11	61	26	2	100
22-25 urte	8	54	38	0	100
26 edo + urte	3	56	38	3	100
<b>SEXUA</b>					
Gizonezkoa	10	53	36	1	100
Emakumea	7	60	32	1	100

## 52. grafikoa

Zenbat lantzen da BBH taldean?



Emaitza horiek, hala ere, zehaztu egin behar dira. Elkarteen errealitateak erakusten digu datu horiek ez direla, benetan, horren altuak. Galdera oso era orokorrean planteatu genien, eta horrek «espero den erantzuna» efektua eragiten du; alegia, inkestari erantzuten diotenek aukerarik zuzenena emateko joera dute. Elkarrizketetan nabaritzen da gertaera hori, hasieran erantzun politikoki zuzenak jasotzen baitira, baina taldeen bizitzan sakondutakoan, taldearen beraren hutsuneak eta dohainak azaleratzen dira.

### 3.1.4. BBHk neska-mutilei sorrarazten dien interesa eta taldearen asebetetasun maila

Aisialdiko taldeetan ari diren neska-mutilei galdetu genien ea nolako interesa eragiten zien BBHk; bai eta zenbateraino zeuden gogobeteta eta zenbateraino zeuden integratuta beren bizitzako oinarritzako hiru esparrutan: familian, ikastetxean eta aisialdiko taldean. Halaxe egin genuen, jakin nahi baikenuen ea BBHren esparruan egiten den lanak ondorio positiborik ote duen beren balioespenetan.

30. Taulan jaso ditugu lehenengo galderari (BBH eragiten dien interesa) emandako erantzunen datuak.


**30. Taula**

BBHk eragiten dien interes maila. Neska-mutilen ehunekoak

	ASKO	NAHIKO	GUTXI	EZER EZ	BESTE BATZUK	GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>	29	57	11	1	2	100
<b>LH</b>						
Araba	27	54	19	0	0	100
Bizkaia	29	57	11	2	1	100
Gipuzkoa	30	61	6	0	3	100
<b>ADINA</b>						
9-12 urte	38	53	9	0	0	100
13-17 urte	27	58	11	2	2	100
18 edo + urte	23	59	18	0	0	100
<b>SEXUA</b>						
Mutila	32	52	13	2	1	100
Neska	26	62	10	0	2	100

**53. grafikoa**

Interesatzen zaizu BBH? Neska mutilak



Inkestari erantzun zioten neska-mutilen erdiek baino gehiagok, zehazki %57k, aitortu zuten nahiko interes dutela BBHren gaian; %29k adierazi zuten interes handia dutela; %14k esan zuten edo interes gutxi dutela, edo batere ez, edo beste erantzunen bat eman zuten. Lehenengo bi portzentajeak batuz gero, emaitzak erakusten du neska-mutilen %86ri interesatzen zaiela, asko edo nahiko, BBHren gaia.

Aldagai independenteak kontuan hartuz gero, antzematen da neska-mutil gipuzkoarren interes handiagoa dutela BBHren gaian Arabako eta Bizkaiko neska-mutilek baino. *Gipuzkoako neska-mutilen %91k aitortzen dute nahiko edo oso interesatuta daudela BBHren gaia sakontzen; Arabako %81 eta Bizkaiko %86 dira iritzi berekoak.*

Adierazgarria da, bestalde, honako beste datu hau: *adinez zenbat eta zaharragoak izan, interes gutxiago erakusten dute BBHren inguruan*, eta, horrez gain, neska gehiagok dio nahiko interesatuta dagoela (%62) mutilek baino (%52). Hala ere, mutil gehiago dago oso interesatuta (%32), neska baino (%26).

Hortaz, esan esan daiteke *EAEko aisialdiko taldeetan diharduten neska-mutilek BBHrekiko duten interes maila altua dela populazioan (%29) eta nahiko altua (%57) gainerakoen artean.*

Ondoren, *familian, ikastetxean, taldean eta taldeko begiraleekiko harremanetan ea nola sentitzen diren jakiteko* egin genien galderari buruzko datuak azalduko ditugu.

31. Taulan ikusten dugunez, *neska-mutilen %74k aitortzen dute oso ondo sentitzen direla beren aisialdiko taldeetan; talde horiek lortzen dute emaitzarik positiboena, alegia, familiak (%65) eta ikastetxeak (%40) baino positiboagoa.*

### 31 Taula

Gogobetetasun maila hainbat espaziotan. Neska-mutilen ehunekoak

	OSO ONDO	ONDO	HOLA-HALA	GAIZKI	OSO GAIZKI
Familian	65	28	6	0	1
Ikastetxean	40	36	15	4	5
Taldean	74	20	5	0	1
Begiraleekin	76	19	3	0	2


*Are gehiago*, neska-mutilen hiru laurdenek diote oso ondo sentitzen direla beren taldeetako begiraleekin dituzten harremanetan, *%19k dio ondo sentitzen dela, %3k hola-hala, eta gainerako %2k oso gaizki (badirudi %2 horrek bat egiten duela ikastetxean eta familian integratzeko eta egokitzeko arazoak dituztenekin).*

Agerian dagoenez, neska-mutilak gustura daude aisialdiko taldeetan; talde horietan gartzten dute nortasuna, harremanak dituzte beren adineko neska-mutilekin, jolasten ikasten dute, eta, azken finean, pertsona izaten ikasten dute. Bi arrazoi daude taldeak eta begiraleek halako balioespen ona eduki izana azaltzeko: alde batetik, aisialdiko taldeetan erabiltzen duten metodologia, eta, beste alde batetik, talde horietan lantzen den hezkuntzaren ikuspegi sozio-afektiboa.

Edonola ere, ez gaitezen inozoak izan; aisialdiko taldeetan egoera asko landu eta eragiten dira ikastetxeetan ezin egin daitezkeenak: metodologiak, jolasak,... Baina eskolan erabil litezke

## 54. grafikoa

Nola zaude...?



BBHrekin zerikusia duten dinamikak eta teknikak, hori guztia bultzatuko dutenak eta neska-mutilen interesa gai horrekiko areagotzen lagunduko dutenak.

### 3.2. BBH lantzeko eskura dauden baliabideak

Aisialdiko talde batek bere jarduerak egiteko erabili ahal dituen eta erabiltzen dituen baliabideen artean, hiru aukeratu ditugu: toki, ekonomia baliabideak eta didaktika materiala.. Giza baliabideak aurretik aztertu ditugu, BBHren aurreko jarduerari buruz galdetu digunean.

32. Taulan jaso ditugu hiru baliabide hauei dagozkien erantzunak (portzentajeen arabera).

*Begiraleen %83k adierazi zuten beren taldeek badutela BBH lantzeko behar beste toki (taldearen lokalak, alokatuak edo norbaitek utziak izan); %62k eta %63k diote ez dutela behar beste diru baliabide eta didaktika material. Aldagai hori gurutzatu genuen BBH lantzen ez duten taldekoenekin, eta ondorioa da toki eta ekonomia baliabideei buruzko emaitzak berdintsuak direla, baina handitu egiten da didaktika material nahiko ez daukatenen portzentajea.*

*Ondorioz, BBHko didaktika material gutxiegi dute, eta, bestalde, ez dute nahikoa diru horren inguruko jarduerak egin ahal izateko; beraz, honako bi neurri hauek hartu beharko lirateke: didaktika materiala (paperean, CD-tan...) argitaratzea eta doan banatzea, batetik, eta, bestetik, halako jarduerak egin ahal izateko dirulaguntza publikoak ematea.*

### 32. Taula


BBH lantzeko eskura dituzten baliabideak. Begiraleen ehunekoak

	TOKIA		EKONOMIA BALIABIDEAK		DIDAKTIKA MATERIALA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
<b>GUZTIRA</b>	<b>83</b>	<b>17</b>	<b>38</b>	<b>62</b>	<b>37</b>	<b>63</b>
<b>LH</b>						
Araba	93	7	33	67	48	52
Bizkaia	84	16	40	60	38	62
Gipuzkoa	73	27	34	66	24	76
<b>ADINA</b>						
18-21 urte	80	20	41	59	46	54
22-25 urte	83	17	36	64	33	67
26 edo + urte	87	13	41	59	29	71
<b>SEXUA</b>						
Gizonezkoa	85	15	42	58	38	62
Emakumea	81	19	35	65	36	64

Dirulaguntzei dagokienez, koordinatu egin litezke hezkuntza ez formalaren dimentsio hori landu nahi duten taldeak eta talde horiek lan egiten duten udalak (edo alderantziz), diruz lagundutako edo elkarren artean finantzatutako moduko ekimenak aurkeztearren. Alegia, komenigarrian izango litzateke ikastetxeak, aisialdiko taldeak eta Udala osatutako sarea sortzea, ekinaldia bateratuagoa izan dadin.

### 55. grafikoa

BBHko jarduerak egiteko, honako baliabide hauek dituzue



Lurralde historikoaren arabera, Arabako begiraleen %93k azaldu zuten lokal egokiak dituztela, eta haiek dira asebeten daudenak. Baina BBHrekin zerikusia duten jarduerak egiteko diru baliabide gutxien darabiltenak dira, bestalde; hala diote, behintzat, %67k. Begirale bizkaitar gutxiagok diote hori (%60). Gipuzkoako begiraleek dute lan hau taldeetan bultzatzeko didaktika material gutxien (%76).

Hiru horietatik eragozpenik handiena zein den erantzuterakoan, emaitzetan aldea dago, adina zein den. Adibidez, 22 urtetik beherako begiraleen ustez, eragozpenik handiena dirurik eza da (%67) arazorik handiena, eta 22 urtetik gorakoan iritziz, berriz, didaktika materialik ez dagoela (%71).

Identifikatzen baditugu hiru baliabide horien hutsunea gehien nabaritzen dutenak, ikusten dugu tokia dela eta kexu gehien dutenak 22 urtetik beherakoak direla (%20); 22-25 urte bitartekoek diru baliabideak aipatzen dute gehien (%64), eta 25 urtetik gorakoek, berriz, didaktika materialak (%71).

Elkarrizketetan aurkitu ditugu galdera sortako erantzunen zergatia. Taldeak konforme dira daukatenarekin, ez, ordea, nahikoa dela uste dutelako, baizik eta taldeak ahul samar daudelako gaur egun. Begirale gazteak ez daude batere ados egoera honekin, eta zaharrenek onartu egiten dute; are gehiago, ez dute asmorik beren lan ildoak aldatzeko.

Taldeetako hainbat arduradunek diote astirik ez izatea dela didaktika materialetan gehiago ez sakontzeko arrazoietako bat: Nahiz eta badituzten materialak eskura, ez dituzte ia batere erabiltzen.

Zenbait taldek adierazi dute ez dutela gustuko formula edo bide itxiekin lan egitea. Nahiago dute helburuak planteatu eta talde bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak aztertu, eta, ondoren, aztertu nola egingo dituzten jarduerak. Hori ohiko ezaugarria da talde gazteetan edo arduradunak aldatu dituzten taldeetan.

Elkarrizketetan, talde gutxik identifikatzen dute tokia aldagai gisa BBH lantzeko. Lokal gehienak parrokienak dira, udalak edo jabe partikularrek utzitakoak (azken horiek gutxiago dira).

Talde gehienek dirulaguntzak jasotzen dituzte udal eta aldundietatik. Oro har, konforme dira urtero jasotzen dutenarekin. Horrek adierazten du nolako jarrera duten taldeek beren jarduera eta programak finantzatzeko.

---

### 3.3. BBHren lan arloak

Atal honetan saiatuko gara identifikatzen aisialdiko taldeek BBHren zein arlo lantzen dute gehien eta gutxien, zein arlok sortzen dute arazo gehien, eta inkestari erantzun diotenaren ustez zein diren garrantzitsuenak.

#### 3.3.1. Gehien eta gutxien lantzen diren arloak

BBH lantzen dutela adierazi duten aisialdiko taldeetan gehien eta gutxien lantzen diren BBHren arloetatik abiatuko gara. Emaitzak 33. Taulan jaso ditugu.

*Ikerketaren helburu diren hiru taldeen ustez, balioetan oinarritutako hezkuntza da gehien lantzen dena. Halaxe adierazi dute begiraleen %68k, gurasoen %62k eta taldeetan diharduten neska-mutilen %45ek.*

*Gehien landutako bigarren arloa da, hiru taldeetako partaideen iritziz, giza eskubideak. Hala erantzun zuten neska-mutilen %29k, gurasoen %25ek eta begiraleen %19k.*

Gainerako arloek erantzun gutxiago jaso dute, eta ez dira %8 baino gehiago izan; gatazkei aurre egiteko modua izan da, hiru taldeen ustez, landuena.

### 33.Taula

BBHK hartzen dituen arloetatik landuena. Frekuentziak eta ehunekoak


	BEGIRALEAK		NESKA-MUTILAK		GURASOAK	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Balioetan oinarritutako hezkuntza	110	68	64	45	60	62
Giza eskubideak	30	19	42	29	24	25
Gatazkei aurre egiteko modua	9	6	10	7	6	6
Antimilitarismoa	4	3	2	1	3	3
Euskal gatazka	3	2	8	6	2	2
Garapenerako lankidetzak	4	2	4	3	1	1
Garapen iraunkorra eta ingurumena	1	0	11	8	1	1
Besterik	0	0	2	1	0	0
ED/EE	3		6		5	
<b>Guztira</b>	<b>164</b>	<b>100</b>	<b>149</b>	<b>100</b>	<b>102</b>	<b>100</b>

Neska-mutilen aburuz, garapen iraunkorra eta ingurumena da landuenetako bat, baina begiraleek ez dute behin ere aipatzen aukera hori; badirudi neska-mutilentzat errazagoa dela gai hori identifikatzea, eta nekezago identifikatzen dituzte, ordea, antimilitarismoa eta beste gai batzuk, inplizituki lantzen direnak.

Faktore askoren esku dago zer landu den hautematea, eta argi dago zenbait gai direla, begiraleen iritziz, gutxien landu direnak, eta neska-mutilen ustez, berriz, landuenerarikoak. Are gehiago, BBHren arloak zein ziren galdetu genienean, gogora dezagun, adibidez, aipamen gutxien jaso zuenatariko bat garapen iraunkorra eta ingurumena izan zela (ikus 1.1.2 atala. BBHren edukiei buruzko ezagutza), eta horregatik apenas adierazi den galdera honetan.

### 56. grafikoa

Taldean gehien lantzen diren arloak



Hala ere, harrigarria iruditu zaigu hiru taldeek horren garrantzi gutxi ematea Antimiliarismoari, Euskal Gatazkari eta Garapen Iraunkorrari. Horrek erakusten du aisialdiko taldeek BBH ikusten dutela gai edo arlo asko lan ditzakeen tresna gisa, baina gai gutxi batzuk lehenesten ditzutela. Edonola ere, gero jakingo dugu emaitza honen zergatia, lantzeko garaian arazo gehien sortzen dituzten gaiak zein diren aztertzerakoan.

Horiek horrela, esan genezake badirela bi gai, aisialdiko taldeek BBH lantzerakoan, toki gehien hartzen dutenak, alegia, Balioetan oinarritutako Hezkuntza eta Giza Eskubideak.

Ondoren, 34. Taula dugu. BBHk hartzen dituen gai guztietatik *gutxien lantzen direnak* identifikatzeko eskatu genien.

Hiru taldeen ustez, Antimilitarismoa da gutxien lantzen den arloa: Hain zuzen ere, neska-mutilen %53k, begiraleen %47k eta gurasoen %44k dute iritzi hori.

Gutxien lantzen den BBHko bigarren arloa da Euskal Gatazka. Iritzi honetan ere bat datoz hiru taldeak; gurasoen %21 eta begirale zein neska-mutilen %20.

### 34. Taula

BBHk hartzen dituen arloetatik gutxien lantzen direnak. Frekuentziak eta ehunekoak

	BEGIRALEAK		NESKA-MUTILAK		GURASOAK	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Antimilitarismoa	70	47	70	53	38	44
Euskal gatazka	30	20	26	20	18	21
Garapen iraunkorra eta ingurumena	24	16	16	12	12	14
Gatazkei aurre egiteko moduak	10	7	4	3	3	4
Garapenerako lankidetzak	8	5	8	6	12	14
Giza eskubideak	7	5	2	2	0	0
Balioetan oinarritutako hezkuntza	0	0	3	2	2	2
Besterik	1	0	3	2	1	1
ED/EE	14		17		16	
<b>Guztira</b>	<b>164</b>	<b>100</b>	<b>149</b>	<b>100</b>	<b>102</b>	<b>100</b>

Espero zitekeen bezala, garapen iraunkorra eta ingurumena da gutxien lantzen den hirugarren arloa: portzentajeak %12-%16 bitartekoak dira.


Begiraleen ustez, gatazkei aurre egiteko moduak gutxi lantzen da (%7); berdintsu uste dute neska-mutilek (%3) eta gurasoek (%4). Azken horien iritziak, garapenerako lankidetzak ere ez da askorik lantzen, %14k hala adierazi baitzuten. Gai hori hirugarren tokian jarri zuten, beraz, garapen iraunkorra eta ingurumenarekin batera.

Ikusten denez, antzeko iritziak dituzte hiru taldeetan: BBHrekiko konpromiso eza erakusten du horrek, batez ere antimilitarismoaren, euskal gatazkaren eta garapen iraunkorraren gaiak dagokienez.



## 57. grafikoa

Taldean gutxien lantzen diren arloak



### 3.3.2. Arazo gehien sortzen dituzten lan arloak

Lehenago ere aipatu dugunez, oraindik azaltzeke daukagu BBHren zein arlok sortzen duen arazo gehien lantzerakoan. 35. Taulan agertzen dira datuak. Kasu guztiak daude jasota, eta ez ditugu iragazi BBH lantzen ez zutela aitortu zutenen erantzunak. Hala egin genuen, jakin nahi genuelako ea bazen erlaziorik gaiak lantzeko zailtasunaren eta gai horiek lantzen dituzten maiztasunaren artean.

## 35. Taula

BBHren arloak lantzerakoan, arazo gehien sortzen dituztenak. Frekuentziak eta ehunekoa


	BEGIRALEAK		NESKA-MUTILAK		GURASOAK	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Euskal gatazka	98	27	66	23	75	34
Gatazkei aurre egiteko modua	55	15	48	16	37	17
Balioetan oinarritutako hezkuntza	53	14	33	11	19	9
Antimilitarismoa	46	12	36	12	31	14
Giza eskubideak	32	9	34	12	17	8
Lankidetzarako garapena	32	9	11	4	13	6
Garapen iraunkorra eta ingurumena	22	6	11	4	6	3
Beste batzuk: politika, tolerantzia, drogak, norberaren ideiak adieraztea, enpatia	32	8	51	18	19	9
ED/EE	224		263		208	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>

Euskal Gatazka da BBHren arloetatik lantzeko arazotsuena begiraleen %27ren ustez, gurasoen %34ren ustez eta neska-mutilen %23ren iritziz. Bigarrena, gatazkei aurre egiteko moduak da. Hori erantzun zuten, behintzat, begiraleen %15ek, neska-mutilen %16k eta gurasoen %17k.

Arazoak sortzen dituzten arloen artean, taldeak ez ziren iritzi berekoan hirugarren tokiari dagokionez. Begiraleek adierazi zuten balioetan oinarritutako hezkuntza dela (%14); familiek eta neska-mutilek, berriz, Antimilitarismoa aipatu zuten (%14 eta %12, hurrenez hurren). Bestalde, neska-mutilen %12k giza eskubideak aipatu zuten.

58. grafikoa

Arloak lantzerakoan, zeinek sortzen du arazo gehien?



Edonola ere, gai hau sakon aztertu nahi dugunez, galdera honetako eta aurreko erantzunak gurutzatuko ditugu; aurreko erantzunetan ondorioztatu genuen zein ziren gutxien lantzen diren gaiak (36. Taula).

Antimilitarismoa arazo gehien sortzen duen gaietariko bat dela esan zuten begiraleen artean, %47 irizten zuten gutxien lantzen direnetakoa dela. Gutxi lantzen da, beraz, zaila delako lantzen.

Gauza bera gertatzen de, nahiz eta neurri txikiagoan gertatu, giza eskubideekin, euskal gatazka-rekin, garapenerako lankidetzarekin eta garapen iraunkorra eta ingurumenarekin. Zehaztearren, begiraleen %21en iritziz, euskal gatazka da arazo gehien sortzen duten hiru gaietariko bat, eta aitortzen dute ez dutela askorik lantzen aisialdiko taldean; hau da, hortaz, arrazoi horrengatik lantzen ez den bigarren arloa. Hirugarrena giza eskubideak dira; hori ere gutxi lantzen dute, zaila delako (%20).

Arrazoi hori berori aplikatu behar zaie garapen iraunkorra eta ingurumenari (%18) eta garapenerako lankidetzari (%16) ere.

Taldeetan lehenengo eta hirugarren lantzen dira gehien balioetan oinarritutako hezkuntza eta gatazkei aurre egiteko erak, eta hala ere, arazo gehien ematen dituztenen artean daude, 2. eta 3., hurrenez hurren. Hala bada, zailak izan arren landu egiten dira, garrantzitsuak baitira.

Ondorio gisa, esan daiteke gure gizartean eztabaida handia pizten duten gaietan dituztela taldeek arazo gehien lantzerakoan. Gai horiek dira, hain zuzen, Antimilitarismoa, Giza Eskubideak

### 36. Taula

BBHko arloen artean zailenak lantzen eta gutxien lantzen direnak.  
Begiraleen ehunekoak

Gutxien lantzen diren arloak	Arazo gehien sortzen duten arloak						
	Giza eskubideak	Antimilitarismoa	Euskal gatazka	Gatazkei aurre egiteko era	Balioetan oinarritutako hezkuntza	Garapenerako lankidetzak	Garapen iraunkorra eta ingurumena
Giza eskubideak	20	0	5	10	6	3	4
Antimilitarismoa	47	47	45	60	43	45	64
Euskal gatazka	10	24	21	11	30	13	14
Gatazkei aurre egiteko era	7	11	8	6	2	7	0
Balioetan oinarritutako hezkuntza	0	0	0	0	0	0	0
Garapenerako lankidetzak	3	4	7	4	2	16	0
Garapen iraunkorra eta ingurumena	13	13	13	10	15	13	18
Besterik	0	0	1	0	2	3	0
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*eta Euskal gatazka.* Hemen paradoxa gertatzen da, izan ere eskatu genienean ea zein arlo biltzen dituen BBHk, arlo horietan izan ziren aipatuenak (ikus 1.1. Kapitulua, bizikidetzak eta bakerako hezkuntza). Begiraleen ustez, BBHren edukirik ezagunenak ziren *giza eskubideak* (595), *balioetan oinarritutako hezkuntza* (%91), eta *gatazkei aurre egiteko era* (%88).

#### 3.3.3. Lan arloen garrantzi maila

BBHren lan arloei eskainitako atal hau bukatzeko, aztertuko dugu ea inkestari erantzun ziotenek nola balioesten dituzten interes arloetariko bakoitza. 37. Taulan bildu ditugu talde bakoitzean arlo bakoitzak lortu dituen batez bestekoak (0tik 10erako eskalan).

Ikusten denez, talde guztiak bat datoz BBHren zein arlo den garrantzitsuena esaterakoan; egia da begiraleek lehenetsi zutelako balioetan oinarritutako hezkuntza (batez bestekoa, 9,03), eta giza eskubideak aipatu zutelako bigarren; guraso eta neska-mutilek giza eskubideak jarri zituzten lehenengo tokian (8,96 eta 8,94, hurrenez hurren), eta bigarren tokian, berriz, balioetan oinarritutako hezkuntza.

Hala bada, bi arlo horiek hartzen dituzten lehenengo bi tokiak talde guztietan. Hirugarren tokian ere iritzi berekoak dira, hiru taldeek aipatu baituzten gatazkei aurre egiteko modua. Ondorengoetan ere bat zetozen: euskal gatazka, garapenerako lankidetzak eta garapen iraunkorra eta ingurumena.

Edonola ere, nabarmenarazi nahi dugu gatazkei aurre egiteko era garrantzi gutxiago duela neska-mutientzat (7,45) gainerakoentzat baino; era berean, gurasoen ustez, euskal gatazka ez du begiraleek ematen dioten besteko garrantzia (7,2 eta 8,17); azkenik, begiraleen aburuz Garapen Iraunkorrak garrantzi txikiagoa du.

### 37. Taula


BBH osatzen duten arloen garrantzia balioesterakoan, zein garrantzi maila duten.  
Batez bestekoak 0-10 eskalaren arabera

	BEGIRALEAK	NESKA-MUTILAK	GURASOAK
Giza eskubideak	8,92	8,94	8,96
Balioetan oinarritutako hezkuntza	9,03	7,89	8,84
Gatazkei aurre egiteko era	8,59	7,45	8,13
Euskal gatazka	8,17	7,35	7,20
Garapenerako lankidetzak	7,82	7,46	7,99
Garapen iraunkorra eta ingurumena	7,30	7,48	7,43
Antimilitarismoa	6,63	6,15	6,21
Besterik	5,42	4,75	7,27

Ondoren azaltzen den grafikoan ikusten dira arestian aipatutako aldeak.

### 59. grafikoa

BBHren arloen garrantzia



### 3.4. BBHren alderik sendoenak eta ahulguneak


Atal honetan saiatuko gara identifikatzen BBHren alderik indartsuenak eta ahulguneak aisialdiko taldeetan.

Horretarako, galdera sortan eskatu genien, bai begiraleei eta bai gurasoei ere, guk emandako baieztapen batzuei buruzko iritzia eman zezatela. Beren adostasuna edo desadostasuna agertu behar zuten, 0-10 eskala baten arabera.

### 3.4.1. Begiraleen iritzia

60. grafikoa azaltzen da, begiraleek emandako erantzunak aztertu ondoren, zenbateraino dauden ados esandako baieztapenekin.

Lau baieztapenekin adostasun handia erakutsi dute, 7 eta 8,1 artean, 0-10eko eskalan; item horiek osatzen duten blokean, begiraleen iritzia aldekoa eta homoginoa da.



Hain zuzen ere, begiraleak oso ados daude honako baieztapen honekin: *Begiraleek BBHren aldeko jokabide eta balio positiboak bultzatzen dituzte neska-mutilengan*. Batez bestekoa 8,1 izan zen. Horrek erakusten digu zenbat lan egiten duten taldeek balioetan oinarrituta hezteko.

Bigarren baieztapena, batez bestekoa 7,8 zuena, honakoa zen: *taldearen testuinguru soziopolitikoa BBHren aldekoa da nagusiki*. Hau da, *taldearen testuinguru sozio-politikoak erraztu eta motibatu egiten du BBH lantzea*.

Eta hirugarren tokian bi baieztapen ziren, ia-ia adostasun maila bera lortu dutenak (7,1 eta 7, hurrenez hurren): *BBH taldearen Hezkuntza Proiektuan jasota dago*, eta *BBH talde osoan lantzen da*. Hau da, taldeen BBH jasotzen dute beren hezkuntza proiektuetan, eta ez dute hori ahazten; etengabe lantzen dute eta taldearen maila guztietan (begiraleen taldeetan, neska-mutilekin, gurasoekin...)

Bada bigarren bloke bat, zeinetan *adostasun maila txikiagoa izan* den: item horiek dira taldeetan BBH zeharka lantzeari buruzkoak, *BBH zeharka lantzen da* (6,6), BBHren esparruan ba-

naka egiten den lanari buruzkoak, *Taldeak lan egin edo ez, ni, behintzat, aritzen naiz (6,4)*, eta taldeak zenbaterainoko sentsibilitatea duen BBHrekiko, *nire taldea oso sentsibilizatuta dago BBHrekin*.

Hirugarren blokean bi item dira, ozta-ozta gainditzen dutenak: *taldeak lehentasuna ematen dio BBHri; eta, koordinatzaileek BBHren aldeko motibazioa lantzen dute*. Hala bada, begirale gehienek uste dute neska-mutilengan BBHren aldeko jarrera eta balio positiboak bultzatzen direla (8,1); hala ere, aitortzen dute taldeak ez duela BBH lehenesten, eta, beraz, koordinatzaileek ez dutela lan handirik hartzen lan hori motibatzearen.

Azaletik begiratuta arazoa dirudi, baina ikuspegi positiboa ere eskain dezake: BBH ez da lehenesten eta ez zaio ahalegin handirik eskaintzen, baina talde gehienek hezkuntza proiektuetan dago jasota eta maila guztietan lantzen dute; beraz, helburua betetzen dute, nahiz eta, gure ustez, askotan inkontzienteki betetzen den. Beste era batera esanda, BBH taldearen bizitzan txertatuta dago, baina ez zaio ez izenik ezta forma jakinik ere ematen; hor dago, eta nabaria da; are gehiago, neska-mutilek eta gurasoek berek ere nabaritzen dute.

Begiraleak ez daude ados beste baieztapen batzuekin, alegia, BBHren inguruan nahiko prestakuntza berariazkoa dagoela dioen baieztapenarekin (4,3), batetik, eta, bestetik, taldeak gertaera sozio-politiko garrantzitsuen aurrean jarrera bateratua hartzen duela dioen baieztapenarekin (4.5)<sup>1</sup>.

38. Taulan bildu ditugu jarreraren batez bestekoak; hiru aldagai hartu ditugu kontuan: Lurralde Historikoa, adina eta sexua.

Taula horretan ikusten dugunez, ez dago alde nabarmenik sexuari eta adinari dagokienez; lurralde historikoa zein den kontuan hartuz gero, ordea, badirudi bi itemi emandako erantzunek zerikusia dutela aldagai horrekin.

Hain zuzen ere *begiraleok ez dugu nahiko prestakuntza BBHren inguruan eta taldean lan egin edo ez, ni, behintzat, aritzen naiz* itemak dira.

Lehenengoari dagokionez, Gipuzkoako begiraleak dira (6,7) BBHri buruzko berariazko prestakuntza falta dutela gehien aipatzen dutenak; Bizkaikoen artean, 5,6 da batez bestekoa, eta Araban, 4,5. Azken horiek daude asebeten jasotzen duten prestakuntzarekin.

BBHrekiko konpromisoa dela-eta, norberaren konpromisoa, antzematen da taldearen jorera orokorra edozein dela ere, Arabako begiraleek jotzen dutela esplizituago BBH lantzearen alde; ondorio hori atera dugu itemari emandako erantzunak ikusita, hain zuzen ere 7,4. Eta hemen ere, Gipuzkoako begiraleek Arabarrek eta Bizkaitarrek<sup>2</sup> baino BBHrekiko konpromiso pertsonal txikiagoa erakutsi dute.

Bestalde, adierazi behar dugu taldearen testuinguru sozio-politikoari buruzko itema dela eta, datuak oso antzekoak direla lurralde historiko guztietan: Bizkaian 7,7, Araban 7,9 eta Gipuzkoan 8.

<sup>1</sup> Bi esaldi hauek ezezkoak ziren, erantzunen monotonía haustearren (ikus taula); datuen iruzkina egiteko, ordea, baiezko bihurtu ditugu 1) *Begiraleok ez dugu BBHri buruzko nahiko prestakuntza*; eta 2) *Taldeek ez dute jarrera bateratuarik hartzen gertaera sozio-politiko garrantzitsuenen aurrean*.

<sup>2</sup> Hori dela-eta, aipatu beharra dago parrokia taldeak direla Araban %99, Gipuzkoan %88 eta Bizkaian %14.

### 38. Taula

Adostasun desadostasun maila ondorengo esaldiekkin. Begiraleen batez bestekoak

A. INDEPENDIENTEAK	Sentsibi- litatea	Hezkuntza proiektua	Lehen- tasuna	Zeharkako- tasuna	Motibazioa	Taldea	Jarreak eta balioak	Prestakuntza urria	Banakako lana	Aldeko testuinguru sozio-politikoak	Jarrera bateraturik ez
<b>BATEZ BESTEKOA</b>	6,0	7,1	5,3	6,6	5,7	7,0	8,1	5,7	6,4	7,8	5,5
<b>LH</b>											
Araba	6,6	8,0	6,1	6,6	6,7	7,6	8,3	4,5	7,4	7,9	4,9
Bizkaia	6,0	6,8	5,2	6,5	5,5	6,9	8,1	5,6	6,3	7,7	5,6
Gipuzkoa	5,5	7,2	5,0	7,1	5,5	6,8	8,3	6,7	5,6	8,0	5,7
<b>ADINA</b>											
18-21 urte	5,8	7,4	5,5	6,0	5,7	7,1	8,1	5,2	6,5	7,2	5,6
22-25 urte	6,2	7,0	5,2	7,0	5,7	6,9	8,1	6	5,9	8,0	5,1
26 edo + urte	5,8	6,6	5,3	6,7	5,4	6,9	8,2	5,9	7,0	8,2	6,5
<b>SEXUA</b>											
Gizonezkoa	5,9	7,1	5,6	6,6	5,9	7,1	8,3	5,7	6,4	7,8	5,3
Emakumea	6,1	7,0	5,1	6,6	5,4	6,8	8,0	5,7	6,2	7,8	5,8

### 39. Taula

Adostasun /desadostasun maila ondorengo esaldiekkin. Gurasoen batez bestekoak

	Sentsibilitatea	Hezkuntza proiektua	Ez du ahalbidetzen parte hartzea	Gurasoen parte hartzea	Begiraleen prestakuntza eza	Begiraleak jarrera/balio positiboak	Jarrera bateratirik ez eta balioak	Aldeko testuinguru sozio-politikoak
<b>GUZTIRA</b>	6,60	7,12	2,59	4,33	3,83	8,69	5,64	7,73
<b>LH</b>								
Araba	6,69	8,27	3,13	4,13	4,75	8,50	5,85	8,21
Bizkaia	6,65	7,03	2,57	4,69	3,60	8,81	5,89	7,77
Gipuzkoa	6,28	6,6	2,25	3,13	4,05	8,30	4,44	7,18
<b>ADINA</b>								
30-39 urte	7,18	7,14	3,13	4,54	4,96	8,24	6,60	7,52
40-49 urte	6,38	6,97	2,31	4,34	3,57	8,81	5,50	7,79
50 edo + urte	6,83	7,80	3,11	4,00	3,41	8,79	5,00	7,72
<b>SEXUA</b>								
Gizonezkoa	6,24	6,78	2,83	4,23	3,43	7,84	5,84	7,85
Emakumea	6,83	7,35	2,44	4,38	4,08	9,25	5,48	7,67



### 3.4.2. Gurasoen iritzia

Hirugarren kapitulu hau amaitzeko, *gurasoei buruzko datuak* azalduko ditugu (39. Taula). Guraso guztien erantzunak dira oso antzekoak, Lurralde Historikoa, adina eta sexua edozein dela ere. Horregatik, hain zuzen, datu orokorrak baizik ez ditugu azalduko.

Zenbait item aldatu egin genituen, alegia, ez ziren begiraleei egin genizkienak; beste era bateko galderak egin nahi izan genituen, eta baztertu egiten genituen gurasoek ez dakizkiten gaiei buruzkoak. Adibidez, jarri genien *Begiraleen taldeak ez du ahalbidetzen gurasoen parte hartzea* itema, bai eta *guraso gehienek hartzen dute esku taldearen jardueretan* zioen itema ere.

Begiraleek gurasoen esku-hartzea ahalbidetzen ote duten jakiteko egin genien erantzunaren kasuan, esan daiteke gurasoak ados daudela, izan ere batez bestekoa, 0-10eko eskalan, 2,59 izan zen itema, ezezkoan baitzegoen; Beste era batera esanda, batez bestekoa 7,41 izan zen.

Hala ere, galdetu genien ea guraso gehienek esku-hartzen ote duten taldearen jardueretan, eta erantzunaren batez bestekoa 4,33 izan zen; hau da, baieztapenarekiko desadostasuna erakutsi zuten.

Gainerako itemak begiraleen galdera sortan ere bazeuden, eta antzematen denez, begiraleen eta gurasoen erantzunak ez datoz bat.


Zehatzago esatearren, batez besteko altuagoa dute gurasoek (6,6) begiraleek baino (6) *euren seme-alabaren taldean sentsibilitate maila handia dago BBHren inguruan* itemaren kasuan; bestalde, *gurasoek 8,69ko batez bestekoa dute Begiraleek BBHren aldeko jarrera eta balio positiboak bultzatzen dituzte neska-mutilengan itemean*, eta begirale taldeetakoak, berriz, 8,1ekoa izan zen.

Edonola ere, neska-mutilen taldeetako begiraleek BBHren inguruan jasotzen duten prestakuntzari buruz, askoz ere iritzi positiboagoa dute gurasoek begiraleek berek baino. Hala bada, begiraleek 5,7 jarri zioten berariazko prestakuntza ezari, eta gurasoek, berriz, 3,83.

Beste item batzuetan, aldiz, ez dute jarrera berdina izan; adibidez, honakoetan: *BBH taldearen hezkuntza proiektuan dago jasota, taldeak ez du jarrera bateraturik hartzen gertaera sozio-politiko garrantzitsuen aurrean eta taldearen testuinguru sozio-politiko BBHren aldekoa da nagusiki*.

61. grafikoa

Adotasun/desadostasun maila



Azken itema dela-eta, adierazi nahi dugu Arabako familiak direla, gehienbat, diotenak taldearen testuinguru sozio-politikoaren aldekoa dela nagusiki; Gipuzkoan ere altua da batez bestekoa, 7,18. (Gogora dezagun begiraleei galdetu genienean batez bestekoak askoz ere antzekoagoak zirela; eta horrez gain, Gipuzkoako zerbaitek altuxeagoa zen).

Bukatzeko, esan behar dugu begiraleak kritikoagoak direla beren buruarekin gurasoak baino. Eta, bereziki, kritikoagoak dira BBHren prestakuntzari dagokionez, gai hori lantzeko sentsibilitateari dagokionez, bai eta taldeek bultzatzen dituzten jarrera eta balio positiboak dagokionez ere.

Badira beste zenbait aldagai kontuan hartu beharrekoak, azaldu direnak elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan. Sintesi gisa, adieraziko dugu gehienek uste dutela taldearen, eta, oro har, gizartearen alderik indartsuenak direla motibazioa, BBH lantzeko gogoia eta bizi dugun egoera konpontzeko alternatibak aurkitzeko gogoia.

Horrez gain, esparru ez formalean hezkuntzari ahalbidetzen elementu gisa ikusten dituzte talde-lanean oinarritutako metodologia, laguntza pertsonala eta hezitzaile-ikasle harremana.

Talde askok agertu dute indarkeria-ezaren aldeko jarrera, eta erakusten dute euskal gatazkarekiko interesa, bai eta gatazkei aurre egiteko prestakuntzaren aldeko jarrera ere; nahi dute neska-mutilek ikas dezatela giro onean bizitzen, eta konpon ditzatela beren arazoak indarkeria erabili gabe.

Eztabaida taldeetan beste lan ildo bat ere nabaritzen da, alegia esperientzia berriak sustatzen dituzte eta arazoak auzoko gainerako taldeekin lantzen dituzte. Lankidetzan ari dira beste elkarrekin (auzo elkarrekin, guraso elkarrekin, aisialdiko beste talde batzuk...).

Taldeek, oro har, aitortzen dute BBHren inguruko lanaren ahulguneak direla gaiaren beraren zabaltasuna eta handitasuna. Mugatuta ikusten dute beren burua bai prestakuntzaren bai eta baliabideen arloetan gaiari behar bezala ekin ahal izateko. Talde batzuek ez daukate astirik BBHren edukiak asimilatzeke eta, ondoren, asteroko jarduerak eta dinamiketan aplikatzeko.

Ibilbide luzea egin duten taldeek azaldu zuten taldearen inertzia bera dela ahulgunea. Gauzak egiteko modua aldeztu aurretik ezartzeak sormena eta berrikuntza galarazten ditu BBHko jarduerak programatzerakoan.

Ia talde guztiek adierazi zuten BBH zeharka lantzen dutela. Hori ahulgunetzat hartzen dute, ardatza izanik, taldeek ez baitiote arreta berezirik eskaintzen, eta zeharkakotasunak gaia bazterrean uztea dakar.

Beste ezaugarri orokor bat da BBH une jakin batzuetan lantzen dela. Taldeek ez dute sistematikotasunez lantzen BBH.

Bestalde, taldeek aitortu zuten ikastetxeetatik isolatuta daudela. Gurasoen esku-hartzea dela-eta, urria iruditzen zaie, eta nahiko lukete gurasoek gehiago parte hartzea.



# Orientabideak. Beharrak eta eskaerak



Ikerketa honen 4. kapituluaren agerraziko dugu aisialdiko taldeek zein behar eta eskaera duten BBHren esparruan.

Aztergai izango ditugun arloek zerikusia dute azpimarratu nahiko lituzkeen BBHko arloekin, gehiago landu nahi dituzten arloekin, prestakuntza eta informazioa jaso nahi duten arloekin... eta, ondoren, saiatuko gara identifikatzen zein neurri hartu behar den BBHren inguruko lana hobea izan dadin EAEko aisialdiko taldeetan.

- 4.1. BBHn gehiago sakondu beharreko gaiak.
- 4.2. Prestakuntzara bideratutako beharrak eta eskaerak:
  - 4.2.1. Prestakuntza planetan jasotako BBHri buruzko berriak saioak.
  - 4.2.1. Gurasoen inplikazio handiagoa BBHri buruzko prestakuntzaren arloan.
- 4.3. Hartu beharreko neurriak.

---

## 4.1. BBHn gehiago sakondu beharreko gaiak

Hiru galdera sortetan galdetu genien ea BBHrekin zerikusia duten zein arlo sakondu edo landu beharko litzatekeen gehiago. Erantzunak 40. Taulan jaso ditugu, eta bereizita daude begiraleek, neska-mutilek eta gurasoek emandako erantzunak.

Galdera irekia egin genien, ez zezaten mugarik izan; horregatik, galdera bakoitzean lortutako batukarien frekuentzia handiagoa da egindako inkesta kopurua baino; hala gertatu da aurreko ataletan ere galdera irekian izan direnean.

*EAEko aisialdi taldeetako begiraleen ustez, tolerantzia eta begirunea dira gehien landu beharrekoak (%18); begiraleen ustez Bakea hitzak zer iradokitzen ziren galdetu genienean ere, horixe izan zen erantzun gehien lortu zuena (%25) (ikus 1.2.1 Kap. Bakeari lotutako ideiak).*

Gehien landu behar den bigarren arloa da giza eskubideena, aipameneren %15. Erantzun hau zehatzago ere eman zuten, azpimarratu egin baitzituzten inmigrazioa, arrazakeria eta xenofobia.

Hirugarren tokian hiru gai azaltzen dira, hirurek ere antzeko portzentajea lortu baitute: balioetan oinarritutako hezkuntza (%12), elkartasuna eta garapenerako lankidetzak (%11), eta gatazkak konpontzeko bideak (%10).

#### 40. Taula


BBHrekin zerikusia duten gaietatik taldeetan gehiago sakondu beharko liratekeenak.  
Frekuentziak eta ehunekoak

	BEGIRALEAK		NESKA-MUTILAK		GURASOAK	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Tolerantzia, begirunea	77	18	19	5	45	15
Giza Eskubideak (inmigrazioa, arrazakeria)	62	15	84	24	45	15
Balioetan oinarritutako hezkuntza	50	12	19	5	38	13
Elkartasuna, lankidetzatza	49	11	27	8	40	14
Gatazken konponbideak	44	10	15	4	17	6
Elkarrizketa	33	8	10	3	18	6
Euskal gatazka	30	7	40	12	12	4
Bizikidetzatza	11	3	20	6	16	5
Indarkeria-eza	15	3	32	9	11	4
Adiskidetasuna	5	1	7	2	2	1
Besterik	52	12	79	22	51	17
ED/EE	166		203		131	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>555</b>	<b>100</b>	<b>426</b>	<b>100</b>

Badira beste gai batzuk etorkizunean BBH sakontzekotan kontuan hartu beharrekoak, esaterako, Elkarrizketa (%8) eta Euskal gatazka (%7).

#### 62. grafikoa


BBHrekin zerikusia duten gaietatik gehiago sakondu beharko liratekeenak. Begiraleak



Ez dirudi begiraleek indarkeria-eza eta adiskidetasuna lehenesten dituztenik, horiek baitira aisialdiko taldeetan ezagunenetakoak eta landuenetakoak ere bai. Gainera, BBHri buruzko pres-takuntza plan gutxi badago ere, hortxe daude jasota; hala ere, esan beharra dago bi gai horiek bere baitan hartzen dituela balioetan oinarritutako hezkuntzak.


**63. grafikoa**

BBHrekin zerikusia duten gaietatik gehiago sakondu beharko liratekeenak. Neska-mutilak



**64. grafikoa**

BBHrekin zerikusia duten gaietatik gehiago sakondu beharko liratekeenak. Gurasoak



Neska-mutilen erantzunei dagokienez, aipatu behar dugu begiraleena baino askoz ere sakanatuago daudela; edonola ere, giza eskubideen gaia eskatzen dute gehien beren prestakuntza osatu ahal izateko; erantzunen %24 jaso ditu.

Erantzun gehien jaso duen bigarren gaia izan euskal gatazka (%12). Taldeetan hori ere landu behar dela uste dute gazteek; bestelako iritzia dute begiraleek, eta, bereziki, gurasoek, azken horien erantzunetan %4 aipamen jaso baititu.

Indarkeria-eza eta elkartasuna-garapenerako lankidetzak aukerak %9k eta %8k aukeratu dituzte, hurrenez hurren. Gainerako erantzunek ez dute %6tik gorako portzentajerik.

Familiak eta begiraleak bat datoz esaterakoan BBHn sakondu beharreko gairik interesgarrienak direla tolerantzia-begirunea, eta, berriz ere, giza eskubideak. Biek lortu zuten portzentaje bera, %15, alegia. Hurbil-hurbil zituzten beste aukera batzuk, esaterako, elkartasuna-garapenerako lankidetzak (%14) eta balioetan oinarritutako hezkuntza (%13). Gainerako aipamenak ez ziren %6tik gorakoak.

*Ondorio gisa, esan behar dugu giza eskubideak, tolerantzia-begirunea eta elkartasuna-lankidetzak direla, hurrenkera horretan, BBHrekin zerikusia duten arloetatik gehien sakondu beharrekoak aisialdiko taldeetan, betiere inkestari erantzun ziotenen arabera.*

---

## 4.2. Prestakuntzara bideratutako beharrak eta eskaerak

Aisialdiko taldeek sentitzen dituzten beharrak zein diren antzematen jarraituko dugu: Hala bada, prestakuntza beharrari buruzko datuak emango ditugu.

Lehenengo eta behin, aztertuko dugu ea beharrik dagoen edo ez dagoen begiraleen prestakuntza planetan BBHko berariazko saioak emateko; ondoren, gurasoek beretzat eta beren seme-alabentzat BBHren inguruan zer eskatzen duten analizatuko dugu; eta hirugarren, taldeek, BBH dela-eta, zein neurri edo jokabide hartu beharko luketen ikusiko dugu.

### 4.2.1. Prestakuntza planetan jasotako BBHri buruzko berariazko saioak

Hasteko, galdetu genien ea begiraleen prestakuntza prozesuan ba ote zegoen beharrik BBHri buruzko berariazko saiorik sartzeko; 41. Taulan jaso dugu begiraleek eta gurasoek emandako erantzunak.

Begiraleen %88k uste dute beharrezkoa dela beren prestakuntza planetan sartzeko BBHri buruzko saio berariazkoak; alegia, gaia espresuki landuko duten espazioa, alegia, prestakuntzako curriculum-prozesuan zuzen, zeharka edo monografikoen bidez landuko den tokia.

Arabako begiraleak dira behar horren premia (berariazko prestakuntza jasotzea prestakuntza planetan) gehien sentitzen dutenak (%96); Gipuzkoan eta Bizkaian behera egiten dute portzentajeek, %88 eta %86, hurrenez hurren.

Gurasoei dagokienez, begiraleen antzeko portzentajeak dituzte: %87ren ustez, beharrezkoa da berariazko saioak sartzeko begiraleen prestakuntza saioen barruan, eta gainerako %13k ezetz uste dute. Hala ere, begiraleen kasuan ez bezala, Lurralde Historikoak kontuan hartuz, Gipuzkoako gurasoek uste dute gehien, %92k, beharrezkoa dela halako prestakuntzaren alde egitea.


#### 41. Taula

Begiraleen prestakuntza planetan BBHko berriazko saioak sartzeko beharra.  
Begirale eta gurasoen ehunekoak


A. INDEPENDIENTEAK	BEGIRALEEN IRITZIA		GURASOEN IRITZIA	
	BAI	EZ	BAI	EZ
<b>GUZTIRA</b>	88	12	87	13
<b>LH</b>				
Araba	96	4	81	19
Bizkaia	86	14	87	13
Gipuzkoa	88	12	92	8
<b>ADINA</b>				
18-21 urte <sup>1</sup> /30-39 urte	89	11	87	13
22-25 urte/40-49 urte	87	13	86	14
26 edo + urte/50 edo + urte	87	13	90	10
<b>SEXUA</b>				
Gizonezkoa	89	11	89	11
Emakumea	87	13	86	14

#### 65. grafikoa

Beharrezkoak dira BBHri buruzko berriazko saioak begiraleentzako prestakuntza planetan? Begiraleak



Beharrezkoak dira BBHri buruzko berriazko saioak begiraleentzako prestakuntza planetan? Gurasoak



Beraz, badirudi ez datozela guztiz bat Arabako begiraleek sentitu eta gurasoek antzematen dutenaren artean, izan ere gurasoen %86k uste dute sartu behar direla BBHko berriazko saioak, eta begiraleen artean, berriz, %96k. Gipuzkoan alderantziz gertatzen da: gurasoek gehiago antzematen dute behar horren premia (%92) begiraleek sentitzen dutena baino (%88).

<sup>1</sup> Lehenengo adin tarte begiraleena, eta bigarrena gurasoena.



#### 4.2.2. Gurasoen inplikazio handiagoa BBHri buruzko prestakuntzaren arloan

Begiraleei galdetu genien ea gurasoek eskatzen dieten beren seme-alabentzat eta begiraleentzat berentzat ere BBHri buruzko prestakuntza. Hurrengo lerroetan azalduko dugu begiraleen erantzunei buruzko datuak.

42. Taulan ikusten denez, begiraleen %67ren iritziz, gurasoek ez diete BBHri buruzko prestakuntzarik eskatzen beren seme-alabentzat; are handiagoa da portzentajea (%87), gurasoei berei zuzendutako prestakuntzarik eskatzen ote duten galdetu genienean.

Horiek horrela, badirudi gurasoek nahiago dutela begiraleek BBHren inguruko prestakuntza jasotzea, eta, bigarren, beren seme-alabek ere halako prestakuntza jasotzea, gurasoek berek jasotzea baino. Beste era batera esanda, seme-alabak taldeetan daudenean begiraleek hezten dituztenez, gurasoak lasaiago daude baldin badakite begiraleek prestakuntza eta eskarmentu nahikoa daukatela, eta ez diote halako garrantzirik ematen beren parte hartzeari.

Horrengatik guztiarengatik, funtsezkoa iruditzen zaigu azpimarratzea zein garrantzitsua den gurasoek taldean parte hartzea, erantzukizuna inoren eskutan utzi gabe, gurasoek interesa erakuts dezaten BBHren arloko lana dela-eta, motibazioa eduki dezaten jardueretan esku hartzeko...

Hori lortuko bada, bide bat izango litzateke taldeetako gurasoei zuzendutako prestakuntza saioak antolatzea, beste saio batzuk antolatzea guraso eta begiraleentzat, eta beste batzuk guraso eta seme-alabentzat; helburua izango litzateke familia osoa integratzea taldean eta, bestalde, BBHko lana eta prestakuntza bultzatzea.

Lan saio horiek ez lirateke estatikoak eta aspergarriak izan beharko; alderantziz, dinamiakoak, parte hartzekoak, atseginak... laburbilduz, berriro parte hartzeko gogoia eragin behar dute.


#### 42. Taula

Gurasoek, BBHren prestakuntzaren arloan, beren seme-alabentzat eta berentzat ere eskatzen dutena. Begiraleen iritzien ehunekoak

A. INDEPENDIENTEAK	SEME-ALABENTZAKO PRESTAKUNTZA		GURASOENTZAKO PRESTAKUNTZA	
	BAI	EZ	BAI	EZ
<b>GUZTIRA</b>	<b>33</b>	<b>67</b>	<b>13</b>	<b>87</b>
<b>LH</b>				
Araba	39	61	8	92
Bizkaia	34	66	15	85
Gipuzkoa	23	77	10	90
<b>ADINA</b>				
18-21 urte	43	57	21	79
22-25 urte	26	74	11	89
26 edo + urte	34	66	7	93
<b>SEXUA</b>				
Gizonezkoa	34	66	10	90
Emakumea	33	67	16	84

### 66. grafikoa

Gurasoek BBHri buruzko prestakuntza eskatzen dute berentzat eta beren seme-alabentzat?



Hala ere, *gurasoek* zer eskatzen duten jakiteko, ez dugu begiraleen iritzia soil-soilik kontuan hartu behar; horregatik galdetu genien gurasoei ere ea uste ote zuten parte hartu behar zutela BBHko prestakuntza saioetan.

Jasotako erantzunak ikusita, bada arrazoirik ahalegina egiteko familiek BBHko prestakuntza jaso dezaten, izan ere *inkestari erantzun zioten gurasoen artean, %84k uste dute parte hartu beharko luketela BBHko prestakuntzan.*

Taldeetako prestakuntzaren barruan programa hauek sartuz gero (bai barne prestakuntza eta bai kanpo prestakuntzan ere), badirudi gurasoek gustua hartuko luketela parte. Dena dela, ez

### 43. Taula

Gurasoek BBHko prestakuntza saioetan parte hartu beharko luketen balioestea.  
Gurasoen ehunekoak


A. INDEPENDIENTEAK	BAI	EZ	GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>	84	16	100
<b>LH</b>			
Araba	87	13	100
Bizkaia	82	18	100
Gipuzkoa	87	13	100
<b>ADINA</b>			
30-39 urte	87	13	100
40-49 urte	81	19	100
50 edo + urte	89	11	100
<b>SEXUA</b>			
Gizonezkoa	85	15	100
Emakumea	83	17	100

dezagun pentsa bide erraza denik: gauza bat da pentsatzea gustura egongo liratekeela, parte hartu beharko luketela, eta beste bat ea prest egongo liratekeen, ea astirik baduten... ea ahal duten, azken finean.

Baina horrek ez gaitu jarrera ezkor batera eraman behar, dirudienez familiek nahi dute-eta, prest baitaude prestakuntzan parte hartzeko. Aurkituko dugu modua joan ahal daitezen, edo, behintzat, saiatu beharko dugu.

### 67. grafikoa

Gurasoek parte hartu beharko lukete prestakuntza saioetan?



Emaitzak zehatz-mehatz aztertuz gero, ikusten dugu Araba eta Gipuzkoako gurasoen %87k uste dutela BBHko prestakuntza saioetan parte hartu beharko luketela. Bizkaitarren %82k uste dute hori.

Gurasoen adinaren arabera aztertuta, helduenen (50 urtetik gorakoak) %89k ematen diote garrantzi handien BBHko prestakuntza saioetan gurasoek parte hartzeari; tarteko adinekoak (40-49 urte) zertxobait atzerago daude.

---

### 4.3. Hartu beharreko neurriak

Ez dugu ikerketa hau bukatu nahi BBHri buruzko neurri batzuk proposatu gabe. Beste era batera esanda, jaso nahi ditugu etorkizunean BBH lantzeko ekarpenak, iradokizunak eta orientazioak.

Horregatik, hurrengo lerroetan aipatuko ditugu galdera sortetan gurasoek, neska-mutilek eta begiraleek, eta, beste alde batetik, aisialdiko talde eta erakundeei egindako elkarrizketetan eta antolatutako eztabaida taldeetan adierazi dituzten neurriak eta jokabideak.

44. Taulan ikusten denez, aztertutako hiru taldeek, aisialdiko taldeetan hartu beharreko lehenengo neurria zela-eta, aipatu dituzte BBHrekin zerikusia duten jarduera jakin batzuk. Hala uste dute begirale eta gurasoen %23k eta neska-mutilen %25ek.

Bigarren neurriari dagokionez, erantzunak ez datoz bat, baina iritziak ez dira horren desberdinak; kontua da ea zein lehenesten duten. Neska-mutilek (%25) eta gurasoek (%21) uste dute hartu beharreko bigarren neurria izan beharko litzatekeela BBHren aldeko kanpainak edo proiektuak antolatzea, hau da, lehenengo neurrian aipatutako jarduerak baino tamaina handiagoak; begiraleek (%22) uste dute horren aurretik begiraleak prestatzeko barne saioak egin beharko liratekeela; jakina, aurreko ataleko erantzunekin bat datoz, eta gauzak egin ahal izateko (egiten jakin), aurretik prestakuntza (egin ahal izan) behar dela zioten.

#### 44. Taula


BBHri dagokionez, hartu beharreko neurriak edo jokabideak.  
Frekuentziak eta ehunekoak

	BEGIRALEAK		NESKA-MUTILAK		GURASOAK	
	Fi	%	Fi	%	Fi	%
Jarduera jakin batzuk	124	23	106	25	82	23
Barne prestakuntzako saioak	116	22	36	8	54	15
Kanpainak edo proiektuak	75	14	105	25	76	21
Ikastaroak eta mintegiak	76	14	27	6	21	6
Jardunaldiak	69	13	66	15	55	16
Hitzaldiak	64	12	79	18	58	16
Besterik	13	2	11	3	11	3
ED/EE	57		125		39	
<b>Guztira</b>	<b>594</b>	<b>100</b>	<b>430</b>	<b>100</b>	<b>396</b>	<b>100</b>

Begiraleek eskatzen dute gehien BBHri buruzko ikastaroak eta mintegiak (%14); gurasoen eta neska-mutilen %6k baino ez dute halakorik eskatzen. Argi dago, beraz, begiraleek, gurasoek eta neska-mutilek nahiago dutela taldearen barne prestakuntza (%22, %8 eta %15, hurrenez hurren), kanpokoek antolatutako ikastaro eta mintegiak baino.

#### 68. grafikoa

Nola ahalbidetzen da BBHri buruzko prestakuntza?



BBHri buruzko jardunaldi eta hitzaldiei dagokienez, begiraleek baino nahiago dituzte halakoak gurasoek eta neska-mutilek; alegia, nahiago dituzte jarduera handiak, kanpora irtetekoak, ekintzak sozializatzen dituztenak...; aisialdiko talde batzuek oraindik ere baztertu egiten dituzten jarduerak, alegia.

Era berean, talde eta mugimendu askok adierazi dute nahiko luketela halako ikerketak praktikan jar daitezela, ekintza jakin batzuen bidez. Taldeek ikerketaren emaitzak eta ondorioak jakin nahi dituzte, praktikan jarri ahal izateko.

# Ondorioak



# Bizikidetza eta bakerako hezkuntzarekin zerikusia duten kontzeptuak

1. Aisialdiko taldeek entzuna dute BBH, baina ez askorik. BBHren edukiei dagokienez, garrantzitsuenak dira giza eskubideak, balioetan oinarritutako hezkuntza, gatazkei aurre egiteko era eta gizarte justizia.
2. Taldeen iritziz, bakeari lotuen agertzen diren ideiak dira tolerantzia-begirunea, elkartasuna, elkarrizketa eta indarkeria-eza. Beraz, bakeari lotutako ideiak hurbil daude bake positiboa kontzeptutik. Bestalde, azpimarratu behar da bakeari buruz duten iritzian indarkeriak ez duela, inolako neurritan ere, lekurik.
3. Gatazkari lotutako ideiak direla-eta, tolerantzia eza, elkarrizketa eza, begirune eza eta injustizia aipatu dituzte gehien. Gehienek ustez, gatazka, eragozpen gaindiezina baino gehiago, aurkako jarrera ez hurbilaraztea eta jarrera horiek gainditzeko asmorik ez izatea da. Azpimarratzekoa da neutraltasun ideiak badirela, baina hala ere hiru taldeek dute berezko joera gatazka gertaera negatibotzat hartzeko. Erantzun itxiak aurkezten zaizkienean, alegia, hainbat erantzunen artean aukeratu behar dutenean, eta aukeretan neutraltasuna agertzen denean, neutraltasun horren aldeko jarrera handiagoa agertzen da, baina inoiz ez dira hitzaren zentzu positiboa ematera iristen.
4. Euskal gatazkari lotutako ideien artean, gizartean honakoak antzematen dira: ETArek ekintzak, jarrerak muturrera eramatea, alderdi politikoen arteko adostasunik eza eta hedabideen jokabidea. Horiek guztiak oztopotzat hartzen dituzte; kezka eragiten dute, eta gogaita ere bai, izan ere gizartearen interesak bigarren mailan geratzen dira, alderdi politikoen eta hedabideen interesen atzetik. Baina dena ez da negatiboa: gaur egungo testuinguru sozio-politikoan, badira alde positiboak, besteak beste, gizarte mugimenduen ekimenak, gizartearen sentiberatasun maila handia eta egungo errealitatea aldatzeko pertsona eta talde askok duten motibazioa.
5. Indarkeriari lau ideia lotzen zaizkio gehien: tratu txarrak eta agresibitatea; balioetan oinarritutako hezkuntza ezaren ondorioz, tolerantziarik ez izatea eta amore ematen ez jakitea; indarkeriaren arrazoietako bat elkarrizketa eta adostasun politikorik ez izatea; eta, azkenik, heriotzarekin zerikusia duen guztia (hilketak, atentatuak, gerra, biktimak, terrorismoa).
6. Indarkeriaren justifikazio mailari dagokionez, gehienek ez dute inola ere justifikatzen. Baina badira horren txikiak ez diren portzentajeak egoeraren arabera justifikazioaren aldekoak direnena.





# Deskribapena.

## Zer egiten da taldeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntzari (BBH) dagokionez?



7. Oro har, aisialdiko taldeek lantzen dute BBH. Dena dela, joera daukate zeharka lantzeko. Hori gertatzen da uste dutelako taldeetan egiten duten guztia BBH dela, eta ez dagoela berariaz lantzeko beharrik.
8. Taldeek hezkuntza jarduera guztietan barreiatzen dute BBHko lana, batez ere helburu eta jardueretan. Baina gaia zeharka lantzeak garrantzia murrizten dio, eta ez du hezkuntza jarduera osoa «bustitzen».
9. Gertaera bereziren bat izan edo ez, taldeek BBH lantzen dute. Taldearen jarrera ideologikoa da hori, eta ez, ordea, gatazkei irtenbidea aurkitzeko edo bizikidetza egonkorra lortzeko tresna.
10. Honakoak dira BBH lantzeko gehien erabiltzen dituzten teknikak: komunikazioa, lankidetza jokoak, erabakiak adostasunez eta distentsioan hartzea; guztiak ere funtsezkoak dira, horietan oinarritzen baita hezkuntza ez formalaren lana.
11. BBHren bidez gehien bultzatu nahi dituzten jokabideak dira enpatia, aktiboki entzutea eta gaitasun kritikoa.
12. Taldeetan antzemandako gatazka gehienek zerikusia dute barneko arazoekin; «talde barneko gatazkak» izena eman diegu. Ondoren datoz, desadostasuna eta begirunerik eza. Ez dugu gai politikoeekin eta inmigrazioarekin, nabarmen handitzen ari den gertaera, zerikusia duen gatazkarik antzeman.
13. Begiraleen aburuz, ingurunean gertatzen diren gatazka garrantzitsuenak dira, hurrenkeran, gatazka politikoa, inmigrazioarekin zerikusia duen arrazakeria, tolerantziarik eza (iritzi aniztasunarekiko begirune eza; datu honek erakusten digu taldeek ez dutela kanpoaldearekin harreman handirik), terrorismoa eta indarkeria.
14. Begiraleen taldeek garrantzi handiagoa ematen diote beren inguruneko bortizkeriaren errealitatea aztertzeari, beren barne errealitateari baino.
15. Taldeko indarkeriaren errealitatea aztertzea oso zabaldua dago begiraleen artean, bereziki begirale gazteenen artean. Eta aitortzen dute neska-mutilek eta gurasoek ez dutela horrenbeste aztertzen errealitate hori.
16. Kanpoko erakundeen esku uzten dute begiraleak BBHren alorreko berariazko prestakuntza; aisialdiko eskolen esku, batez ere. Talde gutxiagok adierazi zuten badaukatela BBHko barne plana.

17. Lurralde guztietan dago zabaldua BBHko prestakuntza taldetik kanpo jasotzea, eta gehienbat, Bizkaian. BBHko prestakuntza jasotzeko aukerarik aipatuena izan dira ikastaroak eta mintegiak, eta, ondoren, hitzaldiak.
18. Taldeek ez dute BBH prestakuntzako berariazko arduradunik; talde gehienetan prestakuntza arduradunak taldera ekartzen du gaia programatzen dituzten saioetan. Arduradun horrek berak nolako sentiberatasuna duen BBHrekiko, gai hori lantzen dute saio horietan.
19. Ez datoz bat BBHren aldeko jardueren balioespena dela-eta. Taldeen erdietan, balioespena izan ohi da informazioa jasotzea oroitza txostenetan, eta ez, ordea, esperientziak taldera ekartzearren, une jakin batzuetan elkartzea.

# Egiten denari buruzko balioespena



20. Aisialdiko taldeetan, gatazkari aurre egiteko estrategien artean, elkarrizketa erabili ohi dute nagusiki. Esparru ez formalean gertatzen diren gatazkak era positiboan bideratzeko faktoreak ere badira, esaterako, laguntza pertsonala, neska-mutilek beren burua hezkuntza prozesuaren ardatz gisa ikustea, hurbileko harremana eta aisialdiko metodologiaren ikuspegi sozio-afektiboa.
21. Taldeetako arduradunen zeregina da, beren eskarmentua eta prestakuntza mailaz baliaturik, neska-mutilei laguntzea hazten eta heltzen. Begiraleak osagarri garrantzitsua dira bizikidetzarako eta gatazkei konponbidea emateko, bakerako hezkuntzaren aldeko jarrerak eta balioak baitituzte. Hori adierazi zuten, behintzat, begiraleek eta gurasoek ere. Ordea, gurasoen jarrera pasiboa da gehienetan, edo bestela, axolagabea. Horrek hausnarrarazi behar digu berehala, gurasoen erantzukizuna handi-handia baita beren seme-alaben heziketan.
22. Neska-mutilak gustura egoten dira aisialdiko taldeetan, beren nortasuna garatzen dute, beren adineko beste neska-mutil batzuekin dituzte harremanak, jokotik eta bizi-penetik ikasten dute... pertsona egiten dira, azken finean. Taldean sentitzen dute ondoen beren burua neska-mutilek, eta begiraleekin daude inorekin baino hobeto. Taldeetako metodologia bikaina dela adierazi zuten; taldeei adorea eman behar dio iritzi horrek, lan eta heziketa estilo horretan ahalegintzeko.
23. Taldeen ustez, bizikidetzeta eta bakerako hezkuntzako didaktika material gutxi dago. Eta daudenak ez dira taldeen eskuetara iristen. Horrez gain, material horiek taldearen eguneroko jardunean txertatzea zaila da, materiala ez baitago egokituta esparru ez formalean errealitatera.
24. Zaila da BBHri buruzko programak eta jarduerak abian jartzea, izan ere aisialdiko talde eta elkarte asko kinka larrian daude, ez baitago ordezkatzeko belaunaldi berririk, jaitsi egin da boluntarioen kopurua, dirulaguntzak jasotzeko deialdiak gutxiago dira, eta oso burokratizatuta daude.
25. Balioetan oinarritutako hezkuntza eta gatazkei aurre egiteko erak lantzen dituzte gehien. Oinarri sendoa da bizikidetzeta eta bakerako hezkuntzaren zutabeak jartzeko; aisialdiko taldeek eskatu dutenez, lan handiagoa egin beharko da giza eskubideen arloan.
26. Euskal gatazkak sortzen du arazo gehien gaiari ekiterakoan. Berez, taldearen ingurune-arekin zerikusia duten eta gizartean eztabaida handia pizten duten gatazka guztiak dira zailak taldean lantzeko.

27. Testuinguru sozio-politiko bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren aldekoa da. Begiraleek eta familiek beren ingurunearen oso balioespen positiboa egin zuten, eta horrek itxaropena sortzen du maila guztietan. Gehienek antzematen dutenaren arabera, taldeen eta, oro har, gizartearen alderdirik indartsuena dira motibazioa, BBH lantzeko gogoia eta bizi dugun egoerari konponbidea aurkitzeko gogoia. BBHren aurkakoak dira lehiakortasuna eta gizartean nagusi diren balioak.
28. Begiraleen aburuz, aisialdiko taldeen ahulgunea BBHri buruzko berariazko prestakuntza da. Horren zergatia da Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela BBHri buruzko eta gatazkei konponbidea aurkitzeko gaiari buruzko eskaintza handirik; beraz, eskaintza eta edukiak aldatu egin beharko dira.

# Proposamenak



Egindako ikerketa honetatik eta galdera sortetatik, izandako elkarrizketetatik eta antolatu ditugun eztabaida taldeetatik ondorioztatu ditugu neurriak, orientabideak eta proposamenak bai hezkuntza formalaren esparruan eta bai ez formalaren esparruan diharduten eragileentzat:

- Aisialdiko taldeak.
- Gurasoak.
- Taldeen federazioak.
- Heziketa eskolak.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.
- Ikastetxeak.
- Aldundiak eta udalak.
- Eusko Jaurlaritza:
  - Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte-ekintza Zuzendaritza).
  - Justizia Saila (Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritza).
  - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Alderdi politikoak.
- Hedabideak.
- Gizarte mugimenduak.

